goiena
Zu hemen zaude.

2023-06-30 EGUBAKOITZA / 999. ZENBAKIA / 23. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM


Frantziako Tourra iritsi da

**FRANTZIAKO TOURRA**
ORRIALDE BEREZIAK / 36



# TOURRA ETXEAN HARTZEKO GERTU

Domekan igaroko da Frantziako Tourra Debagoienetik. Gasteiz eta Donostia arteko bigarren etapan, Aramaio, Arrasate eta Oñati zeharkatuko ditu. Zaleak gertu daude munduko ziklismo-lasterketarik garrantzitsuena etxetik pasatzen ikusteko / 36

Oñatiko ziklismo-zale talde bat Udana hasieran eguaztenean; domekan han izango dira txirrindulariak animatzen. XABIER URZELAI



**ARAMAIOKO SAN MARTIN JAIAK** / 17



**LGTBI komunitatea sigla hutsa baino askoz gehiago dela aldarrikatu dute herritarrek kalean** / 4

\+




Oporretan, bidaiatzeko nahi beste aukera

Arianne Kareagari elkarrizketa (Lanki ikertegia)



Herritarrak autobusaren zain, Elorregiko autobus geltokiko lanak egiten ari diren bitartean; goian, gunea nola geratuko den. I.A.A.

# Hasi dituzte Elorregiko autobus geralekuko lanak

Lizitaziora enpresa bakarra aurkeztu da eta Construcciones Aplibur SL ari da obrak gauzatzen. 203.542 euroko aurrekontua du eta irailaren bukaeran amaituta egotea aurreikusten dute; lanek irauten duten bitartean, geralekua martxan egongo da

**Idoia Aranbarri Arzuaga** DEBAGOIENA

Urteetan erabiltzaileek egindako eskaera errealitate bihurtuko da hilabete gutxi batzuk barru; izan ere, Elorregiko autobus geltokian ekainaren 22an hasi zituzten komun kimikoa eta bizikletentzako aparkalekua jarri eta geltokia eraberritzeko lanak. Irailean prest egotea espero da, kontratuan jasota baitago hamabi asteko epean bukatzea lanak. Construcciones Aplibur SL enpresa ari da lanak egiten eta 203.542,09 euroko aurrekontua du, BEZa barne. Izaro Elorza Oñatiko alkateak azaldu duenez, lizitaziora enpresa bakarra aurkeztu zen: "Ez zuten prezioa jaitsi, eta lizitaziora atera genuen prezio berean esleitu da". Gipuzkoako Foru Aldundiarekin egindako hitzarmenean jaso bezala, %60 Aldundiak jarriko du eta %40, Arrasateko, Bergarako eta Oñatiko udalek.

Balorazio "gazi-gozoa" egin du Elorzak: "Proiektua gauzatzea asko kostatu da, uste baino denbora gehiago behar izan dugu, izan ditugun zailtasunengatik". Alde positiboak ere aipatu ditu: guneari duen garrantzia ematea eta gaur egungo beharretara egokitzea geralekua. Era berean, erakundeen arteko elkarlana azpimarratu du: "Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hizketan aritu gara, Arrasateko eta Bergarako udalekin adostasunera heldu gara eta mantentzea Debagoieneko Mankomunitateak kudeatzea lortu dugu. Eskatu duten zerbitzua emango diegu herritarrei".

### Geralekua, martxan

Lanak hasita, markesina kendu egin dute, eta, hortaz, gaur egun ez dago aterperik; hala ere, Elorzak aurreratu du behin-behineko babeslekua jarriko dutela. "Egun hauetan ibili dira teknikariak gunean azterketak egiten eta ikusten lanak nola doazen. Aipatu dutena da, ziurrenik, kontainer ireki bat jarriko dutela pare bat eserlekurekin barruan", dio Oñatiko alkateak.

**MARKESINA KENDU ARREN, LANAK EGIN BITARTEAN BEHIN-BEHINEKO ATERPEA JARRIKO DUTE**

Hamabi asteotan autobus zerbitzua martxan izatea aurreikusten dute. Lanengatik, informazio-panel elektronikoak kendu egin dituzte, ordea, eta ez dituzte jarriko obrak amaitu arte.

### 56 metro karratuko gunea

Geltokiko komuna kimikoa izango da, gaur-gaurkoz, ur-azpiegiturarik ez dagoelako han. Bizikletak lagatzeko gunea ere izango du. Mantentzeaz Debagoieneko Mankomunitatea arduratuko da: "Hitzarmen bateratua egin dugu hiru udalek eta Mankomunitateak, mantentzea entitate bakarrak kudea dezan. Bestela, txandakatze sistema izan beharko luke".

# Fedepadual-ek aitortza jaso du; hango kide da Katearen Loturak

Patologia Dualak Kaltetutakoen Senideen Elkarteen Espainiako Federazioko presidentea da Mariasun Zubia

**I.A.A.** ARRASATE

2019an Debagoienean sortu zen irabazi asmorik gabeko Katearen Loturak elkarteak pauso bat harago eman, eta Fedepadual sortu du beste zenbait erakunderekin batera (Patologia Dualak Kaltetutakoen Senideen Elkarteen Espainiako Federazioa). 2022ko apirilean sortu zen ofizialki federazioa, eta hango presidentea da Mariasun Zubia, Katearen Loturak elkarteko kide arrasatearra.

Patologia Dualeko Espainiako Elkarteak (SEPD), Patologia Dualeko Fundazioak eta World Association of Dual Disorders (WADD) erakundeak *Jokabide-adikzioak eta patologia duala* jardunaldiak antolatu zituzten ekainaren 23rako Madrilen, eta SEPDren aitortza jaso zuen Fedepadualek; Zubiak jaso zuen ziurtagiria, WADDko presidente Nestor Szerman-en eskutik. "Pozik" agertu da arrasatearra aitortzarekin: "2022an hasi ginen lehen pausoak bideratzen eta ematen. Uste dut gauza asko egin ditugula denbora gutxian oso pertsona gutxirekin. Orain, federazioa formalizatzen hasi behar dugu".

### Helburuak, zehaztuta

Patologia duala pairatzen dutenak diziplina anitzeko talde integral baten bidez tratatzea da federazioaren helburuetako bat, Zubiak adierazi duenez: "Biak batera landu behar dira. Prebalentzia daukana lehenago tratatuko duzu, baina bestea kontuan hartuta beti". Hortik jarraituz, aipatu du zenbait mediku eta psikiatrak egin dituzten ikerketetan demostratzen dela "lana bi aldeetan eta diziplinartekotasunarekin ez bada lantzen inoiz" ez dela lortuko osatzea. Gainera, federazio moduan beste helburuetako bat da gizartea kontzientziatzea eta sentsibilizatzea, baita osasuneko profesionalak ere, uler dezaten "patologia duala hor dagoela".

### Familiaren babesa

Fedepadualek familiari ere eman nahi dio garrantzia. "Tratamenduan hiru hanka badaude; bat familia da. Batzuetan, uste dugu osasun profesionalak duela botere guztia, baina familiak ere badu zeresana eta zerikusia. Azkenean, tratamenduan frakasoa izaten bada, familiak jasotzen du pertsona hori, eta familia formatu egin behar da. Nola eraman aurrera krisi momentua, errekurtsoak... Askotan, ez da jakiten zer egin".

Katearen Loturakek ere horren alde egin du, eta, Zubiak nabarmendu duenez, Eusko Jaurlaritzak duela gutxi atera du patologia dualari buruzko protokoloa, eta han sartu ditu Debagoieneko elkartearen iradokizunak.

**DEBAGOIENEKO ELKARTEKO KIDE ARRASATEARRA DA FEDERAZIOKO PRESIDENTEA**



Fedepadual-eko presidente Mariasun Zubia aitortza jasotzen Madrilen. SEPD

# Urratsak Osakidetzako garbitzaileen lan-gatazkan

Osakidetzak azpikontratatutako garbiketa-zerbitzuko langileen hilabeteetako grebak amaiera izan dezake, astelehenean sindikatuek eta Eusko Jaurlaritzaren Lan Sailak izandako bileran "oraindik itxi gabe dagoen" aurreakordioa mahaigaineratu ostean

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARRASATE

Osakidetzak azpikontratatuko garbiketa-zerbitzuko langileen grebak amaiera geroz eta gertuago izan dezake, ELA sindikatuak jakinarazi duenez, joan den astelehenean ELA, LAB, UGT, CCOO eta ESK sindikatuetako ordezkariek Eusko Jaurlaritzako Lan Sailarekin izan zuten bileran "oraindik itxi gabe dagoen" aurreakordio posible baten planteamendua egin zelako. Gipuzkoako ELAko garbiketa-arduradun Ane Alberdik azaldu duenez, ELA izan ezik enpresak eta gainerako sindikatuak "sinatzeko prest" agertu ziren: "Denera, garapen profesionalaren sei urte zor dizkigute 2012koa eta 2019-2023 urte bitartekoak –Alberdik esan du Osakidetzak 2013tik 2018ra garapen profesionala ez ateratzea erabaki zuela–, eta aurreakordioaren planteamendua da garapen profesionalaren sei deialdi horietatik hiru ordaintzea. Ez dugu murrizketarik onartuko. Osakidetzaren abalaren zain daude eta badirudi baiezkoa ematen badu hau amaitu egingo dela". ELA, %40rekin, lehen sindikatua da sektore horretan, baina gainontzeko sindikatuek bateratuta gehiengo osoa dute.

ELAko ordezkariak azaldu duenez, homologazioan oinarritutako hitzarmena daukate: "Guk Osakidetzako garbitzaile pertsonal propioen baldintzak ditugu. Garapen profesionala 2011ko deialdira arte aitortuta daukagu. Osakidetzako garbitzaileek 2012koa aitortuta daukate, baita 2019tik 2021erakoa ere. Guk ez. Horregatik erabaki genuen negoziazio mahaian erreklamatzea garapen profesional hori. Enpresek uko egin zieten eta Osakidetzak esan zigun ez zuela inolako asmorik azpikontratatutako garbitzaileei garapen profesional bat ere ordaintzeko".



Arrasateko Ospitaleko sarrera aste honetan. ENEKO AZKARATE

### Negoziaketak, lehenagotik

Bost urte baino gehiago daramatzate hitzarmenaren negoziaketekin, baina, ELAko ordezkariak nabarmendu duenez, negoziaketak blokeatuta zeuden, eta horregatik hartu zuten greba egiteko erabakia. Osakidetzako garbitzaileen bi greba deialdi daude martxan. Alde batetik, LAB, UGT, CCOO eta ESK sindikatuek deitutakoa; bi hilabete baino gehiago daramatzate greban, eta, ekainaren 2an adierazi zutenez, gaurkoa izango dute grebako azken eguna. ELAk, berriz, lau hilabete baino gehiago daramatza greban –otsailaren 27tik–, eta, momentuz, uztailaren 16ra arte dauka deituta greba.

Asteleheneko bileraren aurretik, pare bat gehiago egin dituzte grebak dirauen bitartean, baina ELAko ordezkariak adierazi du ez zutela aurrerapenik egin. Lan Sailak gutxieneko zerbitzuak ezarri ditu hilabete hauetan, eta hamabi egun eta erditik behin ezohiko garbiketak egin behar izan dituzte zenbait garbitzailek.

### Debagoieneko egoera

Rosa Mari Guirao ELAko Osakidetzako garbiketa-ordezkaria eta Bergarako anbulatorioko garbitzailea da, eta gutxieneko zerbitzuaz mintzatu da: "Lur-jota geratzen gara. 'Berriro ere hasieratik hasi behar dugu?', esaten dugu. Hala ere, indartsu gaude eta aurrera egin behar dugu; bestela, bi egunetan hondoratzen zaituzte". Debagoieneko osasun-etxeetako egoeraz galdetuta, diote garbitzaileen gehiengoa alde handiarekin azpikontratatutako enpresetakoa dela: "Egia da hemengo anbulatorio batzuetan lanean ari direla aldi baterako kontratua duten garbitzaileak, lanean ari baitira. Greba amaitzen denean kaleratuak izatearen beldur dira. Ez luke horrela izan behar, bakoitza libre baita greba egiteko, baina errealitatea hori da. Taldea indartsu dago eta ondo gaude. Indar handia duen kolektiboa da gurea".

Elkarren babesa izateaz gain, herritarren eta zenbait profesionalen babesa dutela aldarrikatu dute Guiraok eta Alberdik; hala ere, kontrako jarrerak ere bizi izan dituztela azaldu dute: "Guk daukagun arma bakarra ez garbitzea da. Jende askok txerritzat hartzen gaituzte, baina gure ogibidea garbitzea da. Eta garbitzen ez badugu, zikin dago; hori da gure grebaren arma".

**BOST URTE BAINO GEHIAGO DARAMATZATE HITZARMENAREN NEGOZIAKETEKIN**

# U23ko hauteskundeetako mahaikideen zozketak, eginda

Ohi baino ordezko gehiago atera dituzte mahaikideen zozketetan, ohi baino helegite gehiago espero baitira

**I.A.A.** ARRASATE

Uztailaren 23ko hauteskunde orokorretako mahaikideen zozketak egin dituzte udaletan, eta egunotan ari dira hauteskunde-mahaian egotea egokitu zaien hiru titularrei –presidentea eta bi bokal– eta haien bina ordezkori jakinarazpena helarazten. Hala ere, kargu bakoitzeko kopuru hori baino ordezko gehiago ateratzen dituzte, litekeena delako kargu bakoitzean hiru helegite baino gehiago aurkeztea. Legez, kargu bakoitzeko titularra eta hamahiru ordezko atera daitezke, gehienez ere, eta kopuru tarte horretan udalak erabakitzen du zenbat ordezko atera. Arrasaten eta Bergaran gehienezko ordezko kopurua ateratzen dute.

Data ikusita, ordea, ohi baino helegite gehiago espero dituzte. Aretxabaletan eta Eskoriatzan, esaterako, gehienezko ordezko kopuruak atera dituzte; M28rako, adibidez, hamar ordezko zituzten Eskoriatzan. Antzuolako eta Oñatiko udaletatik jakinarazi dute hamar ordezko daudela. Aramaion, berriz, titularraz gain, bost ordezko.

Esan bezala, titularrek eta bi ordezkoek jaso dute mahaikide izateko jakinarazpena, baina Debagoieneko udaletatik adierazi dute helegiteak aurkeztu eta onartzen diren kasuetan hurrengo ordezkoak deituko dituztela mahaian egotera. Era berean, azaldu dute uztailaren 21era arte jakinarazi dezaketela.

Hauteslekuen kasuan, M28ko hauteskundeetako leku berak bihurtuko dira hautesleku eta bakoitzak dagokion gunean eman beharko du botoa. Bailaran 21 hautesleku jarriko dituzte, eta 79 mahai: Arrasaten sei hautesleku eta 29 mahaitan banatua, Bergaran bost eta hamazazpi mahai, Oñatin lau eta hamabost mahai, Aretxabaletan bat zortzi mahairekin, Eskoriatzan ere bat lau mahairekin, Aramaion eta Antzuolan hauteslekü bana bina mahairekin eta Elgetan eta Leintz Gatzagan hautesleku bana mahai banarekin.

EGUBAKOITZA 2023-06-30 GOIENA ALDIZKARIA




Arrasaten Morborrek deitutako elkarretaratzea. E.A




Aretxabaletan TransMariBiBollo taldeak deitutako manifestazioa. M.A

# Ekainaren 28a egunero dela aldarrikatu dute

LGTBI Komunitatearen Nazioarteko Eguna izan da eguaztenean, eta hainbat herritan egin dituzte kolektiboaren eskubideak aldarrikatzeko jarduerak. Arrasaten eta Aretxabaletan kalera atera dira, ekainaren 28a egunero dela aldarrikatzera

**Miren Arregi Amasorrain** ARRASATE

LGTBI Komunitatearen Nazioarteko Eguna aldarrikapenez betea izan da Debagoienean ere. Udalek Harrotasunaren bandera atera dute balkoietara eta Arrasaten, Aretxabaletan eta Bergaran jarduerak egin dituzte, gorputzak, identitateak, sexualitateak, desirak eta harreman ereduak libreki bizi eta egituratzeko bidean urratsak egitea beharrezko dela aldarrikatzeko. Arrasaten, Morbor Arrasatek deituta, Herriko Plazan elkartu ziren hainbat herritar. "*LGTBIQ* ahoskatze hutsarekin oraindik trufak, irriak edota irainak jasan behar" dituzten kolektiboko kide bezala aurkeztu zuten euren burua, "erakundeetako arduradun politikoen ezezagutza eta interes falta agerikoa sufritu eta zenbait sektore faxistetatik jasaten ari diren bazterkeria eta erasoak" salatzearekin batera. Are gehiago, salatu zuten eraso transfobo eta homofoboak "eguneroko ogia" direla jendartean: "Kolektiboaren %29k azken urteetan jazarpena jasan izana salatzen du, %27k diskriminazioa eta ia %9k inoiz eraso fisikoren bat sufritu du. Baina egoera horiek soilik %20k salatzen dituela kontuan hartuta, errealitatea oraindik eta gordinagoa eta gogorragoa da gaur eta hemen".

### Sistemari hortzak erakutsiz

Ozen aldarrikatu zuten, bestalde, ez direla egutegiko egun seinalatu bat, festa bat edota desfile huts bat: "Kapitalismoaren marka esanguratsuenek, enpresa eta erakunde ugarik salgai bihurtu nahi gaituzte, etekin ekonomikorako zein politikorako janari. Baina badakigu kapitalista, heteroa, patriarkala eta zis-a den sistema honek behin eta berriro erabiliko dituela bere trikimailuak, ardi-larruz estalita, arauetan sartzen ez garen sexu, gorputz, identitate zein desira disidentziak asimilatzeko eta, horrekin batera, ustez dena lortu dugula, bat gehiago garela eta aldarrikatzen duten normalitatea lortu dugula aldarrikatzeko".

### "Harro ez da 'pride"

Arrasaten, Aretxabaletan bezala, aurrerapenak egin badira ere, oraindik "ia dena" lortzeke dagoela nabarmendu zuten. "Azken hamar urteotan gauzak hobetu egin badira ere, ez da nahikoa, eta borroka asko dago egiteko", esan zuten Atxabaltako TransMariBiBollo taldeak deitutako manifestazioaren bukaeran. Gainera, ekainaren 28a urte osora zabaldu beharreko borroka eta aldarrikapen eguna dela nabarmendu zuten, eta Aretxabaleta leku inklusibo eta segurua izatea dela helburuetako bat, bakoitzak bere identitatea eta maitatzeko eta bizitzeko modua aske eraikitzeko aukera izan dezan: "Aretxabaletarron betebeharra da, baita ere, aske izateko laguntza behar dutenei babesa ematea eta eraso eta burlak botatzen dituztenei kontra egitea. Garrantzitsua da pertsonak jaiotzen direnetik gai hauetan heztea eta sistemak ezarritakoa zalantzan jartzea".

**ALDARRIKATU DITUZTE GORPUTZ, DESIRA, IDENTITATE ETA HARREMAN EREDU GUZTIAK**

Aldi berean, genero eta maitatzeko modu guztien existentzia aldarrikatu zuten, eta Harrotasunaren Nazioarteko Eguna borroka eguna dela nabarmendu: "Harrotasunaren Eguna ortzadardun bikoteen arteko musuak baino gehiago da; horretan oinarritutako produktuak saltzen dirua irabazi baina gero batere laguntzen ez duten taldeak baino askoz gehiago. Harro ez da *pride*. Harro borroka da", azaldu zuten. Udalak babestuta eta Atxabalta Harro elkartekoen parte hartzearekin egin zuten manifestazioa.

Bergaran ere, ekainaren 28ko ekintza berezi moduan, lau erraldoik bikote aldaketa egin zuten. Irala kalean Marisak Magdalenarekin eta Peruk Ximonekin egin zuten dantza. Erraldoiak protagonista zituen dantza iragartzeko, Aitor Cengotitabengoa Iraegik diseinatutako kartelak jarri zituen Bergarako Udalak kalean, *Maittasuna egin, aldarrikatu eta ospatu* lelopean, eta herritarren atentzioa erakarri zuten.

## Txokolatezko balea-txalupa astean iritsi da Oñatira

XVI. mendeko euskal balea-txalupa baten txokolatezko erreplika da; laster jarriko dute ikusgai

**M.A.A.** OÑATI

1978an Kanadako Red Bayn aurkitutako *San Juan* baleontziaren azpian aurkitu zuten XVI. mendeko txalupa baten txokolatezko erreplika da Gipuzkoako Artxibo Historikora eroan dutena, Gozoa elkarteko gozogileek eta Albaolako teknikariek Pasai San Pedron eraikitakoa. 2.000 kilo txokolate behar izan dituzte zortzi metro luze eta bi zabal den txalupa sortzeko. Txalupa gozoa ekainaren 1ean itsasoratu zuten, Pasaian, eta itsasoratze hartan izandako urratutxoa konpontzea falta da orain, Oñatiko Artxibo Historikoan erakusgai jarri ahal izateko. Datorren astean emango dituzte udal ordezkariek irekieraren gaineko xehetasunak.

Txokolatezko txalupa Gipuzkoako Artxibo Historikora eroan izanaren arrazoia bikoitza da. Izan ere, Selma Huxley ikerlariak Oñatiko Protokoloen Artxiboan egindako aurkikuntzei esker topatu zuten Kanadako Red Bayn XVI. mendean hondoratu zen *San Juan* baleontzia. Hori horrela, txaluparekin batera, aurkikuntza hura ahalbidetu zuten dokumentuak ere ikusgai egongo dira. Nola ez, ezin da ahaztu Oñatik txokolatearekin izan duen eta duen lotura.



Txokolatezko txalupa. OÑATIKO UDALA

# ARRASATE MUSIKAL BIG BAND

Ekaina 30
19:30
Monterron parkean



# "DALE RAMÓN"

Uztaila 04
20:00
Seber Altube plazan



# "MONDRA'N'ROLL"

Uztaila 07-08
Monterron parkean



# MANU CHAO

Uztaila 09
18:00
Monterron Parkean



# "KOBR3"

Uztaila 11
20:00
Biteri plazan



# ARRASATE BLUES

Uztaila 13-16
Hainbat lekutan




ibai-arte | Arrasateko merkatari elkartea

# DESªNUDA

Uztaila 18
20:00
Seber Altube plazan



# KORRONTZI

Uztaila 20
19:30
Monterron Parkean



# "LOS PERROS"

Uztaila 21
20:00
Zaldibar frontoian



# UDAZABAL ARRASATE 2023

Gipuzkoako Foru Aldundia – Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua | Orain Kultura | Arrasateko Udala – Ayuntamiento de Mondragón | Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco – Kultura eta Hizkuntza Politika Saila – Departamento de Cultura y Política Lingüística



ZABALIK

**ANDREA GONZALEZ**

# Komunetan

Herriko jaiak, jaialdiak, egun-pasak, hondartzara irteerak, ekitaldiak… guztiek daukate zerbait amankomunean. Ez, euskaldunon estereotipo bat bada ere, ez da alkohola. Komunak dira.

Amankomunean ditugun arren ez dira komunak; hau da, ez dira guztiontzat. Beraz, ez dira komunak. Komun komunak ez, behintzat. Eskerrak gaur egun geroz eta leku gehiagotan guztiontzat komun berak dauden.

Generoarengatik desberdinduta dauden komunez gain, badaude bestelako bazterketak egiten dituzten komunak, baina gaur ez dut komun mota guztiez hitz egin nahi. Komunez hitz egin nahi dut azkenaldian daukadan kezka bat zuekin partekatzeko.

Etxetik kanpo eguna pasatzen dugunean etxekoak ez diren komunak erabili behar ditugu, eta horrek mota askotako komunak ezagutzera eramaten gaitu. Tamaina eta garbitasun maila alde batera utzita, nire arazoa komun barruan iturririk ez egotea da.

Badakit komun barruan iturri bat jartzeak leku asko kentzen duela, eta kanpoan iturri komun bakar bat izatearekin nahikoa izan daitekeela, baina niretzat, eta uste dut emakumezko askorentzako ere, askoz erosoagoa da.

**EMAKUMEZKO ASKORENDAKO EROSOAGOA DA KOMUN BARRUAN ITURRI BAT JARTZEA**

Demagun etxetik kanpo zaudela, hilekoarekin, eta tanpoia edo dena delakoa aldatu behar duzula. Komun barruan iturri bat izanda, kopa hustu eta garbitu dezakezu berriz jarri aurretik eta tanpoia edo dena delakoa aldatu ostean ere eskuak garbitu ditzakezu kuleroak eta prakak igo baino lehen.

Egia da taberna batean arazo edo kezka horri konponbidea topatzea askoz errazagoa dela jaietarako alokatzen diren komun publikoetan baino, baina, hala ere, uste dut horrelako lekuetako komunetako higienea hobetzeko asko egin daitekeela; esaterako, komun indibidualak beharrean trailerrak alokatzen edo komunetan bertan zakar-poltsak jartzen.

Ez dakit zein den konponbide zehatza; beharbada, ez dago, baina horrek nire kezka zabaldu eta beste batzuek horren inguruan hausnartzeko balio badu, ni pozik!

MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE**



HANDIK ETA HEMENDIK

## Izena

**ANDONI EGAÑA**

'BERRIA'-N ARGITARATUA
HTTPS://LABUR.EUS/JWCKX

Ez dut bere idazkirik apenas ezagutzen.

Bere musikan, pasarte batzuk ezagutzeko gai naiz, ez gehiago.

Badakit garai katramilatsuetan bizi izan zela.

Baina nor ez da bizi izan garai katramilatsuetan!

Idatziko zituen ertz zorrotzegiak zituzten esaldiak, judaismoaren kontra, esaterako.

Baina badira 140 urte hil zela, eta, merezita ala merezi gabe, gizon hau ez dute bakean uzten.

XIX. mendeko hizkeran esanda, kupida sortzen dit.

Zortzi urte zeramatzan lurpean Adolf Hitler jaio zenerako.

Baina Hitlerrek bere operak ikusi-entzun zituenean, errai-ziztada berezia sentitu omen zuen.

Eta konposatzailearen lanak errotu egin zizkion berez zekartzan uste erratuak.

Orduz geroztik, Wagner eta nazismoa elkarren eskutik iritsi izan zaizkigu, batzuen izugarrikeriek bestearenganako arbuioa sentiarazteraino.

Orain artekoa gutxi zela, orain jakin dugu azken hamar urteotan mundua maixatzen ibili den Errusiako mertzenario taldeak Wagner izena duela.

Izena nondik hartu zuten bila hasi naiz, eta ziurtasun osorik gabe bada ere, sumatzen nuena berretsi dut:

Konposatzailearen deituratik.

Eta Richard irudikatu dut, lurpetik ukabil bildu bat aterata, eramanak gainezka egina aspaldi, mehatxuka:

"Utz nazazue bakean behingoz! Ez nire izena alferrik ahotan hartu!".

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**
Monika Belastegi.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.
**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
**Maketazioa**
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
**Publizitatea**
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*publi@goiena.eus*
**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.500 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

# "Guretzako, etxeko senide bat gehiago da Karyna"

## DORLETA ENCINA HARRERA-FAMILIA BATEKO AMA

**Eneko Azurmendi Barrena**
ESKORIATZA

Karyna Starovoitenko 2014an iritsi zen lehenengoz Eskoriatzara, eta beso zabalik hartu zuten Dorleta Encinak (Eskoriatza, 1977) eta bere familiak. Txernobyldik 100 bat kilometrora dagoen Olyva herrixkakoa da eta Chernobil elkartearen bitartez etortzen da hona urtero, bi hilabete igarotzera. Encinak dio etxeko bat gehiago dela.



Dorleta Encina eta Karyna, Eskoriatzan, eguaztenean. D.E.

**Nola suertatu zitzaizuen Karyna etxean hartzeko aukera?**
Aspalditik buruan geneukan ideia zen, baina ez genuen benetan planteatu ordura arte. Urte hartako neguan, irratian entzun genuen Chernobil elkarteak kanpaina irekita zuela ,eta, kasualitatez, Ukrainatik neska bat ekartzera zihoan beste familia batekin elkartu ginen. Beraz, animatu egin ginen. Gure alabak 4 urte zituen orduko hartan, eta hark ere pozik hartu zuen ideia.

**Lehen harremana nolakoa izan zen harekin?**
Hasieratik oso harreman polita sortu da gure artean, eta bereziki gure alaba Sararekin oso harreman ona dauka Karynak. Bi urteko aldea dute eta Karynak esaten digu Sara izan dela bere erreferentzia hasieratik. Elkar ez ulertu arren, jolasean aritzen ziren eta ondo konpontzen ziren.

**Nola iritsi zen Karyna? Zein zen haren egoera?**
Argal samar, begi-zuloekin… Han egoera ez da erraza eta oso herrixka xumeetan bizi dira. Ez dira gose, baina behar asko dituzte, bizitza gogorra da han. Langabeziatasa handia da, baita alkoholismo maila ere.

**Egoera zail horri gerra batu behar zaio orain.**
Hori da. Karynaren kasuan, militarrek hartu zuten haien herrixka eta oso egoera gogorrak bizi izan zituzten, lur azpian gordeta eta beldurrez. Are gehiago, basotik ihes egin behar izan zuten eta Karyna urtebete egon zen hemen iaz.

**Halako errealitate batetik etorrita, nola hartzen dute hemengo egonaldia?**
Lehenik eta behin, askoz ere hobeto elikatzen dira hemen. Azken batean, hango elikagaiak oso oinarrizkoak dira, ortutik jasotakoak, eta, hango erradiazioaren eraginez, ez dira oso osasuntsuak. Behiek ere erradiatutako belarra jaten dute, eta, ondorioz, esnearekiko mesfidantza handia dute han. Gogoratzen dut Karyna zoratu egiten zela hemengo frutarekin eta elikagai guztiak probatzen zituela hasieran.

**Mesede egiten diete, beraz.**
Bai, noski. Kilo batzuk hartzen dituzte eta begietan ere beste kolore bat igartzen zaie. Era berean, egoera bera ere askoz hobea da hemen eta ez dauka zerikusirik han pasa dezakeen uda batek hemen pasatzen duenarekin. Zorionez, haren hango familiaren maitasunik ez zaio falta, eta hori ere garrantzitsua da.

**Eta zuei zer ematen dizue hura hemen egoteak?**
Asko; batez ere, gure alabari, Karynak balio asko irakatsi dizkiolako. Guretzako, etxeko senide bat gehiago da eta urtean zehar ere harremana mantentzen dugu. 2018an, Ukrainan egon ginen eta bertatik bertara ikusi genuen hango egoera. Karynaren familia, eskola eta inguruak ezagutu genituen, eta horrek ematen dizun ikuspegiak ere asko irakasten dizu. Hemen pribilegiatu hutsak gara haien aldean.

**Aste honetan iritsi da Ukrainatik.**
Bai; herenegun iritsi zen, eta, autobusetik jaitsi ahala, hango bizipenak kontatzen hasten zaigu beti. Pentsatzen hasita, konturatzen zara nolako bizitza gogorra duten han eta ze heldutasunekin egiten dioten aurre. Gu askoz ere gauza txikiagoengatik gehiago larritzen gara gure bizitza eroso honetan.

**Zein lan egiten du Chernobil elkarteak?**
Azken batean, harrera-familia bakoitzak daukan beharretara egokituta egiten dute aukeraketa, harremana ahalik eta naturalena izan dadin. Era berean, hango egoerari buruzko informazioa ematen digute, eta gure etxera datorren umearen familiari buruzkoa ere bai. Azpimarratu gurako nuke lan bikaina egiten duela elkarteak, eta, mila arazo izan arren, beti saiatzen direla konponbide bat aurkitzen. Oso pozik gaude haiekin.

**Esperientzia aberasgarria da, beraz. Gomendagarria?**
Zalantza barik. Probatzera animatuko nituzke hemengo familiak. Egia da hasiera zaila dela, hizkuntzaren muga handia delako, baina asko ikasteko balio du, ekarpena handia da, eta, haren poztasuna ikusita, zu ere pozik geratzen zara.

**"UKRAINAKO EGOERA ZAILA IZAN ARREN, ZORIONEZ, EZ ZAIO BERE FAMILIAREN MAITASUNIK FALTA"**

**"EKARPENA HANDIA DA, ABERASGARRIA; BERE POZTASUNA IKUSITA, ZU ERE POZIK GERATZEN ZARA"**

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA



# Jar ezazu zure autoa puntu-puntuan eta ondo pasa oporrak

ALMACENES LASCAR

GASOIL BANAKETA
OLIOAK (REPSOL)
AD BLUE
OLIO ALDAKETAK
PNEUMATIKOAK ETA
GARBIKETAK

a.laskar@laskar.es • www.laskar.es
Amillaga 32 • 943 76 10 38 / 943 76 19 11

BERGARA PNEUMATIKOAK

Pneumatikoak • Olio aldaketak • Mekanika azkarra

Leizeaga 1B BERGARA - Tel.: 943 76 36 27 - 638 26 77 64
nfo@bergarapneumatikoak.com | www.bergarapneumatikoak.com

Markiegi autoak

AUTOEN GILTZEN KOPIAK

Leizeaga, 1 • BERGARA • markiegiautoak@telefonica.net
943 76 35 09 • 629 91 52 15 • @markiegiautoak

AITZORROTZ BI

KARROZERIA ZERBITZUA

MEKANIKA OROKORRA

Aingeru Guarda pasealekua z/g - 20540 Eskoriatza
943 71 42 94 - 650 634 434 - adei13@hotmail.com

OPEL
OPEL ZERBITZU OFIZIALA

TAKOLO AUTOAK

San Andres 10 D • Tlf.: 943 77 30 10

Salmenta
Mekanika
Elektrizitatea
Pneumatikoak

AMG autoak

Torrebaso industrialdea 14-B • 20540 Eskoriatza
Telf.: 943 71 42 79

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Audi SEAT

Salmenta eta salmenta osteko zerbitzu osoa

CITROËN

ION AUTOAK

Mekanika • Karrozeria • Pneumatikoak • Garabi zerbitzua

Amillaga 36, Bergara - Tel.: 943 76 47 49 - automovilesion@hotmail.com

**Bateria, argiztapena, aire girotua, iragazkiak, balaztak, pneumatikoak, olio nibelak...**

GRUPO EASO MOTOR
DESKONTUAK
GURPILETAN ETA ERREBISIOETAN. DEITU!
San Andres kalea 6, • Arrasate
www.grupoeasomotor.com

HYUNDAI Oarso Car
HYUNDAI 943 79 70 06
MUGARRI Ford
MUGARRI 943 79 07 44

GALLASTEGI MOTORSPORT
APR / VAGSPEED GIPUZKOA
Gallastegi MOTOR SPORT
Mekanika orokorra
Elektronikan adituak
Diagnosi zerbitzuak
Automozioko aholkularitza
VAGSPEED
Markulete industrialdea
Telleria 4, 5 pab. Arrasate
943 79 73 58 / 670 79 73 58
Reprogramazioko etxeen banatzaile ofiziala

GARAJE NORTE
EUROREPAR CAR SERVICE MULTIMARKA
Mekanika, txapa eta pintura
Marka guztiak konpontzen ditugu
Autoaren zerbitzu osoa
BASABE POL. A 1-3. pab. - 20550 ARETXABALETA - 943 71 20 03

Amets Berezao
Salmenta, konponketa mekanikoak, txapa eta pintura
Berezao auzoa - Oñati - 943 71 80 85 / 943 78 25 92
Lizarragako hiribidea - Antzuola - 943 78 70 77

Murillo Garajea
EuroTaller
Leizeaga 4 • 943 76 13 84 • Bergara
www.eurotaller.com/taller/311/garaje-murillo

Abuztuan goizez zabalik
Ordutegia: 07:00-14:00
(14tik 18ra itxita)
CHAPIME TAILERRAK
TXAPIME AUTOAK
SALMENTA ETA MEKANIKA OROKORRA
Marka guztien konponketak
Autokarabanen mantentze-lanak
IAT (ITV) aurreko azterketa
SAN ANDRES AUZOA 5, ARRASATE TEL. 943 79 45 22

OÑATI GARAJEA
EURO REPAR ZERBITZUA
MARKA GUZTIETAKO AUTOEN KONPONKETA ETA SALMENTA
Goribar auzoa 9 • Tel.: 943 78 13 50 • garageonati@euskalnet.net

LENIZ ESKORIATZA
KONPONKETAK:
Txapa
Margoa
Mekanika
I.A.T. aurreko azterketa
Aingeru Guarda pasealekua 31. • ESKORIATZA
Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 40 10

BOSCH Service
Lagun Garajea
Santalaitz 3
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 76 11 20
Zure zerbitzura!

**Ez ahaztu!**

**Deitu zure tailerrera eta hitzordua eskatu!**

SANJUANAK 2023



San Juan egunean plaza jendez bete zen AEDk eta AEK-k antolatutako dragoi janean. ARGAZKIAK: GOIENA



Hainbat gazte, makala garraiatzen, joan den egubakoitzean.



Txikienek askotariko jolasak izan zituzten Eguzkilaru Egunean.



Errementari dantza. Atzean, dragoia.



Maider Morras alkatea, zortzikoa egin berritan, eskua bihotzean jarrita.

# "Herri bizi bat" islatu dute jaiek

Sanjuanek, oro har, zapore gozoa utzi dute, eta Maider Morras alkateak "pozik eta energia onarekin" ikusi ditu arrasatearrak, "jaiez gozatzen". Halaber, jendetsuak eta parte-hartzaileak izan direla dio: "Bizitzaz beteriko Arrasate baten lekuko izan gara"

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE

Maider Morras alkate duen udal taldeak "positiboki" baloratu ditu amaitu berri diren San Juan jaiak. Morrasek nabarmendu duenez, herritarrek modu aktiboan parte hartu dute programatutako jarduera gehienetan, eta, hain zuzen ere, herritarren parte-hartzea izan da jaietako alderdirik nabarmenetako bat, haren iritziz. "Arrasatear askok herrian geratzea erabaki dute, eta hori ospakizunetan, kaleen animazioan, islatu da. Herritarrek, oro har, aktiboki parte hartu dute programatutako jarduera askotan, eta horrek agerian uzten du auzolanean udalerria hobetzen laguntzeko konpromisoa eta nahia", dio. Era berean, "oso modu positiboan" baloratu du eragile sozial eta kulturalen inplikazioa, jaietan "lan bikaina" egin dutela iritzita.

Agintean dagoen EH Bilduko udal taldeko ordezkariek azpimarratu dute, halaber, jaiek "bultzada berri bat" eman diotela herriko ostalaritzari, "pandemiaren ondorioz igaro zituzten garai zailak gaindituz". Gainera, egitarau zabala eta adin guztietara egokitua izan dela diote, eta, horren ondorioz, herritar guztiek jaiez gozatu ahal izan dutela. "Egun hauetan, bizitzaz beteriko Arrasate baten lekuko izan gara. Erronka, orain, bizitasun hori urte osoan mantentzea eta zabaltzea da, herriaren parte-hartze aktiboa eta etengabeko garapena sustatuz", azaldu du alkateak.

### Jendetza batu da jaietan

Morrasen esanetan, "garrantzitsua" da azpimarratzea Arrasaten ekintza jendetsu ugari izan direla jaietan. "Nabarmentzekoak dira errementari dantza, dragoi jana eta Chambaoren kontzertua, *Zeuk eiñ, zeuk jan* herri bazkaria, Eguzkilaru Eguna, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna eta txosnetako kontzertuak. Gainera, arrakasta handia lortu duten eskala txikiagoko ekimen eta ekitaldi asko egin dira, hala nola bertso saioa, Iago magoa, Goxua'n Salsa taldearen kontzertua, eskualdeko musika taldeen kontzertuak eta *Trakamatraka* ikuskizuna".

### Gizon bati erasoa zapatuan

Hala ere, balorazio positiboa "lausotu" egin da, ospakizun horietan "zapore mingotsa" utzi duen "gertakari larri" baten ondorioz. "Tamalez, gizonezko batek erasoa jasan zuen larunbatean, ekainaren 24an, izandako liskarren ondorioz, eta ospitalean egon behar izan du hainbat egunez". Udaleko talde politiko guztiek salatu dituzte gertakari haiek, eta berretsi egin dute eragileekin eta herritarrekin batera lan egiteko konpromisoa, "indarkeriazko jarrerak prebenitzeko, gatazkak kudeatzeko eta bizikidetza eta herritarren kohesioa sustatzeko". Adierazpen instituzionalak zera dio: "Bizikidetzan eta errespetuan oinarritutako herri eta jai eredua defendatzen dugu eta arrasatearrek behar eta merezi duten Arrasateren alde lanean jarraituko dugu. Gogoratu nahi dugu jaietan, urteko gainerako egun guztietan bezala, edozein eraso eta diskriminazioren aurkako jarrera funtsezkoa dela elkarbizitzarako. Zaindu dezagun elkar". Zauritua etxean da jada eta Ertzaintzaren ikerketak zabalik jarraitzen du, gertatutakoa argitzen saiatzeko.

**MAIDER MORRAS: "JENDEA POZIK ETA ENERGIA ONAREKIN IKUSI DUT, JAIEZ ASKO GOZATZEN"**


SUDC konpainiako kideak, Maalako errebalean, danborradan.


Chambao, Monterronen.


80 urtetik gorakoak omendu zituzten San Juan egunez, Etxaluzen.


Erraldoien kalejira.


Zezen-paza bete egin da hiru egunetan. Irudian, hainbat gazte kaiolan.


La Furia, txosnagunean. Jendetza batu zen domekako kontzertuetan.

**Jeltzaleen iritziz, herria zikin**

Jaietan izandako "parte-hartze handia" nabarmendu du Arrasateko EAJk ere, eta langile guztiei eskerrak eman dizkie, jaiak "herritarrentzako bereziak izan daitezen egindako lan eta esfortzuagatik". Edozelan ere, jeltzaleek kezka azaldu dute festetan izandako "zikinkeriagatik", haien esanetan. "Herri guztian eta lekuz kanpo pankarta eta pintaketak izan dira, arrasatear guztiena den ondare historikoa hondatuz. Herriko kale asko ez dira garbitu egun guztietan, Ferrerias kalea, adibidez, eta Monterron parkea kristalez beteta egon da".

Bestalde, "pena handiz" hartu dute EH Bilduko udal taldeak San Juan santua eta herriko bandera oinez *Salbe*-ra eramateko urteetako ohitura baztertu izana. "Arrasatear guztientzat gobernatzea herriko ohituretan parte hartzea ere bada".

Azkenik, Ferixalekuko igogailuak izandako erasoa salatu du talde jeltzaleak.

**AEDkoak ere pozik daude**

Bestalde, AED elkarteko kideak ere pozik azaldu dira. "Dragoi jana guztiz errotuta dago sanjuanetako programan eta jendeak gogoz hartzen duen ekintza bat da. Giroa ezin hobea egon da aurten ere eta tribialean 50 talde baino gehiago aritu dira". Bertso saioari dagokionez ere, gustura daude: "Bertso maila ona izan zen, eta, umorea ardatz hartuta, jai giroko saio bat izan zen. Gainera, jende dezente batu zen Seber Altube plazan".


Mila lagunetik gora batu zituen *Zeuk eiñ, zeuk jan* bazkariak.





IDarte Euskadiko Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolako Ikasleek diseinatutako apartamentuetako baten irudia. ISEA

# Etxekidetza proiektua, Udalean erregistratuta

Mesedeetako ikastetxea izandako eraikinean etxebizitza komunitarioak egiteko proiektua Arrasateko Udalean erregistratu du dagoeneko ISEA kooperatibak; halaber, plan berezi bat sortzeko eskaera ere egin du enpresak, proiektua gauzatu ahal izateko

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE

Aitor Orobengoa ISEAko kideak azaldu duenez, "Hirigintzako eta Garapen Komunitarioko batzordeei zuzendutako proposamen bat" erregistratu dute Arrasateko Udalean. "Proposamen horretan, Arrasateko Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren ikastetxearen gunerako Plan Berezia gara dezan osagaiak eskaintzen zaizkio, hain zuzen ere, belaunaldien arteko etxekidetza bat abian jartzeko asmoz", azaldu du.

Martxoan aurkeztu zuten aurreproiektuaren arabera, adinekoentzako eta "bereziki behartsuak diren edo premia bereziak dituzten gizataldeentzako" 66 etxebizitza egitea da asmoa, belaunaldiartekotasuna erdigunean jarrita, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Adinberri fundazioaren finantzaketarekin ari dira lanean ISEA eta KREAN.

Egungo eraikinak 7.000 metro karratu ditu eta 1.000 metro karratuko azalera gehigarri bat jasotzen du aurreproiektuak, eraikin berri batekin eta lorategi batzuekin –guztira, 8.000 metro karratu–.

**Etxekidetza kontzeptua**

Pello Salaburu euskaltzainari galdetu diote *cohousing* edo *etxebizitza komunitario* kontzeptuari erreferentzia egiteko euskarazko hitz egokia zein izan ote daitekeen. "Erantzuna *etxekidetza* izan da; *etxe* (etxea) eta *kidetza* (adiskidetasuna) uztartzen dituen hitza, alegia".

**Kalelagun proiektua, aurrera**

Modu berean, Kalelagun proiektua zuzentzen ari da Olatz Irulegi EHUko Donostiako Arkitektura Eskolako proiektuen irakaslea. "Proiektuaren helburua da kanpoko espazio publikoak eraldatzea bakardadea prebenitzeko, harremanak sustatzeko eta pertsona nagusien ongizatea eta autonomia handitzeko", dio Orobengoak. "Hori guztia arkitektura, hirigintza eta diziplinarteko ikuspegia bilatzen duelarik, kalitatezko topaketarako kanpoko espazioen diseinuan oinarrituta, ingurune hurbilaren gozamen aktiboa bultzatzeko, gizarte-harremanak sustatuz, jarduera fisikoa sustatuz eta teknologia digitalak integratuz". Hain zuzen ere, Kalelagun proiektuaren bidez garatuko dute Mesedeetako ikastetxea izan zeneko patioetako lorategi eta pasealekuen diseinua.

**Egin beharreko urratsak**

Etxekidetza proiektua aurrera egiten ari den arren, oraindik bide luzea du egiteko, eta, Orobengoak nabarmendu duenez, honako hauek izango lirateke hurrengo urratsak: lehenik, proiektua Hirigintza batzordeari aurkeztu; gero, Ongizate batzordeari. Azkenik, Arrasateko Udalarekin proiektua garatzeko jarraitu beharreko estrategia adostu beharko litzateke.

## Ikasleen lana, ezinbestekoa

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Diseinu Estrategikoko masterreko ikasleek haien ikasturte amaierako proiektua erabili dute gai hori lantzeko. Hala, belaunaldien arteko zerbitzuak eta interes orokorreko zerbitzuak garatu dituzte, bai Mesedeetako ikastetxea izandakoan egin gura duten etxekidetza proiektuko egoiliarrentzat, baita arrasatear ororentzat ere. Era berean, EHUko Arte eta Goi Mailako Diseinuko Eskola Publikoko ikasleek, eraikin horretako etxekidetza proiektuaren harira, apartamentuen, eremu komunen eta publiko orokorrari bideratutako eremuen barnediseinua garatu dute. Hain zuzen, Barne Diseinuko Graduko hirugarren mailako ikasleek egin dituzte diseinu horiek.



Goi Eskola Politeknikoko ikasleak, haien proposamena aurkezten. ISEA

NIRE USTEZ



IBON ARRUPE

## Zabal-zabal

Irekitako ate handitik irten gara Euzko Alderdi Jeltzaleko udal gobernukideok udaletxetik, azken zortzi urte hauetan Arrasate eraldatzeko ardura izan eta gero. Aipatutako eraldaketa horren erakusgarri da, adibidez, joan den astean Kulturolan ospatu zuten Arrasate Kirol Sarien banaketa ekitaldia. Nola ez, EAJko zinegotziak Arrasateko kirol munduari aitortza eskaintzeko asmoz hurbildu ziren, baina, ekitaldia hastear, alkate anderea modu bortitzean gerturatu zitzaien, eserita zeuden aulkietatik altxaraziz, atzealdera bidaltzeko. Egoera ulergaitz eta lotsagarria izan zen.

Morras alkatea, horrela ez, mesedez! Arrasateko EAJri ez zaio barkamenik eskatu behar hauteskundeak oraingoan beste alderdi batek irabazi dituelako, azken egunetan nonbait irakurri dudan bezala. Ez horixe! Demokrazian irmoki sinisten dugunok herritarren ahotsa eta botoa onartzen eta errespetatzen dugu.

Baina bai espero dugu agintaldi hasiera-hasieratik Maider Morras alkatearen errespetua, ez baita berria Udal Gobernuko zereginetan.

OHARRAK

### Bisita gidatua bihar

11:00etan Biterin hasita, alde zaharrean zehar egingo dute, doan. Izena eman behar da, 644 37 47 46ra deituta.

### 1965ekoen kintada

Irailaren 16an egingo dute, eta interesa duenak uztailaren 20a baino lehen egin beharko du 75 euroko ordainketa, izen-abizenak jarrita, hona: ES76 3035 0055 1705 5105 8385.

# 45 urte, baina hazten jarraitzeko gogoz

Arrasateko Judo Elkarteak 45 urte bete ditu, hazkunde bete-betean, eta, hain zuzen ere, ateak zabalik dituzte izena eman nahi duen edonorentzat; horretarako, uztailean zehar ate irekiak izango dira, probatu nahi duenarentzat

**Miren Arana Pagaldai** ARRASATE
45 urteek hazkunde bete-betean harrapatu dute Arrasateko Judo Elkartea; izan ere, geroz eta gehiago dira kirol hori praktikatzen animatzen direnak. Egun, 2013 eta 2018 urte artean jaiotako 50 ume daude elkartean izena emanda, eta, gehienak arrasatearrak diren arren, lortu den maila ikusi ostean, bailarako beste herri batzuetatik ere sartu dira taldean. Gaizka Aranegi judo elkarteko entrenatzaileak igoera horren arrazoia azaldu du: "Bloke moduan mantendu izana oso garrantzitsua da; horrek helduenak erreferente bihurtzen ditu txikiendako, eta, horrenbestez, lanketa oso ondo doa eta giroa ezin hobea da".

### Metodologia berria

Unescok 14 urtetik beherako neska-mutikoek judoa praktikatzea gomendatzen du; izan ere, onura asko ditu, besteak beste, hiperaktibitatea dutenentzat edo oso apalak direnentzat. Mugimenduen koordinazioa, oreka, gorputz adierazpena edota espazioaren erabilera ezagutzen laguntzen du. Entrenatzailearen hitzetan, "judoaren bitartez norbere gaitasunak zeintzuk diren ikasten dute, baita gabeziak ere, eta horiek kontuan hartuta lanketa desberdinen bidez pertsona gisa garatzen dira ".

Duela hiru urte, 2013an eta 2014an jaiotako umeekin lan metodologia berria jarri zuten martxan elkarteko kideek, eta emaitza oso onak izaten ari dira; metodologia hori "umeak pertsona bezala garatzean oinarritzen" da, eta "garapen horretan garrantzia ematen zaio diziplinari, psikomotrizitateari eta haien burua ezagutzeari; hori guztiori, judoaren bitartez". Landutako hori gero beste judo talde batzuekin partekatzen dute; horretarako, zapatuetan topaketak egiten dituzte.

### Hiroshima kopa

Metodologiak emaitza "bikainak" izan dituela aitortu du Aranegik, eta ez bakarrik dominen aldetik; judoan izan duten garapenean ere nabaritu dira aldaketak. Benjamin mailako txapelketa da Hiroshima kopa, eta 2013 eta 2014 bitartean jaiotako haurrak izan dira lehian; eta 16tik 13 domina ekarri dituzte etxera: "Joan den urtean ere oso ondo ibili ziren, baina dominetatik aparte garrantzia eman behar zaio judoan izan duten garapenari; nola hobetu duten teknika, duten lasaitasuna, konfiantza, lantaldea eta ikasi dutena argi erakutsi dute txapelketan".

**"METODOLOGIA BERRIA UMEAK PERTSONA BEZALA GARATZEAN OINARRITZEN DA"**

### Lehiatzeko arazoak

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskola kirolaren baitan daukan protokolo baten ondorioz, Gipuzkoatik kanpo edozein ekintza egitea debekatuta dute. "Daukagun arazo larriena da gure txikiak ezin direla lehiatu urte bukaerara arte. Alebin mailakoek txapelketa gehiago dituzte, baina oso urriak. Hala ere, EAEn bertan, bai Araban eta baita Bizkaian, aukera gehiago dituzte urtean zehar lehiatzeko, eta hori ez dugu bidezko ikusten". Gabezia hori betetzeko egiten dituzte, hain zuzen, aipaturiko topaketak, lehiatzeko aukerarik ez egon arren praktikatzeko aukera izan dezaten haurrek.

Behin txapelketak amaituta, entrenamenduekin jarraituko dute neska-mutikoek: "Judoa bezalako kirol batentzat, bi hilabeteko deskantsua gehiegizkoa ikusten dugu; beraz, uztailean entrenatzen jarraituko dugu, baina apalagoak izango dira entrenamenduak".

Ate irekiak ere hilabete honetan zehar izango dira; eta, egunez egun gehiago diren arren, edonorentzat lekua dutela adierazi du entrenatzaileak: "Probatu nahi duen edonor gonbidatzen dugu etortzera; baita nagusiak ere. Guraso talde bat egiteko ideia ere martxan dugu, eta ongietorria izango da edonor".


Arraste Judo Elkartekoak, entrenamendu batean. E.A.B

# Euskarazko udaleku hezitzaileak martxan dira gaurtik aurrera

Gaur hasiko dira Txatxilipurdik antolaturiko udaleku itxiak, eta astelehenean ekingo diete irekiei

**Miren Arana Pagaldai** ARRASATE
Txatxilipurdik uztailerako antolatutako programazioari gaur emango zaio hasiera, udaleku itxiekin. Ozetako bi herritan –Aizkomendi eta Gebara– eta udaleku ibiltarian izango dira datozen egunetan 9 eta 17 urte bitarteko 80 haur eta nerabe. Txatxilipurdiko kide Iñaki Telleriak antolaketa azaldu du: "Hiru adin tarte desberdinetan banatuko dira haurrak: gazteenak, LH 4, 5 eta 6. mailetakoak, Aizkomendira joango dira; DBH 1 eta 2. mailetakoak, berriz Gebarara; eta hirugarren taldea, DBH 3tik batxilergoko 2. maila arteko nerabeek osatuko dutena, udaleku ibiltarira joango da". Garaio aldera 60 ume joango dira; nagusienak, aldiz, hamasei bat dira, eta Arrasaten hasita Orioraino doan ibilbideaz gozatzeko aukera izango dute, *Kosta ala kosta* udalekuetan.

Datorren astelehenean aktibatuko da "mugimendu handiena" sortzen duen udalekua: irekiak. Txatxilipurdik antolatutako 35. udaleku irekiak izango dira eta 340 haurrek eman dute izena. "Euskaraz mintzatu, gozatu eta jolasteko aukera izango dute umeek", dio Telleriak; eta izango dituzten hezitzaile guztiek dagoeneko izan beharreko formakuntza jaso dutela gaineratu du.

### Lanaren fruituak

Pandemiaren ondorioz udalekuek "muskulua galdu" ostean, berreskuratze plana jarri zuten martxan Txatxilpurdiko kideek: "Azaroan entzute saio batzuk egin genituen, eta saio haietatik plan asko irten ziren; baina, batik bat, komunikazio planean jarri dugu indarra. Kurtsoan zehar inoiz baino ekintza gehiago egin ditugu". Azkenean, hartu diren neurri guztiek emaitza onak izan dituzte eta joan den urtean baino 50 izen-emate gehiago egon dira.

### Freskura egitasmoa

Bestetik, urteroko Freskura plana ere antolatu du Txatxilipurdik. Uztailaren 3tik 28ra bitartean, arratsaldero, 16:00etatik 20:00etara, Musakolako igerilekuan euskarazko jolasak jarriko dira maileguan; eta, ostegunero, Santa Barbarako ur parkean familiei zuzendutako tailerrak eskainiko dira.

# Tourra dela-eta bete beharreko neurriak jakinarazi dituzte

10:35ean moztu egingo dute trafikoa eta itxi egingo dute ibilbideko kaleetan oinezkoen alderik aldeko pasoa

**Miren Arana Pagaldai** ARRASATE
Domekan pasatuko da Frantziako Tourra Arrasatetik; hartara, egunean bertan ezohiko neurri batzuk aplikatuko dira: hasteko, trafikoa 10:35ean itxiko da. Ondorioz, ibilbideko kaleetan ezin izango da ibilgailurik ibili, eta oinezkoek ezin izango dute kalea alderik alde gurutzatu.

Gainera, ibilbideko aparkaleku guztiek hutsik egon beharko dute bezperatik, eta garajeetatik ere ezin izango da sartu-irtenik egin. Egunean bertan autoa behar izanez gero, ibilbidetik kanpo aparkatu beharko da –JMA ingurua eta unibertsitate atzealdea gomendatu dituzte, Arrasateko irteerak San Andres eta ospitalea izango direlako–.

Karabana kaleak itxi eta ordubetera pasatuko da, 11:35 aldera, eta lasterketa, berriz, 13:32an –gutxi gorabeherako orduak dira, lasterketak berak markatuko du erritmoa–.

Autobus zerbitzuei dagokienez, arratsaldera arte zerbitzuz kanpo egongo da herribusa; eta Eskoriatza eta San Andres artean lotura-autobus bat egongo da.

# "Egia esan, ez nuen espero saria irabaztea"

**ANE HERRERO** MUGARRI INGOU TALDEKO ENTRENATZAILEA

Ekainaren 16an egin zuten Gipuzkoako Eskubaloi Federazioaren sari banaketa; Ane Herrero arrasatearrak emakumezko entrenatzaile onenaren saria eskuratu zuen

**Julen Murua** ARRASATE

Emakumezko entrenatzaile onenaren saria lortu zuen hilaren 16an Ane Herrerok (Arrasate, 1991), Mugarri Ingou eskubaloi taldeko entrenatzaileak. Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak aurrenekoz eman du aurten Ana Mari Kreye izena duen saria.



Herrero, Gipuzkoako emakumezko entrenatzaile onenaren sariarekin. JULEN MURUA

**Zorionak lortutako sariagatik! Espero zenuen?**

Egia esan, ez nuen espero. Guk orain dela gutxi jakin dugu sari hori emango zutela. Hautagaien izenak jakinda, uste nuen Ordiziako entrenatzaileari emango ziotela saria, hura izan delako ligako txapelduna eta lan oso ona egin duelako.

**Sari hori ematen duten lehenengo aldia da. Datozen belaunaldiendako aurrerapausoa dela iruditzen al zaizu?**

Nik uste dut garrantzitsua dela. Azken finean, mundu honetan ari garenok emakumezko erreferente oso gutxi izan ditugu; beti izan ditugu gizonezko erreferenteak, eta, ondorioz, askotan, zaila egiten zen norberaren burua egoera honetan ikustea: mutilak entrenatzen edo nagusiak entrenatzen. Aurrera begira, horrelako sari bat emateak egin dezake gure lanari balioa ematen jarraitzea eta gazteenek emakumezko erreferenteak izatea, eta horretan lanean jarraitu behar dugu.

**Zuen txapelketan hiru emakumezko entrenatzaile izan dira; joera aldaketa bat da?**

Baietz uste dut. Gero eta emakume gehiagok ateratzen dugu entrenatzaile-titulua, eta ikus dezakegu horrek gurekiko konfiantza maila handitzen duela. Entrenatzaile lanetan ari garen emakumeok urte askoan jokatu dugu eskubaloian, eta beti egon gara klubei laguntzeko prest. Egia da joera aldaketa hori txapelketei garrantzia ematen zaien mailetan ikusten hasi dela, eta, horrelako gauzak egiten jarraituz gero eta ikusaraziz gero, joera aldaketa hori egonkortu egingo da.

**Horrelako sari bat jasotzeak lanean jarraitzeko indarra ematen du?**

Bai; badakigu gure lana oso garrantzitsua dela, eta kanpotik horri balioa ematea, ikusaraztea eta saritzea garrantzitsua da. Entrenatzaile bai, baina hezitzaile lanak ere egiten ditugu. Azken finean, gizarte batean bizi gara, eta, ahal dugun moduan, gizartean gure aletxoa ematen saiatu behar dugu. Pertsona gutxi gara, baina indar nahikoa egiten dugu. Guk ez dugu emakumezko erreferenterik eduki, eta gaur egungo gazteek horrelako emakumezko erreferente gero eta gehiago izateak mundu honetan sartzeko beldurrak kendu ditzake.

**Senior mailako taldea entrenatzen hasteak bertigorik ematen zizun?**

Niri ez. 21 urterekin ere senior taldeko entrenatzaile izan nintzen, eta, eskubaloiari dagokionez, beti egon naiz txapelketa munduan murgilduta. Kluba oso ondo ezagutzen dut eta jokalariak ere ezagutzen ditut. Badakit nire formakuntza-maila nolakoa den eta zer-nolako esperientzia daukadan, eta, alde horretatik, ez naiz bertigoa sentitzen duen horietakoa. Ondo irteten bada, ederto; gaizki irteten bada, ikasketa gisa balio dezala. Egia da errespetu-puntu hori beti daukazula; lana da eta garrantzia dauka, baina ez mutilekin egoteagatik edo emakumezko gutxi gaudelako, baizik eta helburuak ez lortzeagatik.

**Entrenatzaile izatetik zeri ematen diozu garrantzi handien?**

Lehenik eta behin, disfrutatzeari, oso zaila baita horretatik bizitzea. Klubetik helburu bezala daukagu eskubaloiaz gozatzea, edonork izatea eskubaloian jokatzeko aukera eta familia txiki bat sortzea, non bakoitza den bezalakoa izan daitekeen eta kirolaz goza dezakeen. Egia da garrantzia duela hobekuntza izateak astetik astera, hilabetetik hilabetera eta urtetik urtera; nahi duguna da gero eta jokalari hobeak izatea eta gero eta gehiago ulertzea kirol horrek dakarrena zer den.

**Nola deskribatzen du bere burua, entrenatzaile bezala, Ane Herrerok?**

Zorrotza. Neure buruari ehuneko ehuna eskatzen diot, eta, beraz, nire jokalariei ere bai. Egia da emaitzei ez diedala berebiziko garrantzirik ematen; badakit prozesu bat dela eta, batzuetan, denbora jakin bat eskatzen duela. Prozesu horretan zehar oso zorrotza naiz, hori bai; baina saiakerari berari ere balio handia ematen diot. Entrenatzaile izateaz gain, gizarte hezitzaile ere banaiz, eta beti daukat ikuspuntu hori gogoan.

**Eskubaloian jokatzea edo entrenatzaile izatea, zer duzu nahiago?**

Uste dut jokalari bezala bere garaian gozatu nuela gozatu beharrekoa. Duela hiruzpalau urte galdetuz gero, agian, jokalari bezala erantzungo nizukeen, baina uste dut nahikoa disfrutatu dudala. Orain ikasi dut disfrutatzen entrenatzaile bezala, beste rol batean jarduten. Urte askoan izan naiz entrenatzaile, eta biak gustatu zaizkit; bakoitzak bere momentua izan du eta nik uste dut orain entrenatzaile izatearekin gelditzen naizela.

**Datozen urteetara begira zeintzuk dira zure helburuak?**

Senior taldea entrenatzen jarraituko dut, ziurrenez. Talde gaztea da, eta talde hori egonkortzea eta aurrerakuntzak ikustea da nire helburua. Talde indartsu bihurtu daiteke, betiere, lan egiten badugu eta bakoitzak ehuneko ehuna ematen baldin badu. Poliki-poliki igoerara gerturatzea gustatuko litzaidake.

**"GURE LANARI BALIOA EMATEA ETA HURA IKUSARAZTEA ETA SARITZEA OSO GARRANTZITSUA DA"**

## Zabalik dago Zaldibarko areto futbol txapelketako izen-ematea

Uztailaren 10era arte izango dute taldeek Zaldibarko areto futbol txapelketan izena emateko aukera

**J.M.** ARRASATE

Urtero izaten duen arrakasta ikusita, aurten ere Zaldibarko frontoiak 24 orduko areto futboleko txapelketa jasoko du uztailaren 15ean, zapatua. Antolakuntza taldea aldatu egin badute ere, txapelketak azkenengo edizioko formatu bera izango du. Hilaren 21ean ireki zen izena emateko epea, eta, hain zuzen, uztailaren 10era arte izango dute taldeek han parte hartzeko aukera.

Talde-zerrendan izena emateko, Etxoste tabernara joan edo antolakuntzarekin Instagram bidez *(@zaldibar24h)* hitz egin beharko dute parte hartu nahi duten taldeek.

Txapelketan parte hartu ahal izateko, talde bakoitzak 130 euro ordaindu beharko ditu, eta jasotako diru kopurua sariak banatzeko erabiliko da. Txapelketako lehenengo sailkatuak jasotako diru kopuru osoaren %60 lortuko du, txapeldunordeak %30 eta gainontzeko %10a hirugarren postuan sailkatutako taldearentzat izango da.


2022ko Zaldibarko txapelketa. GOIENA

**Arrakastarekin jarraitzera**

Joan den urtean gertatu zen bezala, aurten ere "harrera oso ona izatea" eta "Debagoieneko gainontzeko herrietako jendea batzea" espero du antolakuntzak.

Aurten ere "kontzertuak antolatzeko" asmoa dute, baina "batzuekin kontaktuan" hasi badira ere, ez dute "ezer itxita", adierazi du antolakuntzako kide batek.




**Udazabal programaren aurkezpena.** ENEKO AZURMENDI

# Kultura egitarau zabala aurretik

Udazabal programari esker, uztail betea izango dute arrasatearrek, musika, dantza, zirkua eta antzerkia ardatz hartuta. Urtero bezala, Arrasateko Musikaleko Big Band taldearen kontzertuarekin emango zaio hasiera egitarauari

## Udazabalen egitarau oparoa

Kultura Sailak babestuta, uztailerako kultur ikuskizunak:

- **Ekainak 30, 19:30, Monterron parkea:** Arrasate Musikal Big Band.
- **Uztailak 4, 20:00, Seber Altube:** *Dale Ramón.* Antzerkia.
- **Uztailak 7 eta 8, Monterron parkea:** Mondra&Roll. Rock jaialdia.
- **Uztailak 9, 18:00, Monterron parkea:** Manu Chao.
- **Uztailak 11, 20:00, Biteri plaza:** *Kobr3.* Zirkua.
- **Uztailak 13-16, herriko hainbat txoko:** Arrasate Blues.
- **Uztailak 18, 20:00, Seber Altube plaza:** *Desanuda.* Dantza.
- **Uztailak 20, 19:30, Monterron parkea:** Korrontzi. Dantza.
- **Uztailak 21, 20:00, Zaldibar frontoia:** *Los Perros.* Dantza.



**Big Banden eta dantza taldeen entsegua.** IÑAKI LIZARRAGA

## Irekierarako prestaketa lanak

Udazabal programaren irekiera ekitaldira begira, egun hauetan prestaketa lanetan aritu dira Arrasate Musikaleko Big Band eta haiekin oholtza gainean arituko diren beste kultur eragileak; entseguak egin dituzte Monterron jauregian eta baita parkean ere.

**Miren Arana Pagaldai** ARRASATE

Udazabalen XVI. edizioaz gozatzeko aukera izango dute arrasatearrek, gaur hasi eta uztail bukaera arte. Dantza, musika, zirkua eta antzerkia oinarri hartuta sortu dute aurtengo programazioa, eta, hala, uztailean zehar gustu guztietarako zazpi jaialdiz eta bi ikuskizunez gozatzeko aukera eskainiko zaie herritarrei.

Arrasateko kale eta kantoiak musika, dantza eta kulturaz beteko dira. Andoni Arratibel Arrasateko Udaleko zinegotziak uztail beterako "aukera zabala" eskainiko dela azaldu du, eta aurtengo edizioa "urtero bezain arrakastatsua" izatea espero dutela ere aitortu du.

### Irekiera ekitaldia

Urtero bezala, Arrasate Musikaleko Big Band taldeak emango dio irekiera Udazabalen programari gaur 19:30ean Monterron parkean eskainiko duten ikuskizunarekin. Arrasate Musikalek bete berri dituen 50 urteak ospatzen jarraitzeko, haiekin batera gonbidatu dituzte oholtza gainera beste zenbait kultur eragile, hala nola, Arrasateko Trikitixa Eskola, Arrasate Musikaleko Txistulariak, albokariak, Ttakun txalaparta Elkartea eta Lore Gazteak eta Txikitxu Arrostaitz dantza taldeak.

Zigor Martinez Arrasate Musikaleko Big Bandeko zuzendariaren hitzetan, urterokoa izan arren "berezia" da ekitaldia, kurtsoko azkena baita: "Irailean hasten garenetik, kurtso bukaerako ekitaldia erronka bezala hartzen dugu, eta maila handiagoko zenbait piezarekin aritzen gara lanean".

**AURTEN OSPATUKO DEN XVI. EDIZIOA URTERO BEZAIN ARRAKASTATSUA IZATEA ESPERO DA**

Taldean 28 pertsona izan arren, gaur 24 arituko dira oholtza gainean, eta, esan bezala, gonbidatuak ere izango dituzte, "berritasun" moduan. Izan ere, herriko beste kultur eragile batzuekin arituko dira, zuzendariak "aspalditik buruan" zuen euskal folkloreko kutsu pieza ekartzea lortu baitute.

### Uztail betea

Deskantsurik hartu gabe arituko dira arrasatearrak uztail osoan. Udazabalen XVI. edizioaren baitan beste zenbait kultura emanaldi ere egingo dira; besteak beste, bi jaialdi garrantzitsu. Uztailaren 7an eta 8an Mondra&Roll rock jaialdia egongo da Monterron parkean; bertan, horren ezagunak diren The Interrupters, Perkele eta Bad Manners taldeak ikusteko aukera egongo da. Eta hilaren 13 eta 16 bitartean, herriko hainbat txokotan bluesaz gozatzeko aukera egongo da, Arrasate Blues jaialdiak antolatutako kontzertuei esker.

Bestetik, dantza ikuskizunek eta antzerkiek ere izango dute tokia programan. Hain zuzen ere, uztailaren 4an, *Dale Ramón* antzerkia egongo da Seber Altube plazan; hilaren 20an, Harremanek eta Mundukidek antolatuta, Korrontzik eskainitako dantza emanaldiaz disfrutatzeko aukera ere egongo da. Urri Urizar Mundukide Fundazioko kideak ekitaldia "oso polita" izango dela dio, eta dirua Mozambiken dituzten proiektuei laguntzeko erabiliko dutela.

**"IRAILEAN HASTEN GARENETIK, ERRONKATZAT HARTZEN DUGU EKITALDIA"**

### Toki aldaketak

Hasiera batean *A* planaren alde egingo den arren, eguraldia okertuz gero ikuskizun batzuk tokiz aldatuko dira, eta "aterpe bila" joango direla aurreratu du Jon Garai Udaleko Kultura Saileko teknikariburuak: "Kalean egingo diren gehienak Biteri plazara edo aterpea duten tokietara mugituko dira, baina Korrontziren ikuskizuna eta Big Banden kontzertua Amaia antzokira pasatuko dira".



Ander Lopez, Julen Olaizola, Markel Arriolagengoa eta Danel Herrarte. ALFONSO DEL CAMPO

# Hirugarren lagun artekoa finalera iritsi da

Aramaioko lagun arteko pilota txapelketan zortzi bikotek parte hartu dute aurtengo edizioan. Horien arten bi bikote onenak iritsi dira finalera: gaur jokatuko dituzte finalak, afizionatuen partiduaren ondoren, Maider Unda pilotalekuan

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO
Aramaioko III. lagun arteko pilota txapelketa amaierara iritsi da. Zortzi bikote ibili dira nor baino nor gehiago lehian; bi taldetan sailkatuta jokatu dituzte partiduak. Azken aste honetan finalerdiak egin dituzte, eta gaur, ekainak 30, finala jokatuko dute Maider Unda pilotalekuan.

Ander Lopez eta Julen Olaizola bikoteak 22-11 irabazi zion finalerdia Julen Errasti eta Iker Guerrero bikoteari, eta modu horretan finalerako txartela lortu zuen. Finala jokatuko duen bigarren bikotea Markel Arriolabengoak eta Danel Herrartek osatutakoa izango da. Haiek euren anaien aurka izan zuten finalerdia, Jon Herrarteren eta Aimar Arriolabengoaren aurka, eta 22-13 irabazi zuten.

## Final polita

Txapelketan ikusle askorik izan ez duten partiduak jokatu dituzten arren, gaurko finala jendetsua izatea espero dute, eta baita giro handikoa ere. "Finalera etortzen da jendea, herritarrak eta lagunak, eta giro oso polita egoten da", dio Julen Olaizolak.

Partidu lehiatua izango dela uste dute, ikusteko polita. Bikote faboritorik egotekotan, Lopezek eta Olaizolak osatutako da; izan ere, liga eran jokatutako lehenengo zatian, Lopez eta Olaizola nagusitu ziren Arriolabengoaren eta Herrarteren aurka.

## Afizionatuen partidua

Lagun arteko finalaren aurretik afizionatuen mailako pilota partidua jokatuko dute, 19:30ean. Ander Murua eta Manex Balerdi bikotea, batetik, eta Ibai Jauregi eta Endika Uriondo bikotea, bestetik, nor baino nor gehiago.



**JULEN OLAIZOLA**
PILOTARIA

"Bikote ona da eta huts gutxi egingo dute. Beharbada, guk lasaiago jokatuko dugu, eta hor egongo da finala irabazteko gakoa".



**MARKEL ARRIOLABENGOA**
PILOTARIA

"Zaila ikusten dut finala. Bikote gogorra dira Olaizola eta Lopez. Ligan talde berean jokatu dugu eta irabazi egin ziguten".



NIRE USTEZ

**JESUS ARREGI BENGOA**

## Hauteskunde bitarte honetarako

Ziur aski, demokraziak hauteskundeen beharra du bere funtzionamendurako; ordea, erregimen politiko batek hauteskundeak antolatzeak ez du bermatzen erregimen horren demokratikotasuna. Demokraziaren teoria politikoa hori baino askoz ere sakonagoa da. Bestalde, hauteskundeetan parte hartzeko aukera izateak ez du parte hartzera derrigortzen: praktika politikoak aspaldi frogatu du abstentzioaren balioa erreminta politiko gisa.

Euskaldunei dagokigunez, Estatu Espainola (Frantsesa) mendean gauzkan erregimen inperialista da; beraz, objektiboki ez-demokratikoa. *Contradictio in terminis* da independentziaren alde borroka egiten dela esatea eta estatua legitimatzea bere instituzioetan parte hartuz; betiere, *statu quo*-a indartuz. Erregimen politiko baten legitimotasunik eza salatzeko gaitasuna da abstentzioari aitortzen zaion ahalmen garrantzitsuenetako bat. Asma ezazu, bi segundotan edo, nik zer egingo dudan U23n.

## Tourrak eragina izango du trafikoan Aramaion

Frantziako Tourra Aramaiotik pasako da domekan. Horrek eragin handia izango du zirkulazioan, eta baita jaietako egitarauan ere. Aramaioko Udalak oharra argitaratu du herritarrek hainbat gomendio kontuan izan ditzaten. A-2620 errepidetik pasako da Tourra, Kruzetatik Arrasatera bidean. Errepidea 10:30 inguruan itxiko dute –Gasteiztik etorriko denez lasterketa, Kruzetako aldea lehenago itxiko dute–. 11:30 inguruan propaganda-karabana pasako da, eta lasterketa, 13:30 inguruan.

Tarte horretan herritarrek edozein larrialdi badute, 112 zenbakira deitu beharko dute emergentzia koordinatzeko.

## Ia herri osoan moztuko dute argia uztailaren 5ean

Uztailaren 5ean, eguaztena, argia moztuko dute argindarraren sarea hobetzeko. Mozketak eragina izango du herri guztian, Oletan izan ezik. Hala ere, auzo guztietan ez du modu berean eragingo: 9:00etatik 11:00etara bitartean argi barik egongo dira Barajuenen, Azkoagan, Zabolan, Untzillan, Suñan, Altzagan eta Gureian; eta, aldizkako mozketak izango dituzte Ibarran, Etxaguenen, Gantzagan, Ibaben, Arexolan, Arriolan eta Uribarrin. 11:00etatik 13:00etara, aldiz, argi mozketak egingo dituzte herri osoan. Gomendatu dute tarte horretan aparatu elektronikoak deskonektatzea eta igogailurik ez erabiltzea.



# EGITARAUA

## EGUBAKOITZA 30

**19:00** ANBOTOKO MARIREN ETORRERA.

**19:00** TXUPINAZOA ETA PREGOIA.

**19:05** KALEJIRA TRIKITIXA ESKOLAKO KIDEEKIN, Triki-Kalejira Trikitixa Taldeak antolatuta.

**19:05** KALEJIRA herriko txistulariekin.

**19:05** BURUHANDIAK ETA ERRALDOIAK.

**19:30** PILOTA TXAPELKETAKO FINALAK, Aramaio Pilota Taldeak antolatuta. Ostean, lehenengo mailako afizionatuen pilota partidua, Aramaio Pilota Taldeak antolatuta.

**20:00** TXOSNEN IREKIERA.

**20:00** JAINEKIN TXARANGA taldearekin kalejira.

**22:00** DJ KAKTUS-EN *Bihurriak gara* dantzaldia.

**23:00** Kontzertuek txosnetan: ZOPILOTES TXIRRIAOS ETA MCD.

## ZAPATUA 1

**10:00** PATIN HOCKEY PARTIDUAK, Burdinola klubak antolatuta.

**11:30** UMEENDAKO JOLASAK.

**12:00** PATATA-TORTILLA HERRI TXAPELKETA.

**12:30** IZENBAREKUAK TXARANGA taldearekin kalejira, Vital Fundazioak eskainita.

**16:30** BRISKA ETA MUS txapelketetako izen ematea, Alaiak Jubilatuen Elkarteak antolatuta.

**17:00** BRISKA ETA MUS TXAPELKETAK, Alaiak Jubilatuen Elkarteak antolatuta.

**17:00** PLATER TIROKETA TXAPELKETA, Kurtzetagain Elkartearen eskutik.

**18:00** DEABRUKERIAK-EN 'PLAZA ABORDAIA' EMANALDIA.

**19:00** GREEN GRASS, Gazte Asanbladak antolatuta.

**19:00** PING-PONG TXAPELKETA, Gazte Asanbladak antolatuta.

**19:00** MEZA, Bizente Abesbatzak lagunduta.

**20:00** JM DANTZALDIA.

**22:30** JM ERROMERIA.

**23:00** Kontzertuak txosnetan: EIRE, ETXEPE, MUTIKO, TATTA ETA DENSO.

**05:00** JOLASAK TXOSNAGUNEAN, Gazte Asanbladak antolatuta.

## DOMEKA 2

**11:00** DIANA HERRIKO TXISTULARIEKIN.

**11:30** PUZGARRIAK UMEENDAKO, frontoian.

**18:00** STREET BOULDER TXAPELKETA, Gazte Asanbladak antolatuta.

**18:15** HERRIKO UME JAIOBERRIEN HARRERA, elizako eskaileretan.

**18:30** HERRIKO UME JAIOBERRIEN ONGIETORRIA plazan. Ostean, dantza erakustaldia, Lagun Artean Dantza Taldeak antolatuta.

**20:00** EUSKO LABEL PARRILLADA.

**20:00** DANTZA PLAZA Mulixka taldearekin.

1. **22:00** JULEN AXPE FURGONOLOGOA.

2. **23:30** BERBAPASIE, Gazte Asanbladak antolatuta.

Ostean, KORTO LEHIAKETA, Gazte Asanbladak antolatuta.

## ASTELEHENA 3

**12:30** BAPATEAN ZIRKOREN 'ADABAKI' IKUSKIZUNA.

**13:00** KANTUJIRA, Alaiak Jubilatuen Elkarteak abesbatzarekin.

**16:30** KUADRILLEN ARTEKO PIKEA parkean, Gazte Asanbladak antolatuta.

**20:00** ORKESTRA ELEKTROTXARANGAREKIN ANIMAZIOA.

**21:30** HERRI AFARIA plazan.

Ostean, MOZORRO ONENAREN SARI BANAKETA. Ostean, URREZKO GIBELA juergazale onenarendako sariaren banaketa.

**22:30** ORKESTRA ELEKTROTXARANGAREKIN ANIMAZIOA.

**01:00** DJ GAUBELA.

### Tourra

Eragina domekan:
- **10:30** Errepidea itxiko da. Lasterketa Gasteiztik datorrenez, alde hori lehenago itxiko da.
- **11:30** Lasterketa aurreko propaganda ibilgailu-karabana.
- **13:30** Lasterketa pasako da. Azken autoarekin batera, bidea zabalduko da.

Inkomunikatuta geratzen direnek larrialdiren bat badute, 112ra deitu; handik koordinatuko dute guztia.



# Dukienako ugazabek botako dute txupinazoa

Azkeneko urteetako ohiturari eutsiz, Anbotoko Mariren jaitsierarekin hasiko dituzte jaiak Aramaion; aurten, Dukiena jatetxeko arduradun Edurne Isazelaiak eta Dioni Elorzak botako dute txupinazoa. Astelehenera arte iraungo du parrandak Aramaion

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO

Gaur hasiko dira Aramaioko San Martin jaiak: 19:00etan jaitsiko da Anboto Mari menditik udaletxeko balkoira. Horrekin batera, txupinazoa botako dute. Maiatzaren 28an ateak itxi zituen Dukiena jatetxeko arduradun Edurne Isazelaiak eta Dioni Elorzak izango dute aurtengo jaietako txupinazoa botatzeko ardura.

"Sorpresaz hartu genuen txupinazoa botatzeko gonbidapena; ez genuen espero", dio Isazelaiak. Pozik daudela eta horrelako gonbidapen batek ilusioa egiten duela gehitu du hark. Gaurko ekitaldirako ez dutela "ezer pentsatu" gehitu du; momentua gozatuko dute. Txupinazoaren ondoren, pregoia irakurtzeko ardura izango dute udal ordezkariek.



Anbotoko Mariren etorrera, 2022an. A.AGIRIANO

## Ume jaioberriak

Azken urteetako ohiturari eutsiz, azken hamabi hilabeteetan Aramaion jaio diren umeak omenduko dituzte jaietan. Domekan izango da ekitaldia: herriko ume jaioberriei harrera egingo zaie elizako eskaileretan, 18:15ean; eta, ondoren, 18:30ean, ongietorria plazan. 2022ko jaietatik gaur arte lau haur jaio dira Aramaion. Udal arduradunek egindako agurra eta opariaren ondoren, Lagun Artean dantza taldeko kideen emanaldia etorriko da. Egunerako propio prestatu dituzten dantzak erakutsiko dituzte herritarren aurrean. "Gure hausnarketak plazaratu nahi ditugu dantzaren bidez, eta ikusle bakoitzak egin dezala bere irakurketa", azaldu du dantza irakasle Oihane Vicentek. "Aurtengo emanaldiak gure historia kolektibo eta indibidualarekin zerikusia du", gaineratu du. 59 dantzari aterako dira plazara, sei taldetan banatuta: talde bakoitzak bere dantza estiloa eta mezua zabalduko du.

## Julen Axperen bakarrizketa

Furgonetarekin etorriko da Julen Axpe otxandiarra Aramaiora: bakarrizketak egiten dihardu, furgoneta agertoki duela. Bada, ordubete inguru iraungo duen bakarrizketa egingo du. "Hasieran, adarra jotzen ibiltzen naiz ikusleei, eta hortik ateratako informazioa baliatzen dut inprobisatzeko", dio Axpek. Euskaraz izango da bakarrizketa, domekan, 22:00etan.

## Lehiaketak eta afaria

Bihar, zapatua, patata-tortilla txapelketa egingo dute, 12:00etan. Antolakuntzak jarriko ditu patatak, olioa, gatza eta arrautzak; eta norberak eraman beharko du sua. Jatekoa eta edatekoa ez da faltako jaietan; izan ere, domekan, 20:00etan, Eusko Label parrillada egingo dute plazan. Pintxoak salduko dituzte.

Jaietako azken egunean, astelehena, herri afaria egingo dute plazan, 21:30ean. Txartelak 20 eurotan eta 10 eurotan –umeak– saldu dituzte. Aukera begetarianoa ere badago; nahi duenak udaletxean egin beharko du eskaera. Aramaioko jaietan asteleheneko afarira mozorrotuta joateko ohitura dago; bada, afalostean mozorro onena sarituko dute; eta baita parrandazale onena ere.

**JULEN AXPE OTXANDIARRAK ORDUBETE INGURUKO BAKARRIZKETA EGINGO DU, EUSKARAZ**

## Naia Bailezen kartela




Kartel irabazlea. ARAMAIOKO UDALA

Aramaioko jaietako egitarauko azalean agertzen den kartelaren egilea da Naia Bailez aramaioarra. Diseinatzaile grafikoa da, eta ilustrazioan eta maketazioan dihardu lanean. "Herriko ekintzetan parte hartzea gustatzen zait, eta, kartel lehiaketa ere herriko jaietakoa izanda, parte hartzea erabaki nuen", dio Bailezek. Aramaioko San Martin jaiak ilustratzeko kartel tipografikoa aukeratu du: "Aramaiok ez du ikur berezirik, kartelean bereizteko modukorik". Kartel koloretsua egin du; hain zuzen, hori bera nabarmendu nahi izan du Bailezek: "Kolorea eta alaitasuna transmititu nahi izan ditut kartelarekin. Gainera, letrek forma asko dituzte, eta forma horien bidez aniztasuna erakutsi nahi izan dut". Sorpresaz hartu zuen irabazlea zela jakitea: "Egia esan, ez nuen espero. Parte-hartze hutsarekin bakarrik pozik nengoen, eta irabazlea nintzela jakin nuenean poz-pozik jarri nintzen". Ez da San Martin jaietako lehiaketa irabazten duen lehen aldia. Bartzelonan bizi den arren, Aramaion izango da egun hauetan herriko jaiez gozatzen.

Bestalde, umeen kategorian Unax Camino izan da irabazlea. Eta *Izan herri, egin irri*-k irabazi du aurtengo lelo lehiaketa. Leire Arrizabalaga Zubiaren leloa da, eta jaietako zapietan irakurri ahal izango da. Aurtengo jaietarako zapi gorriak atera dituzte: udaletxean jarri dituzte salgai, 3 euroren truke.

BEHI-ALDE
ERKOP
Gora sanmartinak!
BEHI-ALDE, KOOP. E.
Oleta-Aramaio (Araba)
Zuzenbide postala
44 pk
20500 Arrasate
Tel.: 945 45 01 00
bulegoa@behialde.com
GIZATASUNA LANEAN MONDRAGON

# Askotariko doinuak izango dituzte jaietan

Herritarrek eskatutakoari kasu eginez, Zopilotes Txirriaos taldeak joko du gaur, barikua, txosnagunean; kontzertua MCD taldeak hasiko du, 23:00etan. Horrez gain, kalejirak, trikiti doinuak, doinu elektronikoak... izango dituzte jaiez gozatzeko

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO
Musika eskaintza zabala izango dute San Martin jaiek. Herriko gaztetxoen *Rock eskola* musikala izan zuten atzo, eguena, jaien aurrerapen moduan. Gaur, ordea, jaietako plater nagusienetako bat izango dute txosnagunean: hainbat herritarrek urteetan eskatutakoari kasu eginez, Zopilotes Txirriaos taldeak joko du txosnagunean, eta baita MCD taldeak ere.


Zopilotes Txirriaos. IMANOL SORIANO

### Herritarren aurrean

MCD taldeak irekiko du gaueko kontzertua, 23:00etan. 80ko hamarkadan indarra hartu zuen taldeak beste etapa bat hasi du; bada, etapa horretan bi aramaioar daude: Asier Robledo bateria-jotzailea eta Unai Etxenausia abeslaria. "Gogotsu gaude lagunen aurrean jotzeko. Beti da berezia herrian jotzea, eta, gainera, oraingoan talde mitiko batekin etortzea, ba, bereziagoa izango da", dio Etxenausiak. Pozik eta gogotsu egingo dute emanaldia MCD taldeko lau kideek. "Ordu eta laurden inguru iraungo du kontzertuak. MCD ezagutzen dutenek abestiak jarraitzeko aukera izango dute, eta baita kontzertuaz gozatzeko ere".

Otsailean hasi zuten MCDren bira; ordutik hainbat tokitan jo dute, eta orokorrean "oso erantzun ona" izan duela dio Etxenausiak. Uda lasaia aurreikusten dute: Arrasateko Makatzenako kontzertua dute, oraingoz, agendan.

MCDren ondoren etorriko dira Zopilotes Txirriaos taldearen doinu dantzagarriak.

### Zapatuko eskaintza

Bihar, zapatua, doinu dantzagarriak izango dituzte plazan, Joxe Mendizabal musikariarekin. Betiko trikitia, kalejirak eta zortzikoak joko ditu Mendizabalek, gaur egungo eta garai bateko musikarekin uztartuta. 20:00etan dantzaldia egingo du eta 22:30ean, erromeria.

Txosnagunean, aldiz, bestelako kontzertuak egingo dituzte. 23:00etan hasita, Eire, Etxepe, Mutiko, Tatta eta Denso musikariak igoko dira taula gainera; doinu elektronikoekin girotuko dute gaua.

Astelehenean, jaiak amaitzeko, Orkestra elektrotxarangak animatuko ditu herriko kaleak. 20:00etan hasiko dute animazioa, eta herri afariaren ostean gaua girotuko dute. Jaiak dantzan amaitzeko aukera izango dute.

## 'Alkate berria' izango da film laburren lehiaketako gaia

Aramaioko Gazte Asanbladak egitarau zabala prestatu du San Martin jaietarako. Ekintzen artean dago urtero egiten duten film laburren lehiaketa. Etzi izango da lanen emanaldia, domeka, 23:30ean, parkean. Aurtengo lehiaketako gaia *Alkate berria* izango da. Film laburren emanaldiaren ondoren, Berbapasie egingo dute.

Domekako arratsalderako beste zenbait ekintza ere prestatu dituzte; 18:00etan hasita, herriko paretak eta eraikinak eskalatzen ibiliko dira, street boulder txapelketaren barruan.

Astelehenean, aldiz, kuadrillen arteko pikea egingo dute, 16:30ean, parkean. Izena momentuan bertan eman behar dela azaldu dute Gazte Asanbladako kideek, hamar bat laguneko taldeetan. Betiko moduan, askotariko jolasak egingo dituzte eta umorea ere presente egongo da. Aurtengo jaietako berritasuna izango da Gazte Asanbladako kideek txosna dekoratuko dutela.

ITURRIETA
SAGARDOTEGIA
ARAMAIO
Arraga auzoa 2, ARAMAIO
info@iturrieta.eus
www.iturrieta.eus
Tel.: 685 72 15 93




ANBOTOKO MARIREN JAITSIERA
ZUZENEKOA
GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN
EKAINAREN 30EAN, EGUBAKOITZA, 18:45EAN HASITA
ZUZENEKO EMANALDIA ARAMAIOKO PLAZATIK
DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!
goiena
Zu hemen zaude.



# Hamaika batzorde eratu dituzte lanari ekiteko

Aurreko agintaldian zehaztutako hamarrei eutsi diete eta berri bat sortu dute: Garapen Ekonomikoa. Proposatu dute Udal Gobernuko hiru lagun liberatzea: Gari Iturbe alkatea eta Ion Albizu jardun osoz eta Ainhoa Sanchez heren batean

**Mirari Altube** ARETXABALETA
Ekainaren 17an eratu zen udalbatzak lehen osoko bilkura egin zuen astelehenean. Gari Iturbe alkatearen estreinaldia izan zen, eta adierazi zuen guztien artean bideratuko zutela lehenengoa. Hasteko, udalbatzaren eraketa-egunean bertan egoterik izan ez zuen Javier Mar jeltzaleak zinegotzi kargua hartu zuen. Gainerako taldekideek bezala, "legeak hala aginduta" formula erabili zuen hitz emateko.

Lehenengoa ezohiko osoko bilkura izan zen, eta han zehaztu zuten ohiko bilkurak bi hilabetean behin egitea, orain arte legez; hileko hirugarren eguaztenetan izango dira, 18:00etan.


Astelehenean egindako osoko bilkura. MIRARI ALTUBE

**Gobernu Batzordean EAJ ere bai**
Lanean lehenbailehen ekiteko batzordeak eratu zituzten, eta horietan zeintzuk izango diren ordezkariak zehaztu. Aurreko agintaldiko hamarrei eutsi diete eta berri bat sortu dute: Garapen Ekonomikoa. Horren aldeko apustua egin gura izan dutela zioen Iturbek: "Merkataritzari heldu eta pauso berriak emateko, adibidez, sektore horrekin zer gertatzen ari den ikusita. Era berean, industria erdian jarri gura dugu".

Tokiko Gobernu Batzordea ere eratu zuten. Alkateaz gain, EH Bilduko beste hiru kide izango dira han: Nerea Zubillaga, Ion Albizu eta Ainhoa Sanchez –alkateordeak izango dira hirurak, hurrenez hurren–. Taldea osatuko du EAJko bozeramaile Mikel Uribetxebarriak. "Elkarlana sustatu gura dugu; haien ekarpenak jaso eta arlo ezberdinetan komunean jarri planteamenduak, guztiok gura dugulako herriarendako onena", zioen Iturbek, eta Uribetxebarriak azaldu zuen zergatik onartu duten proposamena: "Gaiak batzorde informatiboetatik pasatu arren, beti egoten dira erabaki batzuk zuzenean hartzen direnak Gobernu Batzordean. Erabakitzeko ahalmena EH Bilduk izango du, baina guk gure iritzia emango dugu".

Udal lanetan jarduteko hiru liberazio proposatu zituzten: Iturbe alkateak eta Albizuk jardun osoa izango dute eta Sanchezek, heren bat. Alkatearen puntua, baina, irailera atzeratu zuten, lan kontuengatik; zinegotzien soldata, ostera, onartu egin zen: 42.000 euro –Sanchezen kasuan, lanaldiaren proportzionala: 14.000 euro– . "Berdintasun arloa zutabetzat hartu dugu eta liberazio bat horretara bideratuko da, transbertsalitatea lantzeko eta dagokion garrantzia emateko". Oposizioak liberaturik ez izatea erabaki du, "oraingoz, behintzat".

Udalean ordezkaritza duten alderdiek jasotzen duten diru ekarpenari dagokionez, aurreko agintaldiko kopuru berberak izatea onartu zuten.

Bestalde, Udalak parte hartzen duen erakundeetarako ordezkariak ere hautatu zituzten, Debagoieneko Mankomunitatekoak izan ezik; haiek aurrerago erabakitzekotan geratu ziren.

## Batzordeak eta kideak

- **Ogasuna** Gari Iturbe eta Unai Elkoro.
- **Hirigintza** Ion Albizu eta Mikel Uribetxebarria.
- **Plangintza Urbanistikoa** Ion Albizu, Gari Iturbe, Unai Elkoro eta Conchi Muñoz.
- **Ongizatea** Nerea Zubillaga eta Karmele Uribarri.
- **Berdintasuna** Ainhoa Sanchez eta Maider Triviño.
- **Kultura** Ibai Zangitu eta Maider Triviño.
- **Gazteria** Ainhoa Sanchez eta Maider Triviño.
- **Euskara** Gari Iturbe eta Karmele Uribarri.
- **Garapen Ekonomikoa** Angel Etxabe eta Conchi Muñoz.
- **Hezkuntza** Gari Iturbe eta Javier Mar.
- **Kirola** Gari Iturbe eta Javier Mar.


Neska-mutikoak pilotalekuan elkartuta, iazko udalekuetan. LORATU

# 320 neska-mutiko ibiliko dira udalekuetan, astelehenetik

Goizetan elkartuko dira, eta eguenetan, arratsaldez ere bai; inguruko parajeak ezagutzeko aprobetxatuko dute

**M.A.** ARETXABALETA
Uztailaren 3an hasi eta 21a bitartean 3 eta 12 urte arteko 320 ume elkartuko dira Loratuk bideratutako udalekuetan. 34 begiralek jardungo dute arduradun, eta makinatxo bat ekintza eta irteera antolatu dute haiendako. Goizeko ordutegia izango dute (09:00-13:00), eguenetan izan ezik; orduan, 17:00ak arte. Gainera, 3 urtekoak 09:00etarako joan ahal izango dira aurten, gura izanez gero; lehenengo ordubetean udaletxe zaharrean artatuko dituzte eta 10:00etan ekingo diete jarduerei.

Marrazki bizidunen bueltako udalekuak antolatu dizkiete: "Loratu telebista egingo dugu eta talde bakoitzak marrazki bizidun bat izango du. Erronkak izango dituzte egunero eta emaitzaren arabera saioaren audientzia igotzen edo jaisten joango da. Azken egunean ikusiko dugu zer lortu duen bakoitzak", azaldu du Ainhoa Sanchez koordinatzaileak.

Irteerak ere egingo dituzte, herriaren bueltan gehienak, eta Arrasateko igerilekuetara eta Eskoriatzako bainutokira ere joango dira batzuk.

# UDAren futbol campusean 107 ume eta gaztetxo elkartuko dira

Hiru astean futbola izango dute ardatz, baina beste jarduera batzuk ere landuko dituzte, baita emozioak ere

**M.A.** ARETXABALETA
Aretxabaleta kirol elkarteak antolatutako Geroa Sortuz campusak ez du hutsik egingo, eta 107 neska-mutiko elkartuko dira astelehenetik aurrera Ibarra futbol zelaiaren bueltan. Futbola izango dute ardatz eta horretara bideratutako entrenamendu bereziak izango dituzte; arlo teknikoa, taktikoa eta fisikoa lantzeko saioak izango dira. Horrez gain, "beste jarduera batzuk ere ukituko" dituzte, antolatzaileen esanetan, hala nola eskalada, bola-jokoa, igerilekuan jolasak eta mendi irteerak. Azken horiek aprobetxatuta, naturaren eta faunaren inguruko azalpenak jasoko dituzte basozainaren eskutik. "Eta, Geroa Sortuz filosofiari jarraituz, balioetan eta adimen emozionalean sakonduko dugu", adierazi du Iker Arriolabengoa koordinatzaileak.

Entrenamendu-saioekin ekingo diete egunei eta arratsaldeak aprobetxatuko dituzte gainerako ekintzetarako: "Partiduak izango dira askotan eta Champions lehiaketa egingo dugu".





June Carmona, Irati Betegi eta Maia Etxebarria kirolari aretxabaletarrak. OIER ZUMARRAGA

# Hiru kirolari gaztetxo, pausoz pauso aurrera

June Carmona, Irati Betegi eta Maia Etxebarria 18 urtez azpiko kirolari aretxabaletarrak dira; lehenengoak saskibaloian dihardu, bigarrenak pilotan eta hirugarrenak atletismoan, eta hirurak nabarmendu dira azken denboraldian

**Oier Zumarraga Aranburu**
ARETXABALETA

Gazte-gaztetatik hasita, pausoz pauso egiten dute kirolariek aurrera, eta emaitzak lortzeko gogor egin behar da lan, zalantzarik gabe. Hala diote denboraldi polita egin duten Aretxabaletako hiru kirolari gaztetxok. Eta agerian utzi dute gozatzen dabiltzala ibilbide horretan.

**Carmona, jokalari onena**

June Carmona Alonso (Aretxabaleta, 2005) Gasteizko Araski saskibaloi taldeko jokalariak, June Guenetxea aretxabaletarrarekin batera, Euskadiko Junior Liga irabazi zuen apirilean. Orain, Euskal Ligako gazteen mailan, denboraldiko jokalari onena (MVP) izendatu dute. "Kantxa barruan oso ondo sentitu naiz eta denboraldi ona egin dut, baina beste jokalarien maila ere oso handia zen", azaldu du, pozik.

Arabako selekzioan ere jokatu du, Guenetxearekin batera, eta iazko abenduan Eusknaf 2022 txapelketa eskuratu zuten: "Orain arte, gehienetan Bizkaiko taldeak irabazi izan du, eta aurten gure txanda iritsi da. Hala, oso harro gaude egindakoarekin".

Juniorrekin batera lehen nazionalean diharduen taldearekin ere jokatu ditu partiduak, eta taldekideen laguntzari esker ondo moldatu dela eman du aditzera. Hori bai, Gasteizera joan-etorrian ibiltzen da entrenamenduetarako: "Egia da denbora asko kentzen didala, baina ondo moldatu naiz aurten, behintzat".

Datorren denboraldiari begira jarrita dago eta saskibaloiaren bueltan ikasten jarraitu gurako luke: "Talde profesionalean eta nazionalean lehiatzen izango naiz. Eta hori erronka garrantzitsua da".

**"KANTXA BARRUAN OSO ONDO SENTITU NAIZ ETA DENBORALDI ONA EGIN DUT"**

JUNE CARMONA, SASKIBALOI JOKALARIA

**Betegi, Master Cup txapelarekin**

Irati Betegi Izurrategi (Aretxabaleta, 2009) UDAko pilotaria da. Hainbat txapel eskuratu ditu aurten, Eibarren eta Antzuolan, esaterako, baita Laboral Kutxaren Master Cup txapelketakoa ere, martxoan. "Kosta egin zitzaigun txapelketa bideratzea, baina bolada ona hartu genuenean emaitzak iristen hasi ziren", dio, eta gaineratu du Labrit pilotalekuan jokatzea sekulakoa izan dela: "Harmailak jendez lepo zeuden eta izugarrizko giroa sortu zen; benetan, gozatzeko aukera izan nuen". Neskekin ez ezik, mutilekin bikote eginda ere jokatu du: "Errazago jokatzen dut nesken aurka, mutilek, orokorrean, indar handiagoa izaten dutelako". Dena den, emaitza politak lortu dituzte eta ondo moldatu da haien artean.

Pausoz pauso joan gura du aurrera, ikasten jarraituta, hankak lurrean izanda eta aparteko erronkarik jarri barik: "Aurten erakutsi dudan maila mantentzearekin konformatzen naiz. Ikusiko dugu nola moldatzen naizen txapelketetan".

**"LABRITEKO HARMAILAK LEPO IKUSTEA SEKULAKOA IZAN ZEN"**

IRATI BETEGI, PILOTARIA

**"MARKAK HOBETU ETA ESPAINIAKO TXAPELKETARA JOAN GURAKO NUKE"**

MAIA ETXEBARRIA, ATLETA

**Etxebarria, markak haustear**

Arrasate Atletiko Taldeko korrikalaria da Maia Etxebarria Martinez (Aretxabaleta, 2007), eta garaipen esanguratsuak eskuratu ditu azken denboraldian. 400 metroko lasterketan minutu batetik jaistea lortu duen Arrasateko taldeko hirugarren atleta da, eta marka horrekin Espainiako rankingeko hogeigarren postuan dago. 200 metrokoan, ostera, taldeko atleta batek egindako bigarren markarik onena du; Matilde Garaik bakarrik du hobea orain artean: "Egia esan, ez nuen espero; izan ere, korrika nenbilela ez nituen izan sentsaziorik onenak. 400 metrokoan oso urduri nengoen, baina lasterketa oso ona izan zen; hortaz, harro nago egindakoarekin".

Krosean ere ibili izan da, baina nahiago ditu pistak: "Nire ezaugarriekin, erosoago nago pistetan. Lasterkari azkarra naiz; hori da nire dohain nagusia".

Datorren denboraldiari begira markak hobetzea du erronka: "Inolako presarik gabe, baina markak hobetzen joatea da helburua. Eta Espainiako Txapelketara joan gurako nuke".

## Xabi Armentia erdilaria, UDAren lehen fitxaketa

Datorren denboraldia gertatzen hasi da UDA, eta lehen fitxaketa iragarri du. Xabi Armentia Maqueda erdilari gasteiztarra –guraso aretxabaletarrak ditu– ohorezko erregionaleko taldea indartzera dator.

2023-2024ko denboraldiaren gaineko berri gehiago emango ditu hilaren 7an, Arkupen egingo duen batzar orokorrean (18:30).



Xabi Armentia erdilaria. XABI ARMENTIA

## 'Sahatsa plazan' lana eskainiko du Sahatsa dantza taldeak

Azkoitiko eta Azpeitiko dantzariz eta musikariz osatutako Sahatsa taldeak *Sahatsa plazan* ikuskizuna egingo du uztailaren 5ean, 20:00etan, Herriko Plazan. Mendez mende iraun duten euskal dantzen erakustaldia egingo dute, hala nola Bizkaiko eta Gipuzkoako hainbat eskainita; fandangoak, adibidibez. Zuberoari ere egingo diote keinu.

## Elixabete Mendiaren akuarelak izango dira uztailean Arkupen

Arrasate Margo Taldeko kide Elixabete Mendia Aranguren (Zumarraga, 1961) artistaren akuarela lanak izango dira ikusgai astelehenean hasita Arkupeko erakusketa aretoan –astelehenetik egubakoitzera–. Eskarmentu handiko margolaria da, eta hainbat sari jasotakoa; besteak beste, Urretxu-Zumarragako kale pintura lehiaketan.

## Igeriketa ikastaroak izango dira umeendako uztailean

Umeendako igeriketa ikastaro trinkoak antolatu dituzte Ibarra kiroldegian. Bi txanda egongo dira: lehenengoa uztailaren 3tik 13ra eta bigarrena hilaren 17tik 27ra. Hiru maila egingo dituzte, adinaren araberakoak.

Izena emateko eta argibideak eskatzeko, kiroldegira jo behar da: 943-03 98 42 eta *ibarrakiroldegia@aretxabaleta.eus*.

# Jaiei neurria hartuta, oraindik beste bi 'bala' geratzen dira erretzeko

Asteazken arratsaldeko txupinazoak modu ofizialean eman zien hasiera sanpedroei. Herriko kaleetan alaitasuna eta giro ona izango dira nagusi domeka goizaldera arte

**Hasier Larrea** ESKORIATZA
Atama kenpo taldeko kideek ondo gordeta izango dituzte asteazken arratsaldean pregoia egiterakoan bizitako uneak, herriko jaiei hasiera ematea ez baitzaio bati urtero tokatzen. Musika Eskolako bandaren eta txistulari taldearen kalejirak jai-giroan murgiltzera animatu zituen festazaleak jarraian, eta gaueko danborrada hasterako herritar guztiek zuten irribarre zabal-zabala ahoan.

San Pedro bezperako gau biziaren ostean, atzo goizaldeko sokamuturrean parte hartzeko indarrak gordeta zeuzkaten zenbaitzuek. Hiru hamarkada igaro eta gero, bigantxak bueltan ziren Eskoriatzan, eta plaza leporaino bete zen gazte ausartak animalien aurrean nola moldatzen ziren ikusteko.

Eskoriatzarrek erakustaldiak ikusi eta tailerretan parte hartzeko aukera izan zuten atzo eguerdian, Axtroki arku-tiro taldearen, Buztin Ate taldearen eta Andoni Bastarrika hondar-eskultorearen eskutik. Arratsaldean kale-antzerkia, eskupilota norgehiagokak, batukada eta umeen danborrada izan ziren, eta gaueko plater nagusia Rock Con Ñ taldeak zerbitzatutako kantu indartsuz osatutakoa izan zen.

**Txosnagunean, topera**

Santa Marina plazako txosnetako egitaraua ere aurrera doa. Gaur, Kudrillen Eguna ospatuko dute, bazkariarekin hasi, X. Banderia jolas-sortarekin jarraitu eta Eire eta Lizartxoren kontzertuekin bukatuta. Bihar ere gau luzea dute aurretik.



Atamakoak txupina botatzen.. OIHANA ELORZA



Helduen danborrada jendetsua. AITOR AGIRIANO



Udalbatzako kideak agintaldiko lehen osoko bilkuran, martitzenean. H.L.

# EH Bilduk proposatutako aldaketak onartu dituzte

Eskoriatzako Udala sei batzorde informatzaile iraunkor izatetik laura pasako da agintaldi honetan, Kirola, Kultura eta Garapen Ekonomiko Jasangarriko gaiak batzordez aldatu dituztelako. Alkateak urtero 48.000 euroko soldata jasoko du

**H.L.** ESKORIATZA
Eskoriatzako Udalaren lehengo funtzionamenduak aldaketak izango ditu hemendik aurrera, martitzeneko osoko bilkuran onartu zuten bezala. EH Bilduk proposatutakoak dira aldaketok, eta bozketetan EAJk ez zuen kontrako jarrerarik erakutsi, baiezkoa edo abstentzioa bozkatu baitzuen.

Besteak beste, sei batzorde informatzaile iraunkor izatetik laura pasako dira. Kirol eta Kultura batzordea desegin egingo da, kirol gaiak Gizarte Zerbitzuen batzordera lekualdatu dituztelako eta kultura gaiak, berriz, Hezkuntza, Euskara eta Gazteria batzordera. Horrez gain, Garapen Ekonomiko Jasangarriko gaiak Hirigintza, Mugikortasun eta Ingurumen batzorde informatzailean landuko dira hemendik aurrera. Aldaketarik egon ez den batzorde bakarra Pertsonal eta Ogasun arlokoa izan da, hortaz.

Jadanik udal bozeramaile kargua hartu duen Xabier Uriartek adierazi zuen aldaketa horiek barne antolaketa hobetzeko egin dituztela: "Bestalde, uste dugu EAJko lau ordezkariek errazago izango dutela batzordeetan parte hartzea, zinegotzi bakoitza batzorde batera joan ahal izango delako".

EAJri dagokienez, Maite Uribek hartuko du parte Hirigintza batzordean, Josu Ezkurdiak Pertsonal eta Ogasun batzordean, Antonio Regañok Kultura batzordean eta Puri Regidorrek Gizarte eta Kirol batzordean. EH Bilduk hiruna ordezkari izango ditu batzorde bakoitzean.

Beste aldaketa garrantzitsu bat alkatearen dedikazio eta ordainsari erregimenean egon da. EH Bilduk proposatuta eta EAJren abstentzioarekin, Edorta Zubizarretak 48.000 euroko soldata gordina jasoko du urtero, aurreko alkate Joserra Zubizarretak baino 20.000 euro gutxiago.

Datorren urtean zapatuan izango da San Pedro eguna, ekainak 29, eta aho batez onartu zuten Eskoriatzan jaiegun izendatzea. Azkenik, hileroko osoko bilkurak azken martitzenetan egin beharrean, azken ostegunetan egingo dituzte hemendik aurrera.



Sokamuturrean, bigantxa saihestu nahian. JULEN MURUA



Bandaren kontzertua. JOKIN SALIDO

## Geratzen diren ekitaldietako batzuk

**Gaur, ostirala**
- 13:00etan, plazan, mariatxiak: Los Tenampas.
- 19:30ean, Gorosarri plazan, Airean taldearen akrobaziak.
- 22:30an, plazan, En Esenzia orkestra.
- 23:30ean, Gernika plazatik, suzko erruberak.

**Bihar, zapatua**
- Egun osoan, umeentzako parkea Zaldibar kanpoan.
- 12:00etan hasita, plazan, euskal jaia. 13:00etan, euskal pentatloia.
- 15:00etan, Santa Marina plazan, herri bazkaria.
- 19:00etan, plazan, buruhandien txirrindulari lasterketa.

## Iker Eskibelen garaipena

Eskoriatzar txirrindulariak Aiara BTT Marathon lasterketa irabazi zuen joan den zapatuan, Euskadiko XCM txapelketaren baitan. Mendiko bizikleta modalitateko lasterkaria pozik azaldu zen Araba iparraldean jokatutako proba amaitu eta gero. "Lasterketa polita, antolakuntza itzela eta eraman ahal nuen emaitzarik onena!", adierazi zuen sare sozialetan.




FESTAK.COM

## Zarimutzen jaiak ospatuko dituzte bihar eguerdian

Sanpedroak Zarimutz elizatean ere ospatzen dira, eta zapaturako jarri dute hitzordua. Herritarrei elizatera igo eta egun polita pasatzeko gonbidapena egin diete auzokideek. 12:00etan meza nagusia egingo dute elizan, Garagartzako eta Gesalibargo koruek lagunduta. Ostean, otordu txikia egingo dute, trikitilarien abestiek lagunduta.

KING MARGA
MKM ILE APAINDEGIA
Eskerrik asko urte hauetan guztietan erakutsitako konfiantza eta babesagatik.
Eskerrik asko, bihotz-bihotzez!
Gora sanpedroak!



Joan den Aste Santuko bisita gidatu bat. M. ARREGI

# Gatz Museoan bisita gidatu ugari uztail eta abuzturako

Astero, asteazkenetik domekara emango dituzte euskara eta gaztelerazko azalpenak, eguerdietan

**H.L.** LEINTZ GATZAGA

Dorletako gaztelu zaharraren ondoan dagoen Gatz Museoak ohi baino zerbitzu zabalagoa eskainiko du udan zehar, Turismo Bulegoaren eskutik. Asteazkenetik domekara egongo da bisitarientzako zabalik, 11:30etik 15:00etara bitartean.

Aitor Larrañaga arduradunak azaldu duenez, euskarazko bisita gidatuak 12:00etan egingo dituzte eta gaztelerazkoak, 13:00etan. Ordubete eskas irauten duten azalpenek duela milioika urte sortutako gatz-iturburuaren sorrera dute abiapuntu. Handik sortu zen, Burdin Aroan, gatza ateratzeko jarduera ekonomikoa, 1972ra arte iraun zuena. Museoan antzinako prozedura horren berri ematen dute, Santa Kolunba ermita, gatz fabrika, lixiba fabrika eta XVIII. mendeko dorlak erakutsita.

**Erreserba egiteko**

Bisita gidatuetan parte hartu gura dutenek *gatzmuseoa.com* webgunean eman dezakete izena, bisitari kopurua zehaztuta. Gehiago jakiteko, deitu Gatz Gunera –943 71 47 92– edo idatzi *info@gatzmuseoa.com* helbidera.

## Zurtitzako San Martin egunerako egitaraua prest dute auzotarrek

Goierri auzoan San Martin eguna ospatuko dute etzi, domeka, santu horren izena daraman ermitan. 12:30ean meza nagusia emango du Joxemi Zubia parrokoak. Ordu erdi geroago, pintxo dastaketa egingo dute ermitaren kanpoaldean, musikaren konpainian. Bien bitartean, doke txapelketan parte hartzeko aukera izango dute bertaratzen direnek; petanka estiloko jokoa da, fitxak jaurtita belarretan tente dagoen aiztoari ematea helburu duena.

Zurtitzako San Martin ermitari buruz esan behar da historia handiko eraikin erlijiosoa dela, Leintz Gatzagako nobleen kofradiak 1629an sortua.

## Eugenio Otsoa bola txapelketa antolatu dute lehenengoz

Uztailaren 8an, zapatua, otsailean zendu zen Eugenio Otsoari keinu egingo diote herritarrek, omenezko hiru txirlo modalitateko txapelketa jokatuta.

Bolatokiko partidei 18:00etan ekingo diete, eta partaideek 10 euro ordaindu beharko dute jokatzeagatik. Hala, lehen sailkatuak txapela eta 200 euro irabaziko ditu, bigarrenak 100 euro, hirugarrenak 50 euro eta laugarrenari sorpresa bat egokituko zaio. Lau onenek, bestalde, gatz sorta izango dute opari.

Bestalde, bolatokiko arduradunek adierazi dute bolatokia 12:00etatik 13:30era eta 16:30etik aurrera egongo dela zabalik, izena emateko.



Udal ordezkariek eta dantzariek elkarrekin dantzan egiten duten unea izan ohi da erromeriaren une gorenetako bat. OIHANA ELORZA

# Urteko erromeria kutunaren ordua

Gaur San Martzial eguna izanik, fededunek 07:30ean hasiko dute San Martzialerako igoera letaniak errezitatzen, duela 135 urte abiatutako ohiturari eutsiz; domekan, berriz, ermita azpiko zelaia eta inguruak kuadrillez beteko dira egun osoko planaz gozatzeko

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA

Ekainaren 30a da gaur, San Martzial eguna. Eta, aspaldiko ohiturari eutsiz, San Martzial egunaren osteko domeka gorriz markatuta izango dute hainbat bergararrek, urteko erromeria bereziena eta kutunena ospatuko dutelako domekan. Iaz berezia izan zen, pandemiaren erruz bi urtez ez zelako erromeriarik egin eta bergararrak bereziki gogotsu zeudelako aspaldiko usadioa berreskuratzeko.

**Fededunen 135. igoera gaur**

Erromeriaren aurretik, baina, zita garrantzitsua izango dute gaur herriko fededunek. 07:30ean Santa Marina elizan elkartuko dira San Martzialerako bidea oinez egiteko; betiere, letaniak errezitatzen. Aurtengoa 135. urtea izango da eten barik egiten dela igoera hori; iaz 30 bat fededunek egin zuten bat zitarekin, eta, ermitan meza entzun ostean, txokolate-jana izan zuten San Joxepe erretiratu elkartekoen eskutik. Gaur goizerako ere plan berbera izango dute.

**Ingurua zaintzeko eskaera**

Badira urte batzuk Udalak eremua zaintzeko deialdi berezia egiten duena, urte batzuetan eremua negargarri geratu izan delako. San Martzialgo "altxorra" zaintzera begira, honako hauek dira aurtengo eskaera nagusiak: sortutako hondakinak dagozkion edukiontzietan batu behar dira, eta norberaren gunean erabilitako tresna guztiak ere jaso behar dira –aulkiak, mahaiak, tresneria edota zintak–; landaretza zaindu beharra dago, zuhaitz adarrik edo hostorik apurtu gabe eta enborretan inongo elementu arrotzik erabili gabe –iltzeak, adibidez–; zuhaitz hilak ere bere horretan lagatzeko eskatu dute, bizitza darielako; ezin da lurra leundu *terrazarik* egiteko; ezin da lurrean surik egin; eta debekatuta egongo da hango iturrian harrikoa egitea. Gainera, inguruetan dauden haur-jolasak, informazio-panelak, hesiak eta hormak ezingo dira kaltetu edota lekuz aldatu. Mezu zehatza zabaldu dute Udaletik: "Ez laga beste arrastorik, zure oinatzak baino ez!".

**GAUR IGOKO DIRA FEDEDUNAK LETANIAK ERREZITATUZ, DUELA 135 URTE HASITAKO OHITURARI EUTSIZ**

Bestalde, Udalak joan den astean ohartarazi zuen kuadrillen guneak *gordetzeko* zintak ezingo direla jarri gaur, hilak 30, 15:00ak arte. Udaleko langileek mantentze-lanak egin behar dituzte, domekarako dena ondo egon dadin, eta, zintaren batek lan horiek oztopatzen baditu, kendu egingo dute.

**Herribus zerbitzu berezia**

Oinez ez bada autobusez igotzeko dei egin du Udalak. Izan ere, ibilgailuen kopurua gutxitzeko, domekan San Martzialerako herribus zerbitzua izango da egunean zehar, 09:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:30era. Geltokiak Oxirondo plazan eta San Martzialen izango dira. Beraz, San Martzialerako bidea trafikorako itxita egongo da 10:00etatik 11:00etara eta 21:00etatik 22:00etara; eta egun horretan ezingo da zelaira autorik sartu, hara jeneroa daroaten ibilgailuak izan ezik.

**INGURUA ZAINTZEKO ESKATU DU UDALAK, ETA HERRIBUSA IA ETENGABE IBILIKO DA GORA ETA BEHERA**

**"Elkartasun argazkia" 13:00etan**

Urtero legez, aurten ere izango da aldarrikapenerako tarterik; iaz hainbat herritarrek egin zuten bat Larramendiko Arnasa plataformaren deialdiarekin, eta *Erraustegirik ez! Ez Larramendin, ez inon* lelo zuen pankartaren atzean jarri ziren argazkia ateratzeko. Aurten, berriz, Galder Barbado eta Aitor Zelaia euskal gazteen kontrako auzia salatzeko "elkartasun argazkia" aterako dute, 13:00etan.

**Esker ona eta errespetua**

Udalak esker ona adierazi nahi izan die Atxega Ardoak, Manso Hermanos eta Miner Ardoak enpresei, San Martzial egunean barrikatik eskaintzen den ardoa, txandaka, emateagatik. Aurtengo ardoa Atxega Ardoak enpresak eman du; 18 urtetik beherakoei ez zaie ardorik banatuko barrikatik. Bestalde, jaiak errespetuz gozatzeko dei ere egin dute Udaletik: "Jai eredu osasungarriaren alde, bizi ditzagun jaiak aske eta elkartasunean, kontsumo arriskutsuak alde batera utziz! Errespeta ditzagun geure burua, besteak eta ingurua! Ondo pasa San Martzial jaiak!".

## San Martzial jaiak 2023: egitaraua

**Ekainak 30, egubakoitza (San Martzial eguna)**

- **07:00** Kanpai jotzea Santa Marina elizan.
- **07:30** San Martzialera igoera, letania errezitatuz. Ondoren, meza San Martzialen eta amaieran txokolate-jana San Joxepe elkartearen eskutik. Antolatzailea: Bergarako parrokia.

**Uztailak 1, zapatua**

- **18:30** Erraldoien kalejira, Arrasateko eta Elgoibarko dultzaineroek eta Bergarako Txistulari Bandak lagunduta. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Masterreka, Bideberri, Irizar, Barrenkalea eta San Martin plaza.

**Uztailak 2, domeka: Sanmartzialgo erromeria eguna**

- **09:30** Alborada: Lizarrako dultzaineroak, Gorka eta Mikel trikitilariak, Bergarako Txistulari Banda eta Ustekabe txaranga.
- **10:00** San Martzialera igotzea.
- **12:00** Gorka eta Mikel trikitilariak eta Beñat Gaztelumendi eta Uxue Alberdi bertsolariak. Ohorezko sokaren dantza eta ohiko aurreskua; ondoren, Lizarrako larrain dantza Lizarrako gaiteroekin. Gero, abesti herrikoiak kantina ondoan.
- **15:30** Umeendako eta gaztetxoendako jolasak.
- **17:00** Herri kirolak: sokatira eta txingak. Izen-ematea 16:15ean hasiko da zelaian; tartean, irrintzi txapelketa egingo dute. Bolo txapelketa ere 17:00etan hasiko da; izen-ematea, bost euro.
- **18:00** Erromeria Muxu Truk taldearen eskutik.
- **19:30** Ustekabe txarangaren eta Gorka eta Mikel trikitilariak.
- **21:00** Suziria eta jaitsiera, Lizarrako gaiteroek, Gorka eta Mikel trikitilariek eta Ustekabe txarangak alaituta. Lehen tokian dultzaineroak, atzetik trikitilariak eta azken tokian txaranga. Jaitsieran, arin-arina eta fandangoa dantzatuko dute.

# Iparraldeko jantokietara bisita, eredua ekartzeko

Elikadura Mahaiak Nafarroa Behereko eta Lapurdiko zenbait jantoki bisitatu ditu, ahal den heinean hango eredua Bergarara eta Debagoienera inportatzeko: "Eskualdeko jangela kolektiboak bertako ekoizleen produktuekin hornitzeko bidean urratsak egin nahi ditugu"

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA

Elikadura Mahaiko kideek Nafarroa Behereko eta Lapurdiko jantoki batzuk bisitatu dituzte asteon. Donibane Garazin Navarre Lizeoko jantokia bisitatu dute; Lekornen, berriz, herriko eskola-jantokira eta Garro SCIC ekoizpen kooperatibara egin dituzte bisitak. Bergarako Udaletik adierazi dutenez, jantoki haiek martxan jartzeko herri mailako "apustu eta elkarlan sendoak" eraiki dituzte, eta bideragarritasun tekniko zein ekonomikoan "erreferenteak dira". Eredu horiez ikastera joan dira.

**Han ikasitakoa hemen aplikatu**

Bisiten helburuak izan dira ekoizpen proiektu kolektiboak ezagutzea eta antzeko egitasmoak martxan jartzeko aktibazioak sortzea; administrazioaren eta tokiko eragileen elkarlana zein inplikazioa bultzatzea nekazari berriak erakartzeko eta erreleboa bermatzeko; jantokien horniketa, eraldaketa eta planifikazio esperientziak ezagutzea; baratzezaintza ekologikoko proiektuak duintzeko tresnak identifikatzea, eta guraso elkarteen arteko esperientziak trukatzea eskola jantokien inguruan.

Bisita horietan ikasitakoa Bergaran eta Debagoienean garatzen ari diren elikadura politika eta egitasmoetara transmititzea da helburua: "Elikadura burujabetzari lotutako proiektu gehiago garatu nahiko genituzke, eta martxan daudenak indartu. Eskualdeko jangela kolektiboetan eskualdeko eta inguruko ekoizleen produktuekin hornitzeko bidean urratsak egitea da helburua". Askotariko eragileek osatzen Elikadura Mahaia: Udaleko ordezkari teknikoek eta politikoek, Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartekoek, Ereindajanekoek, Ehundukoek, Eskubaratzakoek eta herriko nutrizionisten ordezkariek, besteak beste. Gainera, bisita horien parte izan dira Debagoiena 2030 eta Antzuolako Udala ere, Bidezko Elikadura eta EHIGE elkarteekin batera.

**EZAGUTU DITUZTEN EREDUEK HERRI MAILAKO "ELKARLAN SENDOAK" DITUZTE OINARRI, DIOTENEZ**



Nafarroa Behereko eta Lapurdiko zenbait jantoki bisitatu zituzten. B.U.

## Ikastaroa asteon ortu komunitarioetan

San Joxepeko ortu komunitarioetako erabiltzaileek eskatuta, baratzeko izurriteei aurre egiteko ikastaroa eman zuen astelehenean KimuBat enpresako Furgobaratzako Aitziber Otegik. Ortu ekologiko horietako izurriteak modu ekologikoan eteteko hainbat gomendio eman zituen Otegik; erabiltzaileentzat, tomatearen gorrina da kezka nagusietako bat.




Asteleheneko ikastaroan 40 bat erabiltzailek hartu zuten parte. J.B.L.



Angiozarko bizilagun batzuk Zabaletamendin, hilaren 25eko hauteskundeetan. H.LARREA

# Mila Elortzak jaso ditu boto gehien Angiozarko alkatetzarako

Botoa ematera deituta zeuden 250 bizilagunetatik 138k eman zuten botoa, eta Elortzak 48 boto jaso zituen

**J.B.L.** BERGARA

Ekainaren 25ean egin zituzten Angiozarko alkatea eta bailarako batzarkideak aukeratzeko hauteskundeak. Asentzio, Azkuneta, Errekaldea, Goimendi, Angiozar erdigunea –kalea–, Marindao, Partaitia eta Zabaletamendi auzoetan mahai bana jarri zuten. Angiozarren gaur egun bizi diren 304 biztanleetatik 250 zeuden botoa ematera deituta eta 138 izan ziren botoa eman zutenak; parte hartzea, beraz, %55,2koa izan zen. Mila Elortzak jaso zituen boto gehien alkatetzarako (48) eta batzarkide izateko (28). Elortzak lau agintaldi egin ditu dagoeneko Angiozarko alkate, urte guztiak jarraian ez izan arren. 2023-2027ko agintaldirako ere bizilagun gehienek egin dute Elortzaren alde, eta atzo iluntzean ziren egitekoak datozen lau urteetarako alkatea eta batzarkideak aukeratzeko batzarra.

**Hauteskundeak, izaeraren isla**

Angiozarko bailararen izaera propioaren eta berezitasun historikoaren seinale dira hauteskundeak. Udal hauteskunde egin ohi dituzte hauteskundeak, San Juan egunaren hurrengo domekan. Ez da hautagairik aurkezten aldez aurretik, 18 urtetik gorako edonork eman diezaioke botoa edonori alkate edo batzarkide izateko, eta alkate zein batzarkide berriak ofizialki izendatzen dituzte sanmigeletako domekan egin ohi duten ekitaldian. Elortzak hauteskunde egunean bertan GOIENAri azaldu zionez, hauteskundeak modu autonomoan deitzeak bailararen izaera bereziarekin du lotura: "Berez, Bergara barruko auzo bat gara, baina historiagatik haren izaera propioa izan du eta beti ibili gara ahalik eta burujabeen izateko borrokan". Hain zuzen ere, azken saiakera izan zen tokiko entitate txiki izateko eskaera; horretarako, baina, foru araua aldatzea ezinbestekoa da, eta, oraingoz, aldaketa eskaera hori atzera bota dute Batzar Nagusiek.

**Hainbat erronka aurrera begira**

Angiozarrek erronka potoloak ditu aurrera begira. Abiadura Handiko Trenaren lotunea han eraikitzen ari dira, eta horrek, besteak beste, Goimendiko iturburua agortzea ekarri du: "Badira gutxienez lau urte obretan daudela eta gutxienez beste horrenbeste falta zaie; jarraipen zorrotza egin behar zaio". Eskola txikia berritzeko proiektua ere badute esku artean: "Ez dakigu egungo eskolaren eraikina handitu behar dugun edo garitanotarrek emandako etxe hartan egokituko den eskola berria; uztailean jakingo dugu". Gainera, auzotarren zahartzea ere "kezka handiz" bizi dute.

**ATZO ILUNTZEAN ZIREN EGITEKOAK BEHIN BETIKO ALKATEA ETA BATZARKIDEAK AUKERATZEKO BILERA**


Asteleheneko osoko bilkuraren hasiera; Gorka Artolak eta Zihortza Marzanek ez zuten bilkurak egoterik izan. J.B.L.

# Batzordeak osatu dituzte, eta dedikazioak zehaztu

EH Bilduk 2020ko uztailean martxan jarri zuen hiru batzordeen antolaketarekin jarraitzea onartu du udalbatzak, EAJren abstentzioarekin eta PSE-EEren aldeko botoarekin; EH Bilduko lau zinegotzi eta EAJko bat liberatu dituzte, oraingoz, eta soldatak ere onartu dira

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA
Astelehenean ezohiko deialdian elkartu zen udalbatza, 2023-2027ko agintaldirako, besteak beste, osoko bilkuren maiztasuna zehazteko, Udaleko batzorde informatzaile orokorrak osatzeko eta zinegotzi liberatuen soldatak onartzeko. Gorka Artola alkateak eta EH Bilduko zinegotzi Zihortza Marzanek ez zuten osoko bilkuran egoterik izan.

**Hiru batzordeekin segituko dute**
EH Bilduk 2020ko uztailean martxan jarri zituen Herritarrak, Lurraldea eta Antolakuntza batzorde orokorren funtzionamenduarekin jarraitzea proposatu zuen, eta onartu egin zen. EAJ abstenitu egin zen eta PSE-EEk aldeko botoa eman zuen.

EAJko bozeramaile Mikel Letek uste du ongizateak batzorde propioa izan beharko lukeela: "Ongizatearen arloak gero eta indar handiagoa du, gero eta behar handiagoak sortzen ari dira, eta uste dugu batzorde propioa izan beharko lukeela. EH Bilduk antolaketa modu hori martxan jarri zuenean ere abstenitu egin ginen, batzorde gutxi zirelakoan. Orain, hiru urteotako funtzionamendua ikusita, uste dugu batzordeetan ez dela nahikoa denbora izaten gaiak behar den sakontasunez aztertzeko".

PSE-EEko eledun Alberto Alonsok begi onez ikusten du egungo antolaketa: "Egia da sistema berria polemikoa izan zela hasieran, aldaketa orok tentsioa dakarrelako. Hala ere, hiru urte hauen ostean, ikusten dugu gauzak ondo doazela eta antolaketa modu horrek funtzionatzen duela".

Asteleheneko bilkuran alkatelanetan aritu zen Ainhoa Letek balorazio positiboa egin zuen antolaketa eredu berriaz: "Hiru urte bete berri dira antolaketa aldatu genuenetik. Une hartan hamalau batzorde izatera heldu ginen, eta hiru arlo nagusitan banatzea erabaki genuen. Pozik gaude antolaketa berriarekin, arlo politikoan zein arlo teknikoan. Hamarkada luzeetan funtzionatu duen modu bat irauli dugula esan dezakegu, eta etengabeko hobekuntzan ari gara. Baina gure apustua da bide horretatik jarraitzea".

Herritarrak batzordeko arduraduna Maite Usabiaga izango da; Lurralde batzordekoa, berriz, Aitor Narbaiza; eta Antolakuntza batzordeko lehendakaritza Ainhoa Letek hartuko du.

**Zinegotzi liberatuen soldatak**
Horrez gain, alkateari eta zenbait zinegotziri dedikazioa aitortzea ere adostu zuten; EH Bilduren aldeko botekin eta EAJren zein alderdi sozialistaren abstentzioarekin onartu zen proposamena. Asteleheneko bilkuran onartu zen jardun osoko aitorpena izango dutela Gorka Artola alkateak, Herritarrak eta Antolakuntza batzorde informatzaileetako lehendakariek eta EAJko Maite Agirrek. Gainera, heren bateko jarduneko aitorpena izango du Aitor Aranzabal zinegotziak; era berean, Aitor Narbaizaren liberazioa ere aurreikusten du Udal Gobernuak, aurrerago zehaztuko dutena.

Honako hauek izango dira zinegotzi liberatuen urte osoko soldata gordinak, ekainaren 17tik atzeraeraginez aplikatu direnak: Gorka Artola alkateak (EH Bildu), 55.683,46 euro; Ainhoa Lete zinegotziak (EH Bildu), 44.765 euro; Maite Usabiagak (EH Bildu), 42.585,76 euro; Aitor Aranzabalek (EH Bildu), heren bateko dedikazioan, 14.193,83 euro; eta Maite Agirrek (EAJ), 38.710,42 euro.

**HIRU BATZORDEETAKO BURUAK MAITE USABIAGA, AITOR NARBAIZA ETA AINHOA LETE IZANGO DIRA**


BERGARAKO PENTSIODUNEN BATZORDEA

## Pentsiodun beteranoenei aitortza

Bergarako Pentsiodunen Batzordeak omenaldia egin zien astelehenean 80 urtetik gorako zazpi pentsioduni, azken bost urteetan erakutsitako "ausardiagatik eta kemenagatik". Aitortza publikoaz gain, erreilenoak eta idatzi bat jaso zituzten opari: "Ospakizun goxo eta maitekorra egin diegu 80 urtetik gorako zazpi pentsioduni, astero bidelagun izan ditugunei; euren leialtasuna aitortu zaie. Hauteskunde garaian gaudelaeta, politikariei eskari kantu batekin amaitu dugu ekitaldia. Ondo baino hobeto ibili oporretan!".

## OHARRAK

### BAZ: udako ordutegia astelehenetik aurrera
Uztailaren 3tik irailaren 15era, Udaleko Biztanleen Arreta Zerbitzua 07:30etik 14:30era egongo da zabalik, aste barruan.

### Tourrerako porra Lokatzaren eskutik
Lokatzakoek aurten ere antolatu du porra; Iralan egin ahalko da. Gaur, ekainak 30, 18:00etatik 20:00etara; eta bihar, uztailak 1, 11:00etatik 14:00etara. Lehen etapa puntuagarria izango da.

### Laboratorium: uztaileko bisita gidatuak
Astelehenetik egubakoitzera 11:00etan edo 12:30ean eskatu ahalko dira bisitak; erreserbatzen duen lehen pertsonak taldearen hizkuntza eta bisita mota aukeratu ahalko ditu: 943-76 90 03.

### Berener energia berriztagarrien komunitatea
Energia gaien gaineko aholkularitza zerbitzua eskainiko dute uztailaren 5ean Ehunduren bulegoan, 16:30etik 20:30era.

### Semicup: ordainketarako azken eguna
Hilaren 22an jokatuko da areto futbol txapelketa, Seminarioko patioan. Gaur da ordainketa egiteko azken eguna, kontu honetan: ES90 3035 0009 18 0090099 (Laboral Kutxa).

# Usondo parkea dantzan jarri nahi du Kokeinek

Zapatuan aurkeztuko du Eibarko Kokein taldeak, estreinakoz, joan den urtean zehar landu zuen 'Atomika' lana; Usondo parkean izango da kontzertua. Datorren eguaztenean, berriz, Hutsun eta Jel Trio taldeen txanda izango da

**Julen Murua** BERGARA
Eibarko Kokein taldea izango da Usondo parkeko oholtza estreinatuko duen taldea, 22:00etan hasita. Horrela, joan den abenduan kaleratutako diskoa aurkeztu ahal izango diete bertaratutako entzule guztiei; kontzertua doakoa izango da. Ez da Bergarara etorriko diren lehenengo aldia, baina herritarrei euren lan berria eskaintzeko "gogo handiz" daudela aitortu du Zaloa Urainek, taldeko abeslariak.



Zaloa Urain, Kokein taldeko abeslaria, oholtza gainean. BEGIPUNTUAN

**'Atomika' Bergaran**
*Atomika* izenez bataiatu zuen taldeak zazpigarren lana. 2022ko abenduaren 2an jarri zuten plataforma guztietan entzungai eta dagoeneko Euskal Herriko hainbat tokitatik pasa dira euren lan berria aurkezteko.

*Atomika Tour*-ean orain arte eskaini dituzten kontzertuetan "bihotzak beteta" amaitu dutela aitortu du Urainek. Diskoa bera atera aurretik eginiko lanarekin ere pozik gelditu ziren, baina irrikan egon dira prozesu osoa amaitu eta oholtza gainera igotzeko. Bergarako ikuskizunetik gauza bera espero dute eta "entzule guztiak gozatzea eta dantzan jartzea" da Kokeinen helburua.

*Atomika* lana osatzen duten zortzi abestiekin bi gauza nagusi transmititu nahi izan du Kokeinek. "Kontzienteki, momentuan bizitako sentimenduak azaleratu nahi izan ditugu; inkontzienteki, berriz, pandemia urteetan izandako hutsunea dantzaz betetzea", azaldu du abeslariak.

Debora luzez egon zen Kokein taldea estudioan sartuta, abenduan argitaratu zuen laneko azken ukituak eman nahian. Denbora hartan guztian oholtzak alde batera utzi behar izan zituzten, baina, berriro kontzertuetara itzulita, Urainek dio "oholtza gainean sentitzen den adrenalina hori izugarria" dela. Hala ere, ezberdindu egiten ditu oholtza eta estudioa, eta azken horri ere garrantzi handia ematen dio: "Estudioko momentuak zoragarriak dira. Mundu guztia alde batera utzi eta norberak guztiz kontzentratuta egon behar du horretara; buruan dituzun beste gauza guztiak alde batera uzteko momentua da".

**KONTZERTUAZ GOZATZEA ETA GOZARAZTEA NAHI DUTE KOKEINEKO TALDEKIDEEK**

*Atomika* diskoa osatzen duten zortzi kantuak aurkeztuko dituzte Usondo parkean, baina, horretaz gain, "atzetik datozen beste abesti eder guztiak" ez dituzte albo batera utzi nahi, eta horietako batzuk ere abestuko dituzte zapatuan.

Kokeineko kideek burua biran eta *Atomika* diskoaz gozatzean badute ere, Urainek dio ez duela hurrengo lan potolo bat "baztertzeko gogorik. Beti daukagu interes berriak eta gauza berriak egiteko gogoa". Hala ere, eta oraingoz, behintzat, "aurreko urtean zehar egindako lanaz gozatzea" dute helburu.

**Hutsun eta Jel Trio eguaztenean**
Bergarako Udalak antolatutako kultur ekimenek aurrera jarraitzen dute, eta, Kokeinen ostean, Hutsun eta Jel Trio taldeek elkarrekin eskainiko dute kontzertua Usondo parkean, uztailaren 5ean.

Iruñeko txalapartariek Jel Trio taldearekin batera eskainiko duten emanaldia 22:00etan hasiko da.

**Gorlako kantinan kontzertuak**
Gaur, egubakoitza, arratsaldeko zazpietan hasita, Dei taldeak kontzertua egingo du Gorlako kantinan.

Horretaz gain, uztailaren 15ean, 17:00etan hasita, hainbat kontzerturekin gozatzeko aukera izango dute entzuleek. Alde batetik, Bergarako Laino Beltzak eta Burugabe taldeek joko dute; beste alde batetik, Arrasateko Hankaz Gora eta El Volquete izango dira; eta, azkenik, Gasteizko Colapso taldea oholtzaratuko da.


UNAI AZKARATE

## Dylanen doinuekin omenaldia

Xabier Arrillagari omenaldi berezia egin zioten eguazten arratsaldean Bergarako Musika Eskolako perkusio ikasleek eta Azkaiter Peloxek eta lagunek Laino skate parkean. Ordubete baino gehiago iraun zuen ekitaldiak, eta, hain zuzen ere, Xabier Payak euskaratutako Bob Dylanen abestiak eskaini zizkieten hara joan ziren guztiei.

### Udaberriko eta udako merkealdi azoka zapatura arte

Atzo hasi eta bihar arte, udaberriko eta udako merkealdi azoka izango da Bergaran. Urte askoan martxan izan den ekimenak ez du hutsik egingo aurten ere, eta, hain zuzen ere, aukera emango die herriko saltokiei euren produktuak erakuts dezaten.

Bedelkar elkarteko kideek "herriko saltokiei laguntza bat ematea" dute helburu, herriko merkataritza hazteak garrantzi handia baitu haientzat.

Giroa alaitzeko, Gazte-Leku txaranga izango da gaur kalean zehar 19:00etatik 21:00etara, eta bihar, Bergarako trikitilariek egingo dute erakustaldia 12:00etatik 14:00etara.

Herriko saltokiek eta merkataritzak bizirauteak duten garrantzia ezagututa, Bedelkarko kideek "herritarrei saltokietara joateko gonbita" egin nahi izan diete.

### Askotariko ekintzak San Joxepe elkartearen eskutik

Ohikoa den bezala, txokolate-jana antolatu du San Joxepe elkarteak San Martzialen, eta, aurreko urteetan gertatu bezala, harrera ona izatea espero dute elkarteko kideek (Ikus 24. orria).

Horretaz gain, San Joxepeko XV. Kulturaldira begira argazki lehiaketa antolatu du elkarteak. Bertan, 60 urtetik gorako jendeak soilik izango du parte hartzeko aukera, eta partaide bakoitzak bi lan entregatzeko eskubidea izango du. Gaia librea izango da eta argazki onena Kulturaldiko liburuaren gainazalean agertuko da.

Parte hartu nahi dutenek uztailaren 10era arte izango dute lanak aurkezteko.

### Zapatuan ospatuko den skate festak egitaraua iragarri du

Ekainaren 3an zen ospatzekoa Bergarako Labegaraietan skate festa, baina eguraldia zela-eta atzeratu egin behar izan zuten eguna. Hala ere, egitaraua dagoeneko argitaratuta dago, eta, hain zuzen ere, bihar ospatuko dute, zapatua.

11:30etik 13:00etara skate hastapen saioa izango da. Jarraian, eguna ospatzera joaten direnentzako parrillada gertatuko du antolakuntzak. Bazkalostean, berriz, 15:00etan, zehazki, skate libre saioa izango da; 17:00etan, skate txapelketarekin jarraituko dute; eta eguna amaitzeko, Azkaiter Pelox musika taldeak kontzertua egingo du.



Antzuolako udalekuetako azken eguneko ikuskizuna, 2019an. AITOR AGIRIANO

# Aisia hezitzailea hizpide, hastear dira udalekuak

Etzidamu hasi eta uztailaren 21era arte iraungo dute udalekuek. Programazio-bilerak egin dituzte hezitzaileek, eta prest dituzte ekintzak. Halere, umeen proposamenak ere jasoko dituzte. Euskara, hezkidetza, natura eta haurren autonomia izango dira oinarri

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ANTZUOLA

Uztaileko lehen astelehena iristearekin batera hasi ohi dira Antzuolako udalekuak, eta horrela izango da aurten ere, hilaren 3an, etzidamu, ekingo baitiote festari. Aurreko aldiekin alderatuz gero, ordea, badira berritasun batzuk: aurreko urteetan ez bezala, 4 urteko haurrek parte hartzeko aukera izango dute, eta, gainera, lehen aldiz, herriko jaien ondoren udalekuak izango dira astebetez. Uztailaren 21ean amaituko dira.

Zumaia Elkoro antzuolarra arituko da koordinatzaile lanetan, eta nabarmendu du dagoeneko prest dituztela udalekuak: "Bilerak egin ditugu. Idolaz aisialdi taldea bildu zen hasierako urratsak egiteko, eta, ondoren, udalekuetan arituko direnen lantaldea osatuta, formakuntza-saio bat egin genuen. Baita bi programazio-bilera ere, ekintza-egunak zehazteko".

Hain justu, aurten, hemeretzi begirale arituko dira lanean, koordinatzaileaz gain, eta 162 haurrek eman dute izena. 09:30ean hasiko dira, eta 13:00ak arte izango dute ekintzez gozatzeko aukera.

### Egitarauan aldaketa gutxi

Jolasari garrantzia emanda, urtero antolatu ohi dituzten antzeko udalekuak izango direla adierazi du Elkorok, eta ekintzetan ere ez dela "berritasun handirik" izango, sorpresaren bat edo beste tarteko. "Gauza berriak probatzea gustatzen zaigu. Aurten, egun berri komun bat antolatu dugu, hainbat ekintza eta probarekin. Baina ez dut gehiagorik esango...".

Hala ere, gaineratu du programazioa eginda duten arren haurrei hitza emango dietela zer eta nola egin nahi duten jakiteko. Horretarako, lehen egunean ideiak jasotzeko zerrenda bat osatuko dute, eta, ostean, hezitzaileak arduratuko dira jasotakoak egunen arabera antolatzeaz. Alabaina, aitortu du batzuetan "zaila" izaten dela haur guztien nahiak betetzea, eta, beraz, oreka bilatu behar izaten dutela.

### Hitza emateko nahia

Hezitzaile taldeko gazteek argi baitute haurrei hitza eman beharra dagoela, euren nahiak bazter gera ez daitezen. "Uste dugu umeak botere puntu batetik tratatzen direla, euren ikuspegia kontuan hartu gabe. Guk haiek erdigunean jarri nahi izaten ditugu, eta ohartarazi euren iritzia era balizkoa dela". Haien arabera, udalekutako protagonistak haurrak baitira.

Proposatutako zein programatutako ekintza horiek guztiak, ordea, ondo hausnartuak izango dira, aisia hezitzailea baitute oinarri, eta, horretarako, zenbait helburu dituzte zehaztuta: "Euskararen erabilera sustatu nahi dugu, hezkidetza bultzatu nahi dugu, eta baita naturaren zaintza ere. Haurren autonomian ere arreta jarriko dugu, eta baita elkar zaintzan eta tratu onak sustatzean ere". Are gehiago, parte-hartzaileak antzuolarrak izanik eta udalekuak ere Antzuolan eginik, herriaren ondarea ezagutzeko ekintzak ere egingo dituzte.

### Astebete gehiago

Aurten, gainera, astebete luzatuko dira udalekuak. Orain arte, uztaileko lehen astelehenetik jaien hasierara arte egin izan dira, baina, oraingoan, guraso batzuen eskaerari erantzun nahian, uztailaren 21era arte egingo dira. "Pausoka guraso elkarteak udalekuak luzatzeko eskakizuna egin zigun, eta, lantaldean komentatu ostean, luzatzea erabaki zen. Hortaz, jaien ostean beste bost egunez ibiliko gara kaleak alaitzen".

Horrez gain, 4 urte dituzten haurrek parte har dezaten eskaria ere egin dute, eta, lehen aldiz, horrela izango da. Haiek ere udalekuetan hiru astez egoteko aukera izango dute.

Hala, Elkorok espero du umeek une on batez gozatzea. "Gogoz hartzen ditugu etorriko diren hiru aste hauek. Atzetik lan asko dagoen arren, lan polita da eta giro paregabea sortzen da. Beraz, ea haurrek ere esperientzia onak bizi izaten dituzten eta asko ikasten duten gurekin; guk eurekin bezainbeste".

**UDALEKUEK EZ DUTE "BERRITASUN HANDIRIK" IZANGO, BAINA SORPRESAK EGONGO DIRA**

## Pilotarien azken jaia

Pilota eskolako pilotariek eta begiraleek ikasturte amaierako festa egin zuten hilaren 29an Antzuolako Udal Pilotalekuan. Benjaminen, alebinen, infantilen eta kadeteen arteko partidak jokatu zituzten lehendabizi, eta, bukatzeko, afari-merienda egin zuten elkarrekin Olalde elkartean. Hain zuzen ere, irailean berrekingo diote ikasturteari.




OLALDE PILOTA ELKARTEA

# Jaietan murgiltzeko prest da San Martzial

Urteetako tradizioari ukorik egin gabe, meza, herri afaria eta txirrindulari gazteen igoera egingo dituzte Lizarraga auzoan gaur hasi eta domekara arte. Hala ere, auzotarrek ekintza gehiago antolatu dituzte haur, gazte zein helduek jaiez gozatu dezaten

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ANTZUOLA

Ekainaren 30a da gaur, San Martzial eguna, eta Antzuolan ere aspaldikoa da ospatzeko dagoen ohitura, izen berbera duen ermitaren alboan, Lizarraga auzoan.

Goizean igoko dute zuhaitza ermitaren parean, ohitura baita, baina suziria arduratuko da jaiei ofizialki hasiera emateaz, 18:30ean. San Martzial eguneko meza nagusia izango da 19:00etan, eta ondoren banatuko diren gazta eta ardoa bedeinkatuko dituzte han. Amaitzeko, herri afaria egongo da.



San Martzialgo jaiak, iaz. OIHANA ELORZA

### Bihar, arratsaldetik aurrera

Gaurko gaua luzatuz gero, bihar izango da deskantsurako aukera, arratsaldean hasiko baitituzte ekintzak. Herri mailako plater tiroketa egingo dute, helduenentzat, eta gazteagoek, berriz, krosean parte hartzeko aukera izango dute, 17:00etan.

Jaietako egun guztietako ohiturei jarraituz, herri afaria ere egingo dute, 21:00etan, eta menua urterokoa izango da: auzotarrek eginiko berakatz-zopak eta saiheskia, bapo ase arte. Halere, bertaratutakoek dantzan egin beharko dute digestioa, Astiazaran eta Narbaiza arduratuko baitira giroa alaitzeaz erromerian. Are gehiago, ez da Donostiako Kontxako hondartza izango, baina San Martzial inguruak badu horren ukitu bat: urtero legez, su artifizialak eta izozkia izango dira gauean.

**SAN MARTZIAL EZ DA DONOSTIAKO KONTXA, BAINA BADU UKITUA: SU ARTIFIZIALAK ETA IZOZKIA EGONGO DIRA**

### Egun osorako zer egina

Etzi amaituko dira festak, baina egun osoan egongo da zer egina. Txistulariak izango dira goizeko hamaiketan, eta, ostean, San Martzialgo igoera egingo da, Aiastui txirrindulari elkarteak antolatuta. Meza ere izango da, eta, amaitzeko, salda nahi duten guztientzat eta luntxa jubilatuentzat. Herri bazkaria eta erromeria ere egingo dituzte, eta, amaitzeko, ohikoa den *Tortilla la madre;* aurreko egunetan soberan gelditu den janarekin eginiko arrautzopila.

## Gaur hasi eta domekara arteko egitaraua

Hiru egunez izango dira ekintzak San Martzialen.

**EKAINAK 30, EGUBAKOITZA**
- **18:30** Jaien hasiera.
- **19:00** Meza nagusia.
- **19:45** Trikitilariak.
- **21:00** Herri afaria.

**UZTAILAK 1, ZAPATUA**
- **11:00** Plater tiroketako probak.
- **16:30** Herri mailako plater tiroketa.
- **17:00** Umeen krosa.
- **18:00** Txokolate-jana.
- **21:00** Herri afaria.
- **23:00** Erromeria.
- **00:00** Su artifizialak eta izozkia.

**UZTAILAK 2, DOMEKA**
- **11:00** Egunsentikoa txistulariekin.
- **11:30** San Martzialgo igoera.
- **12:00** Meza eta luntxa.
- **13:00** Txirrindularien sari banaketa eta dantzariak
- **14:15** Herri bazkaria. Ondoren, erromeria Ansorregi eta Larrañagarekin, bukaerara arte.
- **20:15** Urdaiazpikoaren zozketa eta *Tortilla la madre.*
- **21:00** Suzirien jaurtiketa eta jaien amaiera.



NIRE USTEZ

**JON KORTABARRIA MANTZIZIDOR**

## Maskulinitatea morez jantzia

Luzea da emakumeek matxismoaren kontra egin duten bidea. Bidearen hastapenetako emakume haien inguruko beste batzuei ezinegona sortu zitzaien, ezezagun zaigunak barrua astintzen baitigu.

Bien bitartean, matxismoa emakumeen arazo esklusiboa zela pentsatu izan du gizonezko askok. Gutxi izan dira matxismoaren inposizioei aurre egin dietenak, asko eroso baitaude.

Sexu orientazio edo genero identitateagatik genero-estereotipo normatiboak betetzen ez dituztenek bazterketa eta begirunerik eza pairatzen dituzte, bidearen hastapenetako emakumeek bezala. Alabaina, azken boladan, asko dira kontzienteki gizon edo emakume izateko modu normatiboari uko egin dioten herritarrak, eta, zorionez, horien ikusgarritasuna nabarmen handitu da.

Orain, erreferenteak ugari eta askotarikoak dira. Aprobetxatu dezagun, bada, matxismoa eraitsiz jarraitu eta maskulinitatea errotik eraldatzeko dugun aukera paregabe hau.

## Kuadrillen arteko jolasetan izena emateko aukera dago

Herriko jaietako egubakoitzean, uztailaren 14an, egingo dira kuadrillen arteko jolasak. Zurrategi plazan izango dira, arratsaldeko seietan, eta Antzuolako Udalak jakinarazi du dagoeneko izena emateko aukera dagoela. Halere, bi baldintza bete beharko dituzte parte hartzaileek: DBH-1etik gorakoek hartu dezakete parte eta, gehienez ere, bost pertsonako taldeak izan behar dute. Irabazleek 100 euroko saria eskuratuko dute.

Beraz, parte hartu nahi duenak udaletxean edo liburutegian eman dezake izena, edo *kultura@antzuola.eus* helbidera mezu bat bidalita. Uztailaren 7a izango da horretarako azken eguna.

## Salgai daude 'Ez dot moztuko bizarra' bazkariko txartelak

Beste urte batez, *Ez dot moztuko bizarra* taldeak herri bazkaria antolatu du herriko jaietako domekarako. Uztailaren 16an izango da, 14:30ean, elizpean, eta dagoeneko salgai daude txartelak. Aitz Garbi tabernan eskuratu daitezke, eta uztailaren 12a izango da horretarako azken eguna, eguaztena.

Sarrerakoak, entsalada, bertan egindako paella, postrea, ogia eta edaria izango dira jan eta edanerako, eta 20 euro balio du txartelak. Haurrek, berriz, 10 ordaindu beharko dute.

Bazkalostean, gainera, kontzertua izango da, Garazi Barrena eta Asier Sala musikari arrasatearrekin.

## Mixi elkartea, herrian dauden kaleko katuak zaintzeko asmoz

Herriko katuei laguntzeko eta haiek zaintzeko asmoz, Mixi elkartea sortzeko asmotan dabiltza herritar batzuk, eta, aldi berean, baita partaide bila ere. Azaldu dutenez, denen laguntzarekin "errazagoa eta politagoa" izango da elkartea abiaraztea, eta horretarako *mixielkartea@gmail.com* helbidea jarri dute nahi dutenen eskura.

## AKEk batzar orokorra egingo du eguenean Olaranen, 18:00etan

Antzuolako Kirol Elkarteak urteko batzar nagusia egingo du eguenean, uztailaren 6an, Torresoroan. 18:00etan hasiko da, eta diru kontuak izango dituzte lehendabizi hizpide. 2022-2023ko denboraldiko memoria aurkeztuko dute batzarkideek, eta datorrenerako aurreikuspena egingo dute. Azkenik, batzordea berritu egingo dute.


Neska-mutiko talde bat iazko jaietako puzgarri batean jolasean. IMANOL SORIANO

# Beste hiru jaiegun aurretik

Atzoko mozorro festarekin gozatu ostean, gaur Umeen eta Erretiratuen Eguna da, eta bihar Herri Eguna. Txartel salmenta ikusita, parte hartze polita espero da. Domekako azoka ere berezia izango da; izan ere, ganadua bueltan izango da Berraondokoan

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA
Elgetarrak jaietan murgilduta daude, eta hasi besterik ez da egin. Erretiratuak eta umeak dira gaur protagonista. Gazteenek jolas parkea izango dute goizez zein arratsaldez; tartean, bazkariarekin. Nagusienek, berriz, meza, bazkaria eta bingoa dituzte gaur. 80 bat erretiratu elkartuko dira bazkaltzeko. Herriko erretiratu guztiak kontuan hartuta, gutxi gorabehera hiru, erretiratutik bat.

Eguerdian herri kirolak ere izango dira. Karmele eta Ioritz Gisasolak euskal pentatloia egingo dute eta Imanol Albizu *Goikoetxe*-k, harri-jasotze erakustaldia. "Ez nago sasoirik onenean. Ez dut nahi beste entrenatzerik izan, baina baiezkoa eman nuen erakustaldia egiteko eta nire onena ematen saiatuko naiz", esan du.

**Bihar. Herri Eguna**
Herri Eguneko bazkaria izan ohi da jaietako ekitaldirik jendetsuena eta aurten ere horrela izatea aurreikusten da. Bazkarirako txartelak salgai egon dira Karraju dendan, eta Maite Barrainkuak esan du salmenta urtero moduan joan dela. "Egia da egunean bertan ere txartel asko saltzen direla, baina aurretik erosteak errazten du kalkuluak egitea eta janari kopurua hobeto neurtzea".

Bazkaldu aurretik euskal dantzen txanda izango da. Neska-mutikoek azken hilabeteotan Bergarako Moises Aspiazuko Maite Lazkanorekin ikasitakoa erakutsiko dute plazan, eta, ondoren, udal zinegotzien soka dantza izango da. Ikusmin berezia sortu du aurtengoak; izan ere, irteten den udalbatzak eta udalbatza berriak dantzatutako dute. Bergarako erraldoiak ere Elgetan izango dira aurten. Talde ia guztia dator, eta erraldoi eta kiliki gehien-gehienekin.

**GOIENAK ZUZENEAN EMAN ZUEN JAIEN HASIERA ATZO, ETA SAIO BEREZIA EGINGO DU MARTITZENEAN**

**Azoka, ganaduarekin**
Domeka azoka eguna izango da. "Oso pozik gaude ganadu azoka bueltan delako", esan du Ibon Unzetabarrenetxea alkateak. "Lanketa handia egin dute Sebastian Arantzabalek eta Agustin Beretxinagak. Abeltzainentzako garrantzitsua da ganadu azoka egitea, eta herriarendako ere bai. Beste bizitza bat ematen dio Ferixa Egunari".


Bergarako No Limits taldea jaialdi batean. IMANOL SORIANO

## Txosnagunearen itzulera

Ferixa Nagusiko jaietako nobedade esanguratsuenetako bat txosnagunea da. Antzina moduan, gaztetxe azpiko zabalgunean dago eta jaietako lehen eguna ezkero da martxan. Urteetako etenaldiaren ostean, Gazte Asanblada berriz eratu da, eta hasieratik jarri dira lanean. Txosnagunea iragarri, antolatu eta programazioa osatu dute. Atzo egin zuten txosnagunearen irekiera, eta gaur 18:00etan zabalduko dute atzera ere. Gazte Asanbladaren kamiseta janzteko dei egin dute, eta, programazioari dagokionez, herri jolasak –kantxan–, Beasaingo Zanpaldunak (19:30) eta kontzertuak iragarri dituzte. Antzuolako Kimak taldeak 20:30ean joko du eta Bergarako Burugabe eta No Limits taldeek, 01:00etan. Goizaldera arte iraungo du festak, 07:00etarako *gaupasero* argazkia iragarri dute eta. Gazte Asanbladak antolatutako azken ekitaldia domeka iluntzean izango da: 20:00etan txitxi-burruntzia egingo dute herriko plazan.

Txosnagunea bueltan izatea albiste pozgarria izan da elgetar askorendako. Ibon Unzetabarrenetxea alkateak ere modu oso positiboan baloratu du: "Iruditzen zait herriko beste indargune bat dela. Gazteak lan egiteko gogoz eta herriari gauzak eskaintzeko gogoz datoz, eta Udala horretan laguntzeko dago. Oso pozik hartu dugu albistea. Lan handia egin dute jaiak prestatzen, eta hori beti da eskertzekoa".

## Argazki lehiaketa

Jai Batzordeak aurten ere Ferixa Nagusiko jaietako argazki lehiaketa antolatu du. Jaietako argazki onenaren egileak 100 euroko saria jasoko du eta datorren urteko jaietako egitarauko azala izango da, gainera, irudia.

Parte hartzeko nahikoa da argazkia edo argazkiak *danonartian@elgeta.eus* helbidera bidaltzea. Proposamen guztiek Jai Batzordearen eskuetan egon beharko dute uztailaren 7ko 13:00etarako. Gura beste argazki bidal daitezke.

## Zirkulazioa eta garraioa

Atzo ezkero itxita dago zirkulazioa Elgeta erdigunetik igarotzen den errepidean. Horrela mantenduko da domekako 20:00ak arte; zirkulazioa Torrealdeatik bideratuko da eta autobus geltokia Berraondokora lekualdatuta dago.

Garraio zerbitzuari dagokionez, asteburuko ohiko zerbitzuak mantenduko dira eta zapatu goizaldean gaueko autobus zerbitzu berezia ere izango da; 00:30etik 06:30era orduro Bergarara eta Antzuolara joateko.

# "Sendabelarrak esparru askotan erabil daitezke"

**GARBIÑE LARREA ITURRALDE** SENDABELARRETAN ADITUA

Liburutegiak antolatuta, bete egin zen aurreko astean egindako hiru orduko ikastaroa, eta beste saio bat antolatu dute uztailaren 6rako. Izen-ematea zabalik da

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Sendatzeko baratzea egitea proposatzen du Garbiñe Larreak (Urnieta, 1976) *Sendabelar baratzea* liburuan. Lursail batean zein etxeko loreontzian egin daiteke.

**Ze sendabelar proposatzen dituzu baratzerako?**

Baratzean jatekoa landa daiteke, baina baita sendatzekoa ere. Izeba batek jatekoa adina zuen sendatzekoa, eta ez da xelebrekeria bat; izan ere, askotariko kulturetan izan dituzte sendabelar baratzeak. Alhambran, esaterako, baratzeak sendatzeko izan dira. Hamabi sendabelar proposatzen ditut *Sendabelar baratzea* liburuan; malba, garraiska, pixa-belarra, mendabeltza, izpiliku fina, mendaroa, mihilua, ezkaia, salbia, txilarra, erromeroa eta ilena.

**Zeintzuk dira garrantzitsuenak?**

Hori norberak ikusi behar du; izan ere, ez ditugu guztiok premia berak. Planteamendua da horiek erabiltzen hastea eta benetako etekina ateratzea, hainbat esparrutan erabil daitezkeelako.

**Sasoi honetan hasi nahiko bagenu sendabelar baratzea egiten, ze landarerekin has gaitezke?**

Garrantzitsua da jakitea zer-nolako uda izango dugun, eta ez dakigu. Aurreko urtekoa bezain lehorra izango bada eta hilabete bagoaz oporretan, hobe da ezertan ez hasi, litekeena delako landareek hasieran ureztatu beharra izatea. Kasua beste bat bada, ezkaia, ilena, salbia edo erromeroa ipiniko nituzke.

**Sendabelar askok erabilera bat baino gehiago dute.**

Terapiarako erabil daitezke, baina, baita kosmetikarako eta sukalderako ere. Askotariko balioak ikustea garrantzitsua da. Ilena, esaterako, azalerako erabili izan da, baina ikusten dugu bai terapiarako eta bai sukalderako ere erabil daitekeela, eta jende asko dago sukaldean gauza berriak egitea gustatzen zaiona.



Garbiñe Larrea Iturralde. L.Z.L.

**"TERAPIARAKO, KOSMETIKARAKO ZEIN SUKALDERAKO ERABIL DAITEZKE SENDABELARRAK"**

**Ez dugu zertan kanpora joan sendabelarrak lortzeko, ezta?**

Iruditzen zaigu atzerritik ekarritako sendabelarrak hobeak direla, eta marketinaren izenean ari da desplazamendu bat gertatzen. Ez nago kontra; kanpoko sendabelarrek jakin-mina pizten didate, baina ez nuke nahi moda kontuengatik bertakoak galtzea. Kezka eragiten dit sendabelarren izenak galtzeak, tradizioa galtzeak, edo haiekin lotutako abestiak eta esaera zaharrak galtzeak. Hor ondare immaterial handia dago, eta hori guztia kanpokoa ederresteagatik ari zaigu gertatzen. Gainera, marketin hori sustatzen duenak irabazi bat nahi duelako sustatzen du, eta hemen debalde eta modu basatian jaiotzen diren landare asko eta asko erabil ditzakegu segurtasunez.

**Loreontzia aukeratzen bada, lurrezkoa lehenesten duzu.**

Plastikoarekin arazo handia dugu eta mikroplastikoen presentzia osasun arazo benetan larria da. Ikusita zenbaterainoko kutsadura den gure gorputzean –emakumeenean, bereziki–, iruditzen zait uneren batean uko egin beharko zaiola plastikoari. Merkea da eta iruditzen zaigu sekulako materiala dela, baina eguzkiak erre eta zartatu egiten du, eta landareak kutsatu egiten ditu. Nik ez dut hori infusioan hartu nahi. Gomendatzen dut betiko lurrezko loreontziak erabiltzea.

**Sendabelarren inguruko bigarren liburua duzu *Sendabelar baratzea*. Tailerrak ere egiten dituzu, eta Elgetakoa ere bete egin da.**

Harrera oso ona da leku askotan. Elgetan ere bete egin zen saioa, eta beste bat antolatu dugu uztailaren 6rako. Saio horietan elkartzen da jendea hutsetik hasten dena, baita sendabelarren inguruan jakintza bat baduena ere. Batzuk liburua azpimarratuta etortzen dira, eta eztabaidatu ere egin nahi izaten dute. Asko eskertzen dut; halakoak beti dira aberasgarriak.



Udalekuetako ume talde bat Asentzion arrantzan. ELGETAKO UDALEKUAK

## Sei taldetan banatuta ehun bat ume aurten udalekuetan

Zerbitzuak astelehenean zabaldu zituen ateak, eta umeei galdetu zaie zer-nolako ekintzak gura dituzten

**L.Z.L.** ELGETA

Amaitu da ikasturtea, eta hemen dira udalekuak. Zerbitzuak astelehenean zabaldu zituen ateak, eta zaintza zerbitzua ere eskaintzen du. Lau aste iraungo dute udalekuek, eta ehun bat umek eman dute izena. Zortzi hezitzaile ari dira bertan.

Aurtengo gaia *Itsasoa* da, eta nabari da hori taldeek hartu dituzten izenetan: Dortokak (HH 2 eta 3), Arrainak (HH 4 eta 5), Itsas-zaldiak (LH 1), Olagarroak (LH 2), Marrazoak (LH 3 eta 4) eta Baleak (LH 5 eta 6).

**Askotariko ekintzak**

Oinherriren *Herri hezitzailea* programan sartu da Elgetako Udala aurten, eta lehen ekimenetako bat izan da udalekuetako ekintzak programatu aurretik umeei iritzia eskatzea. Eskolaren eta liburutegiaren bitartez egin da galdeketa, eta erantzunak kontuan hartu dira programazioa egiterakoan.

Ekintza nagusienen artean nabarmentzen dira hilaren 6an egitekoa den bits festa, hilaren 14an Mutrikura egitekoa den irteera eta hilaren 20an nagusienekin Asentzion egitekoa den gaubeila.

Nerea Villa da hezitzaileen koordinatzailea, eta azaldu du azken asteko programazioa osatzeko beste kontsulta bat egingo dietela umeei. Partaidetza-prozesu horrek emandakoa kontuan hartuko dute hezitzaileek ekintzak antolatzeko orduan.

Aste honetan, eta udalekuak hasteko, hurbilean dauden baliabideak aprobetxatu dituzte irteerak egiteko. Martitzenean, esaterako, Asentzion izan ziren txangoa egiten, eta arrantzan ere egin zuten. Atzo, berriz, buruhandiei ongietorria egiten izan ziren udalekuetako umeak.

## Udalbatza berriak martitzenean du lehen osoko bilkura

Agintaldiko lehen osoko bilkura 19:00etan hasiko da. Hartzeko dauden erabakien artean daude batzordeen eraketa eta banaketa, liberatu kopurua, alkatearen zein zinegotzien soldata, Udalean ordezkaritza duten alderdiek jasoko duten diru ekarpena, Udalak parte hartzen duen erakundeetako ordezkariak eta osoko bilkuren maiztasuna.

## "Pozik" daude erakusketak herrian izandako harrerarekin

Udal Artxiboko boluntario taldeak antolatuta, bi asteburuz izan da erakusketa ikusgai, eta lantaldeko Fernando Larrañagak esan du pozik daudela jasotako harrerarekin. "Baserrien inguruko atalak izan du arrakasta handien; pertsona nagusi asko hunkituta azaldu dira", esan du. Argazki zahar gehiago ere jaso dituztela esan du Larrañagak.



Oñatin 115 zintzilikario-gune inguru daude; irudian, Bidebarrieta kalean dagoen bat. GOIENA

# Hamar urte dira atez ateko bilketa jarri zela

Azken hamarkadan sistemak izan duen bilakaera ona dela ondorioztatu du Udalak, eta bide horretan jarraituko duela aurreratu; datuak mantendu egin direla dio, herriko filosofia aldatu egin dela eta herritarrak kontzientziatuta daudela birziklapenarekin

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Duela hamar urte, 2013ko uztailaren 1ean, jarri zen martxan Oñatin hondakinak gaika biltzeko atez ateko sistema. Orain artekoaren balorazio ona egin du Izaro Elorza Arregi alkateak, eta horrela jarraitzea dela asmoa aurreratu: "Hamarkadako esperientziak berretsi du atez atekoa dela birziklapen maila handiena ahalbidetzen duen sistema. Eta badu moldagarritasuna, egokitzeko gaitasuna. Halaxe jardun dugu hamar urteotan, unean uneko beharrak eta joerak ikusita sistema eguneratzen. Eta hamar urteotako bidea egina, birziklapen maila handia mantendu da. Dena den, hobetzen jarraitu gura dugu, eta horretarako lanean gabiltza buru-belarri, orain arte bezala, atez atekoa hondakinen bilketa arrakastaz egiteko sistema izan dadin".

**Organikoa, gehien biltzen dena**

Egun, sistemaren kontrako iritziak baino, egon ohi diren intzidentzien ingurukoak dira Udalera heltzen diren kexa gehienak. "Askok hondakin bilketa sistema alderdien arteko eztabaidatik kanpo dute utzia dagoeneko, horren bidean urratsak egin beharra lehenetsita. Nolabait, errekonozitua izan da atez atekoak birziklapenari eta iraunkortasunari egiten dien ekarpena", gaineratu du. Datuek ere hori berresten dutela dio: "%35etik %81 jasotzera iritsi ginen urte gutxitan, eta hondakin kopurua biztanle eta urteko 400 kilo izatetik 342 kilora jaitsi zen. Eta ordutik, horri eustea da erronka. Horretarako, hainbat aldaketa egin ditugu azken hamarkadan, unean uneko beharrei eta joerei begira". Hondakinak banaka hartuta, berriz, azken urteetan errefus kopuruak gora egin duela diote Udalak jasotako datuek. 2022an %76,2ra heldu zen kopuru osoa; gehien biltzen diren etxe hondakinak, berriz, hurrenez hurren, kilo, biztanleko eta urteko: organikoa 137, errefusa 99, papera 50, beira 44 eta ontzi arinak 34. Egurra, arropa, pila edo oliotan, bestalde, 54.

**AURKAKO IRITZIAK BAINO INTZIDENTZIA KEXA GEHIAGO JASOTZEN DITUZTE EGUN UDALEAN**

**Kontzientziazioarekin jarraitu**

Datuetan bakarrik geratu barik, herriko filosofia aldatu egin dela gehitu du Elorzak, herritarrak birziklapenarekin kontzientziatuta daudela dio, eta sistema horretan sartzen ditu auzoetako guneak eta kaleko zaborrontziak ere. "Guneak sarri garbitzen dira presiodun urarekin eta xaboiarekin. Ez da ezkutatu behar badela hondakinak gaizki ateratzen duenik ere, eta horri buelta emateko lanean ere bagabiltza, kontzientziazioa eginda", gaineratu du.

## 10:00etan itxiko dituzte herriko sartu-irtenak domekan

Domekan pasako da Tourra Oñatitik, eta 10:00etatik 15:30era bitartean itxita egongo dira herriko bi sartu-irtenak: Elorregi eta Udana. Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzua egongo da, ordea, eta geldiune bakarra izango du: Elkar Heziko Lehen Hezkuntzako eraikin aurrekoa. Anbulatorioa ere zabalik egongo da, 09:00etatik 15:00etara. Herriko Gure Eskuk herritarrak animatu ditu Tourra ikurrinekin ikusteko herritik pasatzen denean, eta EAJko Uri Batzarrak, berriz, ikurrinak balkoietan jartzera gonbidatu du.

Bestalde, herriko dendetako erakusleihoetan ere ikusten dira maillotak eta txirrindularitzarekin lotutako elementuak. Txokolateixan, berriz, Gozoak Tourrerako propio egin dituen pasteltxoak dituzte, eta txokolatezko bost piruleta ere badituzte salgai.



NIRE USTEZ

**ITZIAR ALONSO AGIRRE**

## Iragana, oraina eta etorkizuna

Ibilaldi bat egiten ari nintzen bitartean, podcast bat entzuten jarri nintzen; *Hondamena,* gaztelerazko *Ruina*, zuen izenburu. Podcastaren amaierara iritsi nintzenean, aipatutako hitzari bueltak ematen hasi nintzaion.

Hondamenarekin erlazionatu nuen lehen ideia erortzear dagoen etxe batena izan zen. Leiho gabe eta alanbrezko hesiz inguratuta dagoen eraikina. Berehala, irudikatzen zuen metaforaz ohartu nintzen. Iragana, oraina, eta etorkizuna lotzen zituen. Baina hondamenak gogoratzeko eta memoriarako toki ere bilakatu daitezke. Zelenskik pentsatu du Ukrainako inbasioan suntsitutako zubi bat etorkizunean Errusiaren partetik jasandakoa gogorarazteko erabili daitekeela. Gurean, Espainiako Gerra Zibileko memoria-tokiak ezagunak dira. Baina ordutik, gure herrian hamaika gertakari izan dira. Memoria ez da historiaren kontaketa soil bat, gure herriaren iragana eta etorkizuna lotzen dituen zubia baizik. Gertatutako sufrimendua ez ahaztu eta ez errepikatzeko tresna da. Aintzat har dezagun!

GORA ETA BEHERA



## Oztopo bihurtu da espaloi gaineko telefono-kabina

Lizaur kaleko espaloi gainean dagoen telefono-kabina oraindik zergatik mantentzen den galdetu du herritar batek, argazkia bidalita. "Zertarako oztopo hori? Oñatiko Foru enparantzakoa aspaldi kendu zuten, eta hori zergatik ez?", galdetzen du.



**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?**
*berriak@goiena.eus*
edo 688 69 00 07.

# "Ekinean ibilita, denok ikasten dugu gehiago"

**MIKEL FERNANDEZ SANCHEZ** IRAKASLEA

'Haurrak ekinean' liburua idatzi du. Autoedizioa da eta herriko liburu dendetan salgai dago eta udal liburutegian irakurgai. Udazkenean egingo du aurkezpena Oñatin

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Mende laurden baino gehiago daramatza irakaskuntzan Mikel Fernandez Sanchezek (Oñati, 1973) eta ikas egoeren esperientziak proiektuen bitartez nola landu eta horrela egiteak dakartzan abantailez idatzi du *Haurrak ekinean* liburuan.




Mikel Fernandez, idatzi duen liburua eskuetan duela. M.F.

**Zer jasotzen du liburu horrek?**
Saiatu naiz azaltzen hezkuntzan badagoela ikasteko edo gauzak egiteko beste modu bat, ez bakarrik testu-liburuak hartu, irakurri eta buruz ikasi. Irakaskuntza proiektuen bitartez egitea eta hori nola egin dator liburuan.

**Zeure esperientzia da oinarria?**
Bai. Aitortzen dut proiektu guztiak ez direla berdin bukatuko, baina ikaste prozesua askoz aberasgarriagoa da, ikasle zein irakasleondako, eta ondo ateraz gero noraino hel daitezkeen ere ikus daiteke. Ikaskuntza errealа den zerbaitekin lotzean motibazioa igo egiten da eta emaitzak ere hobeak izaten dira.

**Adibideak ere badatoz, hortaz?**
Hiru adibide jarri ditut, neuk ikasleekin landutakoak. Lantziegoko eskola txikian egiten dut lan, eta ardogintza izan da proiektuetako bat. Ardoa egiteko gai izango ote ginatekeen galdetu genion geure buruari, eta baietz demostratu dugu proiektuaren amaieran. Bitartean, upategiak bisitatu ditugu, mahastiak zaindu, informazioa topatu, mahatsa zapaldu... Ekinean ibiliz gero denok ikasten dugu gehiago, ikasleek zein irakasleok. Izan ditudan ikasleetako batek, esaterako, Wolf-Hirschhornen sindromea du, eta hori izan zen beste proiektuetako bat. Esperientzia horretan, nola lagundu izan zen gure galdera. Proiektuaren amaieran mila euro baino gehiago batu, eta ikerkuntzarako bidali genituen. Hirugarren proiektua, berriz, herriko historiari buruzkoa izan zen. Hori hobeto ezagutzeko zer egin dezakegun galdetzen hasi eta telefonokorako aplikazio bat sortuz bukatu genuen proiektua. Sekulakoak izan dira hirurak.

## "GAIAK PROIEKTUAK EGINDA LANTZEA DA NIRE PROPOSAMENA, ETA NOLA EGIN JASO DUT, ADIBIDEEKIN"

**Nondik hasi eta nola jarraitu ere azaltzen duzu?**
Bai, horrela da. Udako oporrak datoz laster, eta esango nuke liburua udan irakurrita ikasturte berrian proiekturen bat martxan jartzeko moduan egon gaitezkeela irakasleok.

**Proiektuaren gaia aukeratu behar lehendabizi, ezta?**
Bai, eta hori ikasleekin batera egitea da nire gomendioa, ez ikasleei galdetuta bakarrik, baizik eta euren interesa zein izan daitekeen ikusita: euren kezkak, bizi duten egoera, testuingurua... Behin gaia aukeratuta, hasierako galdera bat planteatzea da hurrengo pausoa, eta galdera horri erantzutea da proiektua bera, lana. LHko hirugarren zikloko ikasleekin izandako esperientzia da liburuan jaso dudana, baina DBHn ere aplikagarria ikusten dut, erabat.

**Irakasleendako eskuliburua da?**
Izan daiteke, bai. Irakasleengan pentsatuta dago idatzia, baina ez da liburu tekniko bat, erraz irakurtzen eta ulertzen dena baizik. Irakasleak ez diren dezentek irakurri dute dagoeneko, adibidez, eta hori izan da, behintzat, eurengandik jaso dudana. Testu-liburuak erosoagoak dira, agian, askorendako, baina irakasleok badugu erantzukizunik. Ikasle aniztasuna handia da, eta pentsatu behar ditugu denen gaitasunak garatzeko moduko bideak, erakusteko moduak. Proiektuen bidea azaltzearekin batera, *inklusioa, talde-lana, metodologia, jarrera* eta bestelako kontzeptuak ere ageri dira.

**Gipuzkoan jaio, Nafarroan bizi eta Araban lan egin. Hori da hori...**
Errekaldeko herri eskolatik Eskoriatzara joan nintzen, Irakasle ikasketak egitera. Txantxiku ikastolan praktikak egin eta Vianako ikastolan egin dut lan; orain, Lantziegon. Eta Bargotan bizi. Oso nahaste polita da.

### Udako 'Biblioporrak' gida kaleratu du udal liburutegiak

Oraingo *Biblioporrak* gidan, liburuak eta bildumak ez ezik, CDak eta DVDak gomendatzen dira. Adinka daude sailkatuta irakurtzekoak; ikus-entzunezkoen atala, berriz, orokorra da: 40 titulu gomendatzen dira, eta bosna disko eta film aipatzen. Etxez etxe banatuko dute, baina udal webgunean eta liburutegian ere kontsulta daiteke.

### Adopzioan emateko katuak ditu OKKE elkarteak

Oñatiko Kale Katu Elkarteak katakumeak ditu adopzioan emateko. Bertan behera utzitako animaliekin sentsibilizatuta daudenei dei egin die, etxean har ditzaten. "Adopzio arduratsuan" eman gura dituztela diote elkarteko kideek. Elkartekoekin harremanetan jartzeko bideak: 677 98 54 11, 635 74 84 15 eta *okke.onati*.

### 'Sebastian' erraldoia Zubillagako jaietan ibiliko da aurten

Joan den urtean ez zitzaien posible izan *Sebastian* auzoan, Zubillagan, aurkeztea, eta San Migel jaietan atera zen kalera. Aurten bai, ordea, eta horrelaxe egingo dute. Zapatu arratsaldean 18:00etan helduko da auzora *Sebastian,* Kondeak, Kondesak eta dultzaineroek lagunduta. Asteburuan ospatuko dituzte sanpedroak Zubillagan.

### Martitzenean da jai nagusiak antolatzeko bilera irekia

Irailaren amaieran eta urriaren hasieran egingo diren San Migel eta Errosaixo jaien egitaraua prestatzen ari da Udala, eta bilera irekia egingo du datorren astean herriko eragileekin hori osatzeko eta zer, non, noiz eta nola egin gura duten adosteko. Bilera datorren martitzenean izango da, uztailak 4, 18:30ean, kultura etxean.

oñargi

**OÑARGI SL** udal enpresa da,
Oñatiko Udalaren jabetzakoa, herrian elektrizitate zerbitzua kudeatzen duena.

Instalazio elektrikoak, sareak, matxurak, konponketak... gustuko badituzu, hau da zure aukera

OÑARGI SL enpresarentzako
**ELEKTRIKARI** baten bila gabiltza

Interesatuok, jarri harremanetan:

onargi@onargi.eus
943 78 07 08

# 'Gerrako oihartzunak' Ganbararen eskutik

Edozein gerrak dituen faseak irudikatuko ditu Ganbara Faktoriak, musikarekin, beste hainbat eragilerekin batera: Josu Zubiak idatzitako testuak irakurriko ditu Miel Guridik, eta Xabier Regueirok egingo ditu aire-akrobaziak, hiru kantutan

**Mireia Bikuña Madrid** OÑATI

Ganbara eta Hots abesbatzek, Amaia Zipitria pianistak, Miel Guridi narratzaileak eta Xabier Regueiro akrobatak bat egingo dute Kalean egitarauaren baitako ikuskizunean: *Gerrako oihartzunak* irudikatuko eta abestuko dute plazako pilotalekuan gaur, 22:00etan. "Beste batzuetan moduan, gai sozial bat aukeratu dugu oraingoan ere. Hausnartzeko bidea ematen duen gaia: gerra, eta halako gertaera batek sorrarazten dituen ondorioak. Gai gogorra da, guztiok nolabait ukitzen gaituena. Ikuskizun ederra izango da", esan du Ganbarako zuzendari Aitor Biainek.



Hots abesbatzako kideetako batzuk. GOIENA

**Picassoren 'Gernika'**

*Gerrako oihartzunak* ikuskizunak hiru zati ditu: *Gerraren izugarrikeria*, *Dolua* eta *Itxaropena*. Horietako bakoitzean hainbat pieza interpretatuko dituzte Ganbara eta Hots abesbatzek: *Aldapeko*, *Ikimiliklik*, *Baga biga*, *Txoria txori*, *Gernika*, *Maitegoak* eta *Akerra ken*, besteak beste. Kantuak kantu, Picassoren *Gernika* koadroa izango da ikuskizuneko protagonistetako bat. Beti egongo da presente agertokian.

**Efektu bereziekin**

Bi abesbatzen lanei laguntzeko, efektu bereziak egongo dira: soinuzkoak, dantzakoak eta ahotsezkoak. Azken bi horietan protagonista izango dira Xabier Regueiro akrobata eta Miel Guridi narratzailea. Josu Zubiak idatzitako sei testu irakurriko ditu Guridik. Ikuskizunak dituen hiru zatietan, bina testu.

Regueirok, aldiz, hiru kantutan egingo ditu aire-akrobaziak: *Baga biga*, *Gernika* eta *Maiteagoak* kantuetan, hain zuzen. Hots eta Ganbara abesbatzen kantuak gorputz espresioarekin jantziko ditu.

**Eguraldiari begira**

*Gerraren oihartzunak* ikuskizuna aire zabalean egingo dute: plazako pilotalekuan. Euria egiten badu, Zubikoako pilotalekura lekualdatuko dute. Sarrera debalde da.

**Mirua taldea**

Kalean egitasmoko beste emanaldi bat egongo da uztailaren 5ean: Mirua taldearena, Lazarragan. Maitane Iruiñ eta Malentxo eta Mattin Zeberio anai-arrebak dira taldeko kideak.

## 2023ko Kalean egitaraua

Sei emanaldi-ikuskizun iragarri dituzte, ekainetik irailera bitartean.

**Uztailak 5, eguaztena**
**19:00** Lazarraga loratPegian: Mirua hirukotearen emanaldia. Maitane Iruiñek eta Malentxo eta Mattin Zeberio anai-arrebek osatzen dute taldea.

**Uztailak 12, eguaztena**
**19:00** Lazarraga lorategian: Sara Azurza bakarlari donostiarra.

**Uztailak 19, eguaztena**
**19:00** San Lorentzo ermitaren aurrean: D'Capricho taldea.

**Uztailak 26, eguaztena**
**19:00** Lazarraga lorategian: *Belar Hostoak* emanaldia. Walt Whitman poeta estatubatuarra gogoratuko dute.

**Irailak 2, domeka**
**19:00** Errementari plazan: Hortzmuga taldearen *Agurea,* urpekaria eta itsasoa ikuskizuna.



PILOTA SAILA

## Pilota sailak baditu irabazleak

Anje Gezalagak, Aner Mugarzak, Jon Guridik, Manex Cristobalek, Mikel Egurbidek, Liher Errastik, Joanes Osesek, Uxue Osesek eta Iñaki Barrenak eta Mikel Ugartek irabazi zituzten Zubikoan jokatutako finalak. Ostean, denboraldiari bukaera emateko, luntxa egin zuten pilota saileko jokalariek, gurasoek eta arduradunek.

## Boga tabernaren 28. urteurreneko ospakizunak

*25+3.* urteurrenean murgilduko dira buru-belarri Boga tabernakoak zapatuan. Pandemiak errotik moztu zituen 25. urteurreneko ospakizunak, eta orain berreskuratu dituzte: bazkari erraldoia eta hainbat musika talderen kontzertuak egingo dituzte.

Tabernaren kanpoaldean egingo duten bazkarian 220 bat lagun elkartuko dira. "Lagun mordoa etorriko da bazkaltzera. Polita izango da", esan du Bogako Iker Palacinek. Bazkalostearen ostean, musikaz gozatzeko aukera egongo da. Motz, Larru, Inguma, Hiru Handiak eta Osaba Kimu taldeak igoko dira oholtza gainera.

## Zabalik da igeriketako eta ur jardueretako izen-ematea

Uztailaren 5era arte eman behar da izena 2023-2024ko ikasturteko igeriketa ikastaroetan, helduen ikastaroetan eta ur-jardueretan parte hartu ahal izateko. Kiroldegiaren webgunean edo harreran egin behar da inskripzioa. Ostean, gehienezko kopurua gainditu den taldeetan parte-hartzaileak zozketa bidez aukeratuko dituzte.

Umeendako igeriketa ikastaroetan adinaren araberako mailakatzea egingo dute: 6 eta 36 hilabete artekoak, batetik, eta 3 urtetik gorakoak, bestetik.

2023-2024ko ikasturterako igeriketa ekintzak guztiak urriaren 18an hasiko dira, San Migel jaiak pasa ostean.

## Ziklismoari buruzko erakusketa ikusgai, domekara arte

Frantziako Tourra Oñatitik pasako den aitzakiarekin ziklismoaren gaineko erakusketa ipini du Oñatiko Zeka elkarteak. Txirrindularitza oinarri duten 100 bat zigilu ipini dituzte; besteak beste, 1953ko Munduko Ziklo-kros Txapelketa Oñatin jokatu zenean egindakoa. Arratsaldez dago ikusgai, 18:00etatik 20:00etara.



Bi ikusle, erakusketa gelan. O. ELORZA

# PIZTU GOIENA TELEBISTA JAIETAN



## ANBOTOKO MARIREN JAITSIERA

**GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN**
EKAINAREN 30EAN, EGUBAKOITZA, 18:45EAN HASITA
**ZUZENEKO EMANALDIA ARAMAIOKO PLAZATIK**
**'HEMEN DEBAGOIENA', JAIETAN**

ZUZENEKOA





## SANPEDROAK ETA FERIXA NAGUSIKO JAIAK

**GOIENA TELEBISTA**
UZTAILAREN 3AN, 18:00/20:00 ETA 22:00
**'HEMEN DEBAGOIENA'**



## SAN MARTIN JAIAK

**GOIENA TELEBISTAN ETA 'GOIENA.EUS'-EN**
UZTAILAREN 4AN, 18:00/20:00 ETA 22:00
**'HEMEN DEBAGOIENA'**



## ESKORIATZAKO, ELGETAKO ETA ARAMAIOKO JAIAK

**GOIENA TELEBISTAN**
UZTAILAREN 5EAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN
**AITOR AGIRIANOK, OIHAN LOITIK ETA ANDREA GONZALEZEK AURKEZTUTAKO 'JAIAK' SAIO BEREZIA**

DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.

# Frantziako Tourra iritsi da

2023ko Frantziako Tourreko bigarren etapa Debagoienetik pasako da uztailaren 2an. Bailarara Aramaiotik sartuko da, Arrasate zeharkatuko du eta Oñatiko Udana mendatetik irten. Ekitaldi horren harira, herri horietan trafiko mozketak egongo dira

**Oier Zumarraga** ARRASATE

Txirrindulariak uztailaren 2ko etapan murgilduko dira bailaran. 209 kilometro izango dituen etapa Gasteizen hasi eta Donostian amaituko da. Bost mendate pasatu beharko dituzte ibilbidean zehar: Udana, Aztiria, Alkiza, Gurutze eta Jaizkibel. Eskualdera Aramaioko Kruzeta mendatetik sartuko da, eta amaierarako 160 kilometro inguru faltako dira oraindik. Arrasate pasatu eta Oñatirainoko bidean ordekan egingo dituzte kilometro guztiak. Udanan gora, lasterketak agur esango dio eskualdeari, helmugatik 130 kilometrora.

Txirrindulariak baino bi ordu lehenago karabana pasako da ibilbide osoan. Haiek ikusleak girotzeaz arduratuko dira eta ikusleei opariak jaurtiko dizkiete kamioietatik eta; lasterketa aurreko egonaldia arinagoa izateko, lasterketaren babesleek, besteak beste, arropa, giltzariak eta barratxo energetikoak opariituko dituzte. Haiekin batera, informazio-autoak, anbulantziak, babesleen autoak eta polizia-agenteak ere pasako dira. Horrenbestez, karabana pasatu ondoren errepidean arreta jartzea eskatu dute antolatzaileek, arazoak saihesteko.

### Ibilbidea eta ordutegia

Txirrindulariak ibilbideko puntu bakoitzetik zein ordutan igaroko diren aurreikusten duen taularen arabera, Kruzetatik 13:30 inguruan pasatuko dira, Aramaiotik 13:40an, Arrasatetik 13:50ean, Zubillagatik 14:00etan, Oñatitik 14:10en bueltan eta, azkenik, Udanako mendatetik 14:20an igaroko dira. Edozelan ere, lasterketaren batez besteko abiadurak baldintzatuko du ordutegia. Lasterketa 12:15ean hasiko da, Gasteizen, eta aurreikuspena da lehen txirrindulariak 17:04 inguruan iristea Donostiako helmugara.

### Aldaketak trafikoan

Frantziako Tourrak bailaran zapalduko duen lehen herria Aramaio izango da; zehazki, A-2620 errepidea. Horretarako, 10:30 inguruan errepide hori itxi egingo dute. Behin txirrindulariak pasatakoan, azken autoarekin batera berriz zabalduko dute bidea. Gainera, herrian San Martin jaiak ospatzen ibiliko dira.

Arrasaten ibilbideak hartzen dituen kaleak trafikoari eta oinezkoei moztuta egongo dira 10:15etik aurrera. Martxoaren 8 kalea eta Arrasate pasealekua –Udala plazatik Gipuzkoako Foruen plazaraino– ere itxi egingo dira. Bestalde, 2023ko uztailaren 1eko 14:00etatik aurrera debekatu egingo da ibilbidean zehar aparkatzea. Uribarri etorbidean –osoa–, Zarugalde kalean –Udala plazako biribilgunetik Muzibarko biribilguneraino–, Otalora Lizentziaduna kalean –osoa– eta Gipuzkoa etorbidean –osoa– aparkaturik dauden ibilgailuak eraman egingo dituztela ohartarazi du udalak. Arrasaten egun horietan kale haueetan aparkatzea gomendatzen da: Loramendi kalea, Erguinarro kalea, Markuleteko industrialdea, Zubikoa kalea, Bidekurtzeta kalea, Osiñaga kalea eta Etxagibel Notarioa kalea. Gainera, egun horietan oporretan egon daitezkeen herritarrei ibilgailuak kale horietan aparkatzeko gomendatzen diete.

Arrasatetik Oñatira joango da Tourra. 10:00etatik 15:30era herriko bi sarbideak itxita egongo dira: Elorregi eta Udana. Zubillaga auzoa barrutik pasako du tropelak Elorregitik Oñatirako bidean, eta ibilbidean zehar dauden aparkaleku guztiek libre egon beharko dute uztailaren 1eko, zapaturako, 20:00ak baino lehenago. Libratu beharreko leku guztietan seinaleak jarriko dituzte hiru egun lehenago. Bestalde, lasterketaren bidea ezingo da autoz, bizikletaz edo oinez zeharkatu, eta edozein irteera edo sarrera udaltzainez, ertzainez edo boluntarioz zainduta egongo da, ibilbidean inor sar ez dadin. Lurraldebus autobus zerbitzurik ere ez da egongo. Hala ere, anbulatorioan gutxieneko zerbitzuak izango dira.

**AHAL DEN HEINEAN AUTOA EZ ERABILTZEA GOMENDATZEN DA, BAITA IBILBIDERA DENBORAZ IRISTEA**

**TXIRRINDULARIEN AURRETIK PASAKO DEN KARABANAK OPARIAK BANATUKO DIZKIE IKUSLEEI**

## Domekako etaparen profila

ITURRIA: TDF




## Ibilbide-ordutegia

ITURRIA: TDF

| Ibilbidea | Kilometroak | | | Ordutegia | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Helmugara | Irteeratik | Karabana | 45 km/h | 43 km/h | 41km/h |
| GASTEIZ | 208,9 | 0 | 10:15 | 12:15 | 12:15 | 12:15 |
| LEGUTIO | 168,3 | 40,6 | 11:24 | 13:19 | 13:22 | 13:24 |
| KRUZETA | 159,6 | 49,3 | 11:37 | 13:31 | 13:34 | 13:37 |
| ARAMAIO | 155 | 53,9 | 11:44 | 13:37 | 13:40 | 13:44 |
| GESALIBAR | 150,9 | 58 | 11:50 | 13:42 | 13:46 | 13:50 |
| ARRASATE | 148 | 60,9 | 11:54 | 13:46 | 13:50 | 13:54 |
| ZUBILLAGA | 140,5 | 68,4 | 12:05 | 13:56 | 14:00 | 14:05 |
| GARIBAI | 138,3 | 70,6 | 12:08 | 13:59 | 14:03 | 14:08 |
| OÑATI | 135 | 73,9 | 12:13 | 14:04 | 14:08 | 14:13 |
| OLABARRIETA | 132,9 | 76 | 12:16 | 14:06 | 14:11 | 14:16 |
| UDANA | 127,6 | 81,3 | 12:24 | 14:13 | 14:18 | 14:24 |
| AZTIRIA | 121,3 | 87,6 | 12:33 | 14:22 | 14:27 | 14:33 |
| ALKIZA | 68 | 140,9 | 13:51 | 15:33 | 15:41 | 15:51 |
| JAIZKIBEL | 16,5 | 192,4 | 15:06 | 16:41 | 16:53 | 17:06 |
| DONOSTIA | 0 | 208,9 | 15:31 | 17:04 | 17:16 | 17:31 |

**Antolatzaileen aholkuak**

Herritarrei autoa ahal den heinean ez erabiltzeko gomendatu diete, eta, horren ordez, oinez edo bizikletaz mugitzeko. Bestalde, ibilbidera garaiz iristea eta arazoak badira pazientzia izatea eskatu dute. Gainera, antolakuntzaren, erakundeen eta udaltzainen agindu eta gomendioak errespetatzea eskatu dute.

Lasterketa egunera begira, antolatzaileek ikusleei eskatu diete beti bazterbidean egoteko. Horrez gain, errepidea inoiz ez zeharkatzea eta haurrak une oro gainbegiratzea eskatu dute. Azkenik, txirrindularien ondoan korrika eta bultza egitea debekatua dagoela gogorarazi dute, baita lasterketan *selfie*-ak eta autografoak eskatzea ere.

Bidegurutzeetan boluntarioak egongo dira, segurtasuna bermatzeko. Sartu-irtenak kontrolatzeaz eta ikusleak leku seguruetan kokatzeaz arduratuko dira. Aitor Atorrasagasti Aloña Mendiko txirrindularitza saileko presidenteak aitortu du boluntario-lanak egingo dituen jendea batzea oso zaila izan dela: "Kostata aurkitu ditugu; jendea ez dago prest bost ordu musu-truk lan egiteko". Bestalde, taldeko presidenteak egun hori bizikleta martxa bat egiteko baliatuko dutela adierazi du. Talde osoko kideak batera joango dira Oñatin zehar, eta Mikel Lizarraldek antolatutako txokoan bukatzeko asmoa dute. Haren hitzetan, denboraldia amaitzeko modu "biribila" da.

**GURE ESKUK ERREPIDE IZKINETAN IKURRINAK ERAKUSTEKO DEI EGIN DIE HERRITARREI**

# "Udana mendatean giro aparta egotea espero dut"

**MIKEL LIZARRALDE** FRANTZIAKO TOURRAREN JARRAITZAILEA

Debagoiendarrek harrera beroa egingo diote munduan jarraipen mediatiko handiena duen hirugarren kirol ekitaldiari. Bereziki Udanako mendateko bide bazterrak jendez lepo egotea espero da, eta han izango da Mikel Lizarralde. Egitarau luze eta aberatsa prestatu dute egun historiko horren harira.

**Zenbat urte daramatzazu Frantziako Tourra bertatik bertara ikusten?**

Aurtengoa Tourra bertatik bertara jarraian ikusiko dudan 33. aldia izango da. Izan ere, ez nau aspertzen. Alegia, beste horrenbeste egingo nituzke.

**Nola sentitu zinen Tourra herritik pasako zela jakitean?**

Albistea jaso nuenean sinestezina izan zen. Mundu hau gustuko dugunontzat oso momentu hunkigarria izango da. Sekula ez nuen pentsatuko hau pasako zenik.

**Lasterketa non ikusteko asmoa daukazu?**

Udanako mendatean ikusiko dugu; oso polita izango da. Txoko polit bat prestatzen gabiltza igandean lasterketa eroso ikusteko. Izan ere, Oñati txirrindulari asko eta afizio handia dagoen herria da. Jendea oso gogotsu ikusten dut, eta, lasterketa herritik bertatik igarotzen denez, hantxe biziko den giroaz gozatu nahi dut.



MIREIA BIKUÑA

**"KIROL HAU GUSTUKO DUGUNONTZAT OSO MOMENTU HUNKIGARRIA ETA POLITA IZANGO DA"**

**Nolako harrera egingo diozue lasterketari?**

Ospakizunei larunbatean ekingo diegu, trikitilariekin batera. Kalejiran ibiliko gara; asko gustatzen zaigu denak batera kantuan eta dantzan ibiltzea. Ondoren, lagun-taldeko kideek afaria egingo dugu igandeko hitzordu historikora begira. Gaua Udanan bertan egingo dugu, han prestatutako kanpalekuan. Igandera begira, txalo eta animo artean jasoko ditugu txirrindulariak. Lasterketa osterako, paella erraldoia prestatuko dugu bertaratutakoentzat.

**Zenbat pertsona bilduko zarete?**

200-300 pertsona egotea aurreikusten dugu. Dena dela, etorri nahi duen jende ororentzat ateak zabalik ditugu. Hemen denak dira ongietorriak. Larunbat gauean batzuek kanpin-dendetan lo egingo dute, beste batzuek autokarabanetan, eta gainontzekoek etxera bueltatu beharko dute. Seguru nago ondo pasatuko dugula.

**Frantziara ere joango zara?**

Bai, noski, oso gogotsu nago. Ekitaldi honek merezi du. Herrian lasterketa ikusteak beste xarma bat dauka, baina Frantzia aldean egoten den parafernalia izugarria da. Txirrindularitzarekiko grina nabaria da bazter guztietan, eta zirraragarria da txirrindulariak hain gertutik ikustea. Jende asko mobilizatzen du Frantziako Tourrak.

**Zuk zeuk nola bizi izaten duzu Tourra?**

Esperientzia paregabea da: eliteko txirrindularitzaren pasioan eta emozioan murgiltzen zaitu, kirolarien mailaren eta sakrifizioaren lekuko izateko aukera ematen dizu eta komunitate ederra sortzen da. Ospakizun-giroa da nagusi, eta zaleek korrikalariak txalotzen eta animatzen dituzte euren esfortzuagatik eta ausardiagatik. Emozioa eta zalaparta izaten dira nagusi, batik bat, tropela gerturatu ahala. Adin guztietako zaleak bertan ikusteak oilo-ipurdia jartzen dit. Gazteenetik zale beteranoetaraino. Denak batera animatzen.

**Gure Eskuren aldarria**

Gure Esku Tourrak duen nazioarteko oihartzuna baliatuko du Euskal Herria nazioartean proiektatzeko. Horretarako, ekimen mordoxka antolatu ditu. Horren harira, Arrasaten eta Oñatin lasterketa egunean errepide bazterretara ikurrinarekin ateratzeko dei egin dute. Arrasateko Udalak 100 ikurrin banatuko ditu herritarren artean, balkoietan jar ditzaten.

Bestalde, Frantziako Tourra aitzakia hartuta, txirrindularitzari buruzko seilu erakusketa zabaldu dute Oñatiko kultura etxean. Erakusketa domeka iluntzera arte egongo da ikusgai, Oñatiko kultura etxeko erakusketa gelan, egunero, 18:00etatik 20:00etara. Bizikleta sortu zenetik ze garapen izan duen, Olinpiar Jokoetan izan duen presentzia eta itzuli handiak daude ordezkatuta seilu horietan, hala nola Tourra, Giroa, Vuelta, Paris-Roubaix klasikoa eta abar.

**Etapa garaipenaren lehian**

Ez da batere ohikoa Tourreko lehen etapetan hain aldats gogorrak izatea, eta domekakoan Jaizkibelgo zortzi kilometroak erabakigarriak izango dira; litekeena da talde txiki bat iristea helmugara.

Hala ere, ez bada ihesaldiren bat iristen, etapa garaipenaren lehian ibiliko dira Pogacar, Pidcock, Van Aert, Alaphilippe, Van der Poel... eta, zergatik ez, Aranburu eta Bilbao.

**"BOLUNTARIOAK BILATZEA KOSTATU ZAIGU; ESKERTZEKOA DA HAIEN LANA"**

AITOR ATORRASAGASTI



# Frantziako Tourraren handitasuna barrutik bizi izan dutenekin berbetan

Jesus Aranzabal, Enrique Alonso, Jon Odriozola, Ivan Velasco eta Markel Irizar dira Tourrean lehiatu diren ibarreko bost ziklistak. Hango bizipenak errepasatu dituzte

**Xabier Urzelai** ARRASATE

Esaera berezi batek dio Eliseoetara iristeak ematen duela benetan txirrindulari-txartela, eta bost lagun horiek badakite hiru astez egurrean ibili eta gero zer den azken etapan Parisko kaleetan barrena tropelean *hegan* joatea, burua eskulekuan sartuta, eta urrunean Eiffel dorrea ikustea. Akaso, ez da izango denen lasterketa gustukoena; Irizarrek eta Velascok sarritan nabarmendu izan dute gurago dutela Italiako Giroa, baina denak datoz gauza batean: Frantziako Tourra munduko lasterketa handiena da.

**Batzuk ikusle, besteak lanean**

Bada, Tourra bost protagonista horien etxe ondotik pasako da domekan. Txirrindularitzan erreferentziazko lekua duen Jesus Aranzabalek dio etxetik ikusiko duela gustura: "Mokorretik ebakuntza egin berri didate, eta, Tourra ikustera askotan joan naizenez, badakit zer-nolako *mobida* egoten den.

## "Merckx gu baino bi koska gorago zegoen beti"

**JESUS ARANZABAL** TOURRAK: 1966 / 1967 / 1972

1966ko Frantziako Tourra 130 ziklistak hasi zuten. Edizio hartan txirrindulariek 4.329 kilometro egin zituzten 22 etapatan, eta helmugara 82 txirrindulari baino ez ziren iritsi. Lasterketa amaitu zuenetako bat izan zen Jesus Aranzabal (Angiozar, 1939). "Sasoi hartan Frantziako Tourrera joatea zen mendi gailur altuena igotzea bezala, ez zegoen gauza handiagorik", dio bergararrak. Bistan da 60 urtean gauzak ez direla askorik aldatu. Hain zuzen, Aranzabalek esku hartu zuen lehenengo Frantziako Tour hartan, 1966koan, egin zituzten lehenengoz dopin-kontrolak. Bergarakoak ondo gogoan du sortu zen iskanbila. "Txirrindulariak haserretu egin ginen, eta hurrengo egunean greba moduko bat egitea zen asmoa. Baina Frantziako Tourreko arduradunak beti izan dira oso serioak; han ez dago bromarik. Zuzendariak hurrengo goizean etaparen hasiera adierazi zuenean, autoa hartu eta aurrera egin zuen atzera begiratu gabe, eta txirrindulari guztiak joan ginen atzetik". Lauzpabost egunera, sei txirrindularik positibo eman zuten. Angiozarkoa behin baino gehiagotan izan zen Tourrean etapa irabazteko puntuan, baina ez zuen helburua lortu. Ez zen izan saiatu ez zelako. Bereziki, 1967ko edizioan izan zuen garaipena gertu. "Bigarren etapan bigarren izan nintzen. Bezperan, atariko erlojupekoa Errandoneak irabazi zuen, eta hurrengo egunean hamar laguneko taldea gindoazen ihes eginda. Pare bat kilometro geratuko ziren etapa amaitzeko, eta taldeko batek [Walter Godefroot belgikarra] ihes egin zuen. Hura harrapatzen saiatu nintzen; atzean utzi nituen besteak, baina ezin izan nuen harrapatu, eta bigarren egin nuen". Egun batzuk geroago, zortzigarren etapan, Estrasburgon hasi eta Ballon d'Alsace-n amaitzen zen 215 kilometroko etapan, balentria egiten saiatu zen Angiozarkoa: "60-80 kilometro inguru egin nituen ihes eginda, baina etapa amaitzeko lau kilometroren faltan harrapatu ninduten. Hura izan zen Tourrean izan dudan atsekabe handiena, garaipena gertu ikusi nuen eta".


Jesus Aranzabal, etxeko egongelan, Bergaran. X.U.

Gaur egungo txirrindularitzarekin alderatuta ordukoak zerikusirik ez duela nabarmendu du Aranzabalek. "Hasteko, gaur egun ziklistei dominak zintzilikatzen dizkiete lepotik, eta guk *abrelatasak* eramaten genituen", dio, barrez. "Anoa-postu mordoa izaten dituzte gaur egun, eta jateko eta edateko bereziak. Gure sasoian, ibilbidean zehar atrakuak egiten genituen; alegia, edozein taberna edo dendatara sartu, ahal genuena hartu eta ospa egiten genuen. Normalean, tabernariek

**TOURRA DEBAGOIENEAN**

GOIENA TELEBISTAN 'HARMAILATIK' SAIOAN

UZTAILAREN 3AN, ASTELEHENA, 21:30EAN ETA 23:30EAN

DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.



Ez daukat horrela ibiltzeko adinik, etxean ikusiko dut lasai". Enrique Alonsok ere garbi dauka lasterketa ondo telebistan ikusten dela: "Akaso, azken momentuan lagunen baten gonbidapena onartu eta auto barrutik ikusiko dut etapa, baina ziklismoa ikusi nahi duenak etxean du aukera onena. Bide bazterrean egiten dena da giroaz gozatu". Odriozolak ez dauka etxean geratzeko asmorik, baina jendetza artean ibiltzeko gogo handirik ere ez dauka. "Irtengo naiz bide bazterrera, bai noski, baina leku lasairen bat aukeratuko dut, eta, gero, etxetik jarraituko dugu etapa.

Velascorendako eta Irizarrendako, berriz, laneguna izango da, zuzendari lanetan ibiliko dira-eta lasterketan. "Scouting-eko autoan joango naiz, egun horretan ez dut zuzendarien autoan joan nahi, hor lasterketara lotuta zoazelako. Aurretik joan nahi dut, lasaiago, eta errepide bazterrean egongo den giroaz gozatu", dio Irizarrek.



1970ean pasa zen Fagor-etik Frantziako Bic taldera. SERGE JANSENS

edo dendariek ematen zizkiguten jatekoak edo edatekoak; garagardoa mailloteko poltsikoan sartu eta *abrelatasak* jartzen zizkiguten lepoan". Aranzabalek garbi dauka aurtengo Tourrera begira bi faborito garbi daudela, UAE Team taldeko Tadej Pogacar eta Jumbo Vismako Jonas Vingegaard. Bost hamarkada atzera egiten baditugu, berriz, izen bakarra nabarmentzen da, Eddy Merckx. "Tour bakarra egin nuen harekin tropelean, 1972koa [56. amaitu zuen]. Eddy Merckxek erakutsi zuen besteok baino pare bat koska gorago zegoela. Errepidean ez zen inoiz konformatzen, baina, gero, tratu pertsonalean oso adeitsua zen; izan ere, oroitzapen ona daukat".

**"TOURREAN BETI IZAN DIRA OSO SERIOAK, HAN ZIKLISTEN PROTESTEK GUTXIRAKO BALIO ZUTEN"**



Enrique Alonso, Monterron parkean. M.B.M.

# "Txapeldunen Liga da Frantziako Tourra"

**ENRIQUE ALONSO** TOURRA: 1992

Olinpiar Jokoak Bartzelonan jokatu ziren urtean, 1992an, Frantziako Tourra Donostian hasi zen. Atarikoa eta lehenengo etapa Donostian hasi eta han bukatu ziren. Hirugarrenean Paue aldera hartu zuen tropelak. 22 taldek hartu zuten parte. Haietako bat, Sean Kelly lider zuen Festina taldea. 182 dortsalarekin parte hartu zuen Enrique Alonso arrasatearrak. 27 urterekin egin zuen Tourra, eta sailkapen orokorrean 31. lekuan bukatu . "Tourraz berba egitea nire gaztarora itzultzea da, kirolari gisa. Esan ohi da txirrindulariak ez duela profesional-txartela lortzen Tour bat egiten duen arte. Bada, nik txartela atera nuela esan dezaket", esan du. Era berean, harro esan dezake Donostian hasi zen Tourra hasi eta bukatu egin zuela.

Indurainek irabazi zuen 1992koa. "Asko miresten dut. Alde batetik, harekin harremana dudalako, baina, bereziki, lehiatzen ikusi dudalako. Hamarrekoa zen errepidean, eta errepidetik kanpo", dio.



Alonso, Txomin Perurenarekin, Donostian. E.A.

**Azken etapako kantua**

Indurainekin batera Claudio Chiapucci eta Gianni Bugno igo ziren Parisko Eliseoko Zelaietako podiumera. Hiru asteko proba batek izaten dituen gorabehera guztiekin, Parisera heldu izanak oroitzapen ederra utzi dio arrasatearrari: "Hunkigarria izan zen Eliseoko Zelaietara iristea. Orduko hartan, azken etapan, *O, Eliseo Zelaiak* kantua abesten zen. Nik abestu nuen, eta polita izan zen. Gazteek ez dute gogoratuko. Egun, ez da abesten".

**Kritikak**

Adituek eta proba egin izan duten ziklistek diote munduko probarik "onena" dela. Alonso ados dago. “Ziklismoaren Txapeldunen Liga da, eta hor onenak egoten dira". Kritikoa ere bada: "Prentsaurrekoak, lekualdaketak... Gauza asko kendu edo aldatuko nituzke".

**"MIGUEL INDURAINEK MARKATU NINDUEN, LEHIATZEKO ZUEN MODUAGATIK"**





Ivan Velasco, etxeko egongelan. X.U.

# "Tourra lehiatzen nenbilela jaio zen Nora"

**IVAN VELASCO** TOURRAK: 2010 / 2011

Ivan Velascok (Arrasate, 1980) Tourreko bi edizio egin zituen Euskaltel-Euskadi taldearekin, baina bigarrenean ez zen Eliseoetara iritsi, zortzigarren etapan erorikoa izan eta lepauztaia apurtu zuelako. Lehenengo edizioa ere ez zuen nahi moduan gozatu, errepidean Samuel Sanchezen interesak defendatzen ondo ibili arren burua beste nonbait zeukalako, eta bazuen horretarako motiborik: "Gure alaba Norak abuztuan jaio behar zuen, baina bost astez aurreratu zen eta ni Tourrean nengoela etorri zen mundura. Gogoan dut jaio zenean telefonoan egin nuela gaua, ez nuen batere lorik egin. Anekdota ona da, baina momentuan gogorra izan zen hiru astez alaba jaioberria ikusi gabe egotea. Goienan albistea egin zenuten horrekin, eta alabak oraindik gordeta dauka".

**Tentsio galanta hasieratik**

Velascok egin zuen lehenengo Tourra, 2010ekoa, Rotterdamen hasi zuten, eta Arrasatekoak ez zuen denbora askorik behar izan jabetzeko hura beste kontu bat dela. "Atariko etapa erlojupekoa izan zen, Rotterdamen [Fabian Cancellara jarri zen lider], baina hurrengo etapan jabetu nintzen zer zen Tourreko irteera puntuan egotea". Rotterdam eta Brusela artean ziklistek 220 kilometro egin behar zituzten, eta lehenengo kilometroak neutralizatuak ziren. "Neutralizatuak izango ziren, baina gogoan dut aurrealdean hasi nuela etapa eta, konturatu orduko, tropelaren atzealdean nengoela. Lasterketa hasi baino ez zen egin eta jendea ukondoak sartzen zebilen: alde batera begiratzen nuen eta Andy Schleck ukondoak sartzen, beste aldera begiratu eta Frank Schleck berdin. Han esan nuen: zer demontre da hau?".

Tourreko etapetan bizi izaten den tentsioa ez dago beste inon, ezta Pirinioetan egoten den giroa ere. "Gehien gozatu nuen egunetako bat izan zen Tourmaleten amaitu zen etapa. Andy Schleck eta Contador egurrean ibili ziren azken mendate hartan, eta gogoan dut Samuk erorikoa izan zuela baina aurrera etortzen lagundu geniola. Gainera, lagunak etapa ikustera joan ziren. Sekulako giroa egon zen egun hartan, eta gozatu egin nuen, bai".

**"TOURMALETEN ANDY SCHLECK ETA CONTADOR EGURREAN IBILI ZIREN EGUN HARTAN GOZATU NUEN"**

Velascok onartzen du orain ziklista zenean baino gehiago gozatzen duela taldekideek lortzen duten garaipen bakoitzarekin. "Beste modu batean bizi dut dena, gehiago gozatzen dut, eta baita ziklistekin gehiago sufritu ere. Auto barruan batzuetan beldurra ere pasatzen dut eurak ikusita".



Velasco eta Irizar, 2011ko Tourrera abiatu aurretik, *Goienkaria*-n. X.U.



Markel Irizar, Etxezuriko atartean. X.U.

# "Tourreko estresa ez da beste inon egoten"

**MARKEL IRIZAR** TOURRAK: 2011 / 2013 / 2014 / 2015 / 2016 / 2017

Markel Irizar (Oñati, 1980) da Tour gehien egin dituen debagoiendarra: sei, guztira. "Ni baldin banaiz gehien egin dituena, konponduta gaude", dio, barrez. Oñatikoak iparreko klasikoak izaten zituen bereziki gorriz markatuta, baina bistan dago hiru asteko itzulietan ere egiten zuela talde-gizon moduan ekarpena, guztira 19 itzuli handi amaitu zituen eta. “Bereziki, 2014ko Tourrean ibili nintzen ondo, inoizko sasoi onenean nengoen eta taldean ekarpen polita egin ahal izan nuen. Haimarrek [Zubeldia] seigarren egin zuen urte hartan, eta momentu kritikoak gainditzeko, haize askoko etapetan eta halakoetan, hanka onak izan nituen". Itzuli handietan lider ezagunen interesak defendatzea tokatu izan zaio oñatiarrari; esaterako, Fabian Cancellararen, Alberto Contadorren eta Andy Schlecken bizkarrak zaindu ditu. "Oso ezberdinak dira. Contador oso tipo gogorra da, inoiz ez zuen bere buruarekin zalantzarik izaten. Cancellararen kasuan, izugarria zen ze indar zeukan hanketan; taldeak zituen gabezia batzuk hark bakarrik estaltzen zituen, zeukan talentuarekin. Harreman estuena, berriz, Andyrekin izan nuen. Izan ere, besteek euren etxeraino sartzen utzi zidaten, baina Andyk sukaldeko ateak zabaldu zizkidan".

Oñatikoak aitortzen du Frantziako Tourrean ez duela aparteko makalaldirik izan, egun gogorragoak bizi izan dituela Giroan. Baina ez du ahazten 2015ean taldeko lider Cancellara eroriko baten ondorioz etxera joan zenean zer-nolako hutsunea utzi zuen taldean. "Huy-n izan zen; jende mordoa joan zen lurrera, eta Fabianek hasieratik esan zidan hilabete batzuk lehenago Flandriako Tourrean izan zuen erorikoan sentitu zuen berbera sentitu zuela, ornoren bat hautsita zeukala. Nik ezetz esaten nion, aurrera egin behar genuela, eta zuzendariak autotik esaten zidan Fabiani goxo berba egiteko, animatzeko. Helmugaraino iritsi ginen, baina arrazoi zuen, orno bat hautsi zuen, eta etxerako bidea hartu zuen lider zegoela, gainera".

**"TOURRA NEGOZIO MODUAN IKUSI IZAN DUT BETI; ITALIAKO GIROAK, BERRIZ, BESTE XARMA BAT DU"**

**Londres, itogarri**

2014ko Tourra Ingalaterran hasi zuten, eta hirugarren etapa Londresen amaitzen zen. "Gogoan dut sekulako jendetza zegoela. Itogarria zen dena; etapa aurretik batzarra egiten dugu, eta autobusera iristen nahikoa lan izan genuen. Gogoan dut txiza egin nahi genuela, eta ez zegoela non geratu. Jendaurrean egiten badugu, zigorra jasotzen dugu, eta jenderik ez dagoen lekuetan geratzen gara. Baina han ez zegoen metro bakar bat jende barik. Hori da Tourra".

# "Baneston urteko prestaketa osoa Tourrari begira egiten genuen"

**JON ODRIOZOLA** TOURRAK: 1997 / 1999 / 2000 / 2001

Etapaka egiten den hiru asteko edozein probak zailtasun eta une gogor asko izaten ditu. Gorabehera handiko probak izaten dira. Baina egunerokoak berak sorrarazten dituen momentu gaziei min hartuta egotea gehitzen bazaie, sufrikarioa hazi egiten da. Horixe gertatu zitzaion Jon Odriozola oñatiarrari 1999an. Bigarren Tourra zen. Baina aste batzuk lehenago Kordoban jokatu zen Espainiako Txapelketan erorikoa izan zuen, eta saihets bat apurtu zen. "Erradiografia bat egin zidaten Tourra hasi eta segituan; haustura ikusten zen. Tourra uzteko esan zidaten, baina geratzea erabaki nuen. Gauetan ia lo egin barik eta asko sufritzen, baina Parisera heldu nintzen; lan ona egin nuen. Hori da, zalantza barik, Tourretik daukadan oroipen txarrena", gogoan du.

**Eliseoko Zelaiak**

Italiako Batik taldearekin jokatu zuen lehen Tourra Odriozolak, 1997an. Eugeni Berzin zen taldeko liderra. Ez zen Tour ona izan Batik taldearentzat, baina Jon Odriozolak oroitzapen onenak gordetzen ditu. "Berzin erretiratu egin zen, eta gidari barik geratu ginen. Nicola Minallik bi etapa irabazi zituen, eta bigarrena, Parisen, Eliseoko Zelaietan. Baina, oztopoak oztopo, nik lan ona egin nuen. Taldeko gazteena izan arren, etapa askotan lehian egon nintzen, aurreko lekuetan. Parisera heltzea ikaragarria izan zen. Are gehiago, Minallik irabazita. Txirrindulari-txartela atera nuen orduan", gogoratzen du, irribarre batekin.

**Zulleren gelakide**

Lehen Tour haren ostean, Banestok fitxatu zuen txirrindulari oñatiarra, eta maillot harekin egin zituen beste hiru: 1999koa, 2000koa eta 2001ekoa. 1999koa Lance Armstrongek irabazi zuen, eta, dopinaren kontrako kontrol batean positibo eman arren, ez zuten probatik kanporatu. Bestela, Alex Zullek irabaziko zukeen proba. Hain justu ere, Tour hartan, Zulleren gelakide, lagun eta psikologo izan zen Odriozola. "Zalantza asko zituen txirrindularia zen, eta askotan egin behar izan nuen psikologo lana harekin. Hura zen liderra eta ni taldekidea, baina oso harreman berezia genuen. Are gehiago, hotel batzuetan, logelan, ohe handi bat eta ohe txiki bat edukitzen genituen. Garai hartan, liderra asko zaintzen zen, baina, guk oheak aldatu egiten genituen. Zulle ohe txikian zegoen batean Jose Miguel Etxabarri etorri zen gure gelara, eta harrituta geratu zen. Liderra ohe txiki batean, eta ni, luze eta zabal, ohe handian".



Odriozola, Tourreko opariekin. M.B.M.

**"JOSE MIGUEL ETXABARRIK ESATEN ZIGUN TOURREAN EGINDAKO LANAK IPINTZEN ZIOLA NOTA DENBORALDI OSOARI"**

**Tourra, bakarra**

Banesto egin zituen sei denboraldietan Tourra zen denboraldiko probarik garrantzitsuena. Urtero borrokatu behar izan zuten Lance Armstrongen nagusitasunaren aurka. "Garai hartan Tourra ez zen etapakako probarik onena. Proba nagusia zen. Bakarra. Jose Miguel Etxabarrik esaten zigun Tourrak ipintzen ziola nota denboraldiari. Prestaketa guztia hari begira egiten genuen. Ez zegoen ezer garrantzitsuagorik", gogoan du.

Tourrean nota ona ateratzen ez zutenek Espainiako Vueltan zuten aukera ikasturtea gainditzeko, eta Odriozolak maila ona eman du beti irailean. "Sasoi puntuan heltzen nintzen Vueltara".

**Klasikoen indarra**

Dena den, aitortzen du gauzak dezente aldatu direla azken urteetan. Bereziki, Tourrak berak antolatzen dituen beste lasterketa batzuek indarra hartu dutela uste du. "Klasikoak indartu egin dira, eta hori oso ona da txirrindularitzarentzat. Tourrak indarra dauka oraindik, baina oso gertu ditu beste proba batzuk".



Odriozola, 1997ko Tourrean, Alpe d'Huezko etapan. J. ODRIOZOLA





**Uztailak 7, egubakoitza**
Kamikaze Helmets (Madril).
Rock berezia



**Uztailak 14, egubakoitza**
Iker Piris & His Dual Electrics (Donostia, Frantzia), feat Nirek Mokar. Rhythm and bluesa



**Uztailak 21, egubakoitza**
Family Folks (Galizia).
Pop psikodelia, countrya



**Uztailak 28, egubakoitza**
Sweet Marta & Johnny Bigstone (Bartzelona).
Blues akustikoa

# Musika beltzaren menu dastagarria Espoloian

Blues, boogie, country-rock eta bestelako doinu dantzagarriekin gozatzeko apustua egin du, beste behin, Bergarako Udalak, Gaztelupeko Hotsak-ekin elkarlanean antolatzen duen Berumuga ekimenarekin, datorren asteko egubakoitzean hasita

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**
ARRASATE

Musika jaialdien boga heldu da Debagoienera, eta horren erakusle dira aurten, bosgarrenez, Arrasateko Ibai-arte merkatari elkarteak Arrasateko Udalaren laguntzarekin uztailaren 13tik 16ra egingo duten Arrasate Blues jaialdia; Bergarako Ekinez elkarteak Udalaren laguntzarekin ekainean egin zuen bigarren Ekinez jaialdia; datorren asteburuan Monterronen egingo duten Mondra&Roll jaialdia; eta Eskoriatzako Atxorrotx Kultura Elkarteak Udalarekin antolatzen duen Errekan Gora.

Bergaran badago Udalak Gaztelupeko Hotsakekin elkarlanean uztaileko egubakoitzetan puntako euskal zein nazioarteko musikariak gonbidatzen dituen Berumuga musika zikloa ere. 2000. urtean abiarazi zuten, eta aurten ere lau kontzertu izango dira, datorren astean hasita, Espoloian, 22:00etan; sarrera doakoa da.

### "Rock berezia", hasteko

Hala definitu dute antolatzaileek aurtengo Berumuga zikloa zabalduko duten eta Gabri Casanova piano-jole eta organo-joleak eta Kike Parra bateria-joleak osatzen duten Madrilgo Kamikaze Helmets bikoteak egiten duen musika. "Rock, blues eta funk emanaldietan Estatuko musikari ospetsuekin jardun duten bi musikariek osatzen dute banda hori. Urteetako eskarmentuaren ondoren, proiektu propioa sortu dute, besteak beste, Led Zeppelin, Black Keys eta White Stripes taldeen eraginarekin. Eszenaratze paregabea!", azaldu dute antolatzaileek.

### Iker Piris eta lagunak

Tolosako eskarmentu handiko musikari Iker Pirisek hartuko du lekukoa Espoloiko agertokian uztailaren 14an, rhythm and blues eta boogie doinuak eskaintzeko. "Gitarra-jolea, abeslaria eta konpositorea da eta askotariko musika proiektuetan hartu du parte. Hiruko formatuan etorriko da Bergarara, Abdell B. Bop kontrabaxu-jolearekin eta Andy Martin bateria-jolearekin, hain justu, baina laugarren musikari baten kolaborazioa ere izango dute, Nirek Mokar, Parisko piano-jotzailea. *Electra* diskoa aurkeztuko du Pirisek".

### Vigoko Family Folks

Pop, psikodelia, country, blues eta rock-and-roll kutsu handiko sustraietako musikarekin jositako ondarea "betikotzen jarraitzen duela" diote Berumugako antolatzaileek, Espoloiko agertokian uztailaren 21ean izango den Galiziako taldea aurkezteko orduan. "60ko eta 70eko hamarkadetako rock-and-roll jarrera nabarmenarekin, hamalau kantu bikain batzen dituen argitaratu berri duten *Naufrage* lana aurkeztuko dute. Bosco Hillek (ahotsa, gitarra akustikoa eta elektrikoa, banjoa eta perkusioa), Ruben Xuarezek (ahotsa, gitarra akustikoa, mandolina eta banjoa) Xabier Vieitezek (teklatuak eta koruak), Jorge Lorrek (baxua eta koruak) eta Rufus *El Guarro* bateria-joleak osatzen dute banda. Proposamen berria da, oso interesgarria; publikoa zuzenean erraz bereganatzen duen taldea da Family Folks".

### Kataluniako bikote bat

Uztaileko azken egubakoitzean borobilduko du Berumuga musika egitasmoa Marta Suñek *Sweet Marta* abeslari eta harmonika-joleak eta Johnny Pedraza *Johnny Big Stone*, abeslari eta gitarra-joleak osatzen duten bikoteak. "Egun Estatuan aritzen den blues harmonika-jole bakarra da *Sweet Marta,* eta Big Mama Thorton moduko antzinako kantari handiak dakartza gogora haren ahotsak. *Johnny Big Stone,* berriz, T-Bone Walker eta west coast estiloaren eragina duen instrumentista trebea da".

### Zutik edo jarrita entzuteko

Aurreko aldietan moduan, kontzertu guztiak 22:00etan hasiko dira eta sarrera dohainik izango da. "Aurrekoetan moduan, eserleku batzuk jarriko ditugu, ikusleek emanaldiak jarrita entzun ahal izateko, baina zutik eta dantzan jardun nahi duenak ere aukera izango du".

**DATORREN ASTEAN HASITA, BERUMUGA KONTZERTUAK IZANGO DIRA ESPOLOIAN, 22:00ETAN, DOAN**





Mondra&Roll jaialdiari buruzko podcastean parte hartu dutenak. TXOMIN MADINA

# Mondra&Roll jaialdiari buruzko irratsaio berezia

Mauka Musikagintzak, Gasteizko Jimmy Jazz aretoak eta Kataluniako HFMN Crewk, Arrasateko Udalaren laguntzarekin, antolatu dute uztailaren 7an eta 8an Monterron parkean izango den Mondra&Roll; jaialdiari buruzko saio berezia egin du Goienak

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**
ARRASATE

Iaz estreinakoz Monterron parkean egin zuten Mondra&Roll musika jaialdiak izan zuen "harrera ona" ikusita, punk, oi! eta rocka zentzu zabalean oinarri duen bigarren musika jaialdia egingo dute datorren asteburuan.

Euskal Herriko –horien artean Arrasateko Special Crew eta Arkada Social– eta nazioarteko "eskarmentu handiko formazioak izango dira egubakoitzean eta zapatuan Monterron parkeko agertokiaren gainean. "Iaz, parkearen sarreran dagoen Kondekua zelaian, Monteazpin, beste agertoki txiki bat, txosna eta saltokiak jarri genituen, baina aurten Monterron parke barruan izango dira zerbitzu guztiak. Horrez gainera, iaz ez moduan, Arruena parkean, Eroski merkataritza-gunearen alboan, furgoneta eta bestelako ibilgailuendako kanpatzeko gunea izango da", azaldu du antolatzaile taldeko kide Iker Arronizek.

### Solasaldia entzungai

Bigarren Mondra&Roll jaialdia hasteko astebete faltan, asteon audio-podcast bat grabatu dute Goienaren egoitzan dagoen Arrasate Irratiko estudioetan. Ander Monederok eta Aitziber Aranburuzabalak gidatuta eta antolatzaile taldeko Iker Arroniz eta Iker Barandiaran musikazalea gonbidatuta. Tertulia formatua duen bi orduko saioan jaialdiaren askotariko erpinak aztertu dituzte, azpiegiturarekin eta bestelako informazio praktikoarekin lotutako kontuak eta Euskal Herriko zein nazioarteko musika taldeak hitzez eta kantuen bidez aurkeztuta.

Askotariko bideak daude *Mondra&Roll podcasta* entzuteko: *Goiena. eus* atarian, Arrasate Irratian –FMko 107.7an– eta iVoox plataforma digitalean.

Podcasta entzuteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

## Eskualdeko biblioteken eskutik, 'Biblioporrak' gida berria kalean

Papereko euskarrian eta formatu digitalean dago udarako gomendioen gida biblioteketan eskuragarri

**A. A. J. Bergara**

Arrasateko, Bergarako, Aretxabaletako, Eskoriatzako, Aramaioko eta Oñatiko bibliotekek, Legazpiko liburutegiarekin elkarlanean, udarako aproposak diren liburuen, diskoen eta filmen zerrenda "gomendagarria eta berritua" argitaratu dute. Ibilbide luzea du ekimenak, –aurtengoa, 29. *Biblioporrak* gida da–, eta bibliotekek txandaka izaten dute gida osatzeko ardura; aurten, Bergarakoak.

### Paperean eta digitalean

15.000 ale argitaratu dituzte, aurten, guztira, eta dagoeneko eskuragai dago eskualdeko bibliotekan, eta udal biblioteken webgunetan formatu digitalean ere bai.

Aurreko aldietan moduan, urtean argitaratutako askotariko sormen-lanen gomendioak bost adin tartetan sailkatu dituzte: 0 urtetik gorakoentzako; 5 urtetik gorakoentzako; 8 urtetik gorakoentzako, gazteentzako eta helduentzako.

## Goienakideen txokoa

### EKAINEKO IRABAZLEAK

**KOBO NIA LIRUBU-IRAKURGAILUA**
Ramon Velez de Mendizabal Llodio (Arrasate)

**HARREMAN DENDAKO OTARREA**
Maider Elkoro Iturbe (Aretxabaleta)

**ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK**
Juan Antonio Berraondo Alberdi (Antzuola)
Maite Gastañaga Torres (Arrasate)
Imanol Garmendia Zabalo (Antzuola)

**BERGARAKO BATZOKIRAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA**
Julen Abasolo Gallastegi (Aretxabaleta)

**MAIALDE JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA**
Ainhoa Goienetxea Murgiondo (Bergara)

**ZUMELAGA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA**
Aritz Urbina Miranda (Bergara)

**EHZ FESTIBALERAKO SARRERAK**
Aiora Filarmendi Urrutia (Aretxabaleta)
Iñaki Muxika Goikoetxea (Bergara)
Jose Angel Oyanguren (Aretxabaleta)
Maria Carmen Guridi Alustiza (Bergara)
Aintzane Irizar Markuleta (Antzuola)

**SARIAK JASOTZEKO:**
**Arrikrutzeko sarrerak.** [illegible] **Harreman dendako Otarrea** [illegible] **Liburu-irakurgailua** [illegible]

### Irabazi bi lagunendako otordua

**HILARION JATETXEARI ESKER**
Begiratu *Puntua* aldizkariko Otorduan atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: uztailak 4

943 25 05 05 · goienakide@goiena.eus · 'Goiena app'-a / zozketa atalean.
GOIENAKIDE Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...



**BAZKIDETZA KUOTA: 45€**
Deitu: **943 25 05 05** • goienakide@goiena.eus

DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide

**Okm:** *batzen gaituen distantzia*

OROIGARRIA

## Iñaki Goikoetxea Agirreolea



2022ko ekainaren 29an hil zen, 85 urte zituela.

*Joan zinen gu hemen utzita baina,*
*jakin ezazu, inoiz ez zaitugula ahaztuko.*
*Beti izango zara gure bihotzetan.*

Zure familia.
Bergaran, 2023ko ekainaren 30ean.

---

OROIGARRIA

## Isidro Vicente Calvo



2023ko ekainaren 28an hil zen.

*Beti egongo zara gurekin*
*Asko maite zaitugu eta beti maiteko zaitugu*
*Ez zaitugu inoiz ahaztuko*
*Betirako*

Resu, Mireia, Jone, Gari eta Ane.
Aretxabaletan, 2023ko ekainaren 30ean.

---

OROIGARRIA

## Agurtzane Elorza Larrañaga



2023ko ekainaren 27an hil zen, 60 urte zituela.

*Gure ondotik joan zara, baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.*

Anai-arrebak eta ilobak.
Bergaran, 2023ko ekainaren 30ean.

---

OROIGARRIA

## Andoni Mujika Alberdi



*Adiorik ez, gero arte baizik.*
*Geure artean beti, Andoni.*

Mujika 'Naparra' eta Alberdi 'Satorretxe' lehengusu-lehengusinak.
Bergaran, 2023ko ekainaren 30ean.

---

OROIGARRIA

## Andoni Mujika Alberdi



*Ez agurrik, ez adiorik,*
*gero arte, Andoni.*

Almediren DBH4ko lagunak eta gurasoak.
Bergaran, 2023ko ekainaren 30ean.

---

OROIGARRIA

## Agurtzane Elorza Larrañaga



2023ko ekainaren 27an hil zen, 60 urte zituela.

*Beti izango zaitugu gure bihotzean.*

Zure kuadrilla.
Bergaran, 2023ko ekainaren 30ean.

---

OROIGARRIA

## Andoni Mujika Alberdi



2023ko ekainaren 25ean hil zen, 58 urte zituela.

*Andoni maite zendun*
*mendiko pakea,*
*hargatik pasa zendun*
*zuk oinez Elgea.*
*Baina bihotza ostu*

*heriok ordea.*
*Jota utzi gaituzu*
*gu ta bikotea.*
*Nork beteko du orain*
*zure hutsunea?*

*Bidaia on, ta txintxua izan!*

Zure lankideak.
Bergaran, 2023ko ekainaren 30ean.

---

ESKER ONA

## Andoni Mujika Alberdi



2023ko ekainaren 25ean hil zen.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi
eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Bergaran, 2023ko ekainaren 30ean.

---

ESKER ONA

## Maria Luisa Martinez De Pablo



Luis Garroren alarguna

2023ko ekainaren 27an hil zen, 79 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2023ko ekainaren 30ean.

---

# BERRI-ZAKUA





**25 urte ezkonduta**
Iñaki Madinabeitia eta Garbiñe Goñi Musakolan ezkondu ziren. "Familia osoaren partetik, zorionak, bikote!".

---

BABESLEA

Oroilore

Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

*Guri deitu zaizenean edo, nahiago baduzu, jakinarazi zuen aseguru-konpainiari gurekin nahi duzuela agurtu maite duzuena.*

*Marioren, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuentzako, bihotza sendatzeko balio duten horietakoak. Guk baditugu gordeta zuentzako, gure beharra duzuenerako.*

**Mario, Iban eta Maribi**



Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA
Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37

---

URTEURRENA

## Maria Nieves Emparanza Ezpeleta



Jose Maria Bikuñaren alarguna

2022ko uztailaren 1ean hil zen, 89 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da,
uztailaren 1ean, 19:00etan,
Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Aurrez, esker on bertaratuko zareten guztioi.
Oñatin, 2023ko ekainaren 30ean.

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



**ARAMAIOKO JAIEN HASIERA, ZUZENEAN**
Bizente Goikoetxea plazatik egingo dute saioa, zuzenean, hainbat protagonistaren laguntzarekin, Larraitz Zeberiok aurkeztuta.
*'**Bereziak**' Egubakoitza, 18:45*



**ESKORIATZAKO ETA ARAMAIOKO JAIEK EMANDAKOA**
Sanpedroek eta sanmartinek emandakoaren errepasoa egingo dute, hainbat erreportajeren bidez.
*'**Hemen Debagoiena**' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00*



**FRANTZIAKO TOURRA DEBAGOIENEAN**
Uztailaren 2an tropel erraldoiak bailaran utziko dituen ongietorrien eta ospakizunen errepasoa egingo du Xabier Urzelaik.
*'**Harmailatik**' Astelehena, 21:30 eta 23:30*



**SAN MARTIN JAIEN JARRAIPENA**
Goiena telebistan eta *Goiena.eus* atarian jarraitu ahal izango dira Aramaioko jaietako ekitaldi nagusiak.
*'**Hemen Debagoiena**' Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00*



**ESKORIATZAKO, ELGETAKO ETA ARAMAIOKO JAIAK**
Aitor Agirianok, Oihan Loitik eta Andrea Gonzalezek aurkeztuta, San Pedero, Ferixa Nagusiko eta San Martin jaien laburpena.
*'**Jaiak**' Eguaztena, 21:00 eta 23:00*

GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
***goiena.eus/telebista***
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

# AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 30

**ESKORIATZA San Pedro jaiak**
Egitarau osoa *Goiena.eus*-en.
*Eskoriatzan.*

**ELGETA Ferixa Nagusia**
Umeen eta Erretiratuen Eguna. Egitarau osoa *Goiena.eus*-en.
*Elgetan.*

**BERGARA Merkealdien azoka**
Bedelkarreko saltokien aurrealdeetan.
*Bergaran, 17:00etan.*

**OÑATI Zubillagako jaiak**
18:30ean, txupinazoa eta jaien hasiera, eta pilota txapelketako finalak; 20:30ean, barbakoa; 22:30ean, Youth United, Korda Rota eta Beranduegi taldeen kontzertuak.
*Zubillagan.*

**ARAMAIO San Martin jaiak**
Egitarau osoa 17. orrialdean.
*Aramaion.*

**ARETXABALETA 'Catarsi feminista' erakusketa**
Gaur da azken eguna.
*Arkupen, 18:00etan.*

**BERGARA Dei taldea**
Debalde.
*Gorlako kantinan, 19:00etan.*

**ARRASATE Arrasate Musikaleko Big Band**
Udazabal egitarauaren baitan.
*Monterronen, 19:30ean.*

**OÑATI 'Gerraren oihartzunak' ikuskizuna**
Parte hartuko dute: Ganbara eta Hots abesbatzak, Miel Guridik, Xabier Regueirok eta Amaia Zipitriak. Debalde.
*Plazako frontoian, 22:00etan.*

## ZAPATUA 1

**ELGETA Ferixa Nagusia**
Egitarau osoa *Goiena.eus*-en.
*Elgetan.*

**BERGARA Merkealdien azoka**
Bedelkarreko saltokietan.
*Bergaran, 09:30ean.*

**ARAMAIO San Martin jaiak**
Egitarau osoa 17. orrialdean.
*Aramaion, 10:00etan.*

**ESKORIATZA San Pedro jaiak**
Egitarau osoa *Goiena.eus*-en.
*Eskoriatzan.*

**ARRASATE 'Arrasate hiribildu bizia' bisita gidatua**
Izena emateko: *Arrasate.eus* edo 943-25 05 00.
*Biteri plazan, 11:00etan.*

**OÑATI Zubillagako jaiak**
11:00etan, meza; 12:30ean, dantzariak eta auzoko erretiratuei omenaldia; 17:00etan, mus eta toke txapelketak eta umeendako eskulanak; 18:00etan, *Sebastian* erraldoiari ongietorria; 18:30ean, txokolate-jana eta txorimaloak; eta 19:30ean, Gauargirekin erromeria.
*Zubillagan.*

**ANTZUOLA San Martzial jaiak**
16:30ean, herri mailako plater tiroketa; 17:00etan, umeendako krosa; 21:00etan, afaria, erromeria, suzko erruberak eta izozkia.
*Lizarraga auzoan.*

**ESKORIATZA Zarimuzko jaiak**
12:00etan, meza, Garagartzako eta Gesalibarko koruarekin; eta ostean, luntxa trikitilariekin.
*Zarimutzen.*

**BERGARA Kokein taldea**
Eibarko taldearen kontzertua. Debalde.
*Usondo parkean, 22:00etan.*

## DOMEKA 2

**ELGETA Elgetako jaiak: Ferixa Nagusia**
Egitarau osoa *Goiena.eus*-en.
*Elgetan.*

**ARRASATE 'Arrasate auzoak' bisita gidatua**
Izena emateko: *Arrasate.eus* edo 943-25 05 00.
*Herriko Plazan, 09:00etan.*

**BERGARA San Martzialgo erromeria**
09:30ean, alborada; 10:00etan, igoera; 12:00etan, trikitilariak eta bertsolariak; 15:30ean, umeendako eta gazteendako jolasak; 17:00etan, herri kirolak; 18:00etan, Muxutruk taldea; 19:30ean, Ustekabe txaranga eta trikitilariak; eta 21:00etan, jaitsierako txupinazoa.
*San Martzialen.*

**ARAMAIO San Martin jaiak**
Egitarau osoa 17. orrialdean.
*Aramaion.*

**LEINTZ GATZAGA San Martin eguna**
12:30ean, meza; eta ostean, pintxo musikatua eta doke txapelketa.
*Goierri auzoan.*

**OÑATI Zubillagako jaiak**
13:00etan, ongietorria Tourrari; 14:30ean, bazkaria; 16:30ean, pilotari gazteen finalak; 18:00etan, Jose Mari Usatorre *Indio*-ri omenaldia eta txorimaloak; 19;30ean, helduen toka txapelketa.
*Zubillagan.*

## ASTELEHENA 3

**ARAMAIO San Martin jaiak**
Egitarau osoa 17. orrialdean.
*Aramaion.*

**ARETXABALETA Elixabete Mendiaren erakusketa**
Akuarela lanak ipini ditu ikusgai margolari zumarragarrak, gaurtik.
*Arkupen.*

## MARTITZENA 4

**OÑATI Jaiak antolatzeko bilera irekia**
Sanmigelak antolatzen hasteko.
*Kultura etxean, 18:30ean.*

**ARRASATE 'Dale Ramon' lana**
Trapuzaharra taldearen eskutik, Santiago Ugalde aktorearekin.
*Seber Altuben, 20:00etan.*

## EGUAZTENA 5

**ARRASATE Sasoibide: Inaziotar Bidea**
Arantzazu-Araia zatia egingo dute, ikasturtea bukatzeko.
*Biteri plazan, 10:00etan.*



KOKEIN

**BERGARA Kokein taldea**
Eibarko taldeak *Atomika* diskoaren kantuak joko ditu, besteak beste. Iker Saenz de Zaitegi, Jatsu Argarate, Haritz Lete, Ruben Txitxes eta Zaloa Urain dira taldeko kideak. Debalde da.
*Bihar, zapatua, Usondo parkean, 22:00etan.*

**OÑATI Mirua taldea**
2021ean Gazteako maketa lehiaketa irabazi zuten. Maitane Iruiñek eta Malentxo eta Mattin Zeberio anai-arrebek osatzen dute taldea.
*Lazarragan, 19:00etan.*

**ARETXABALETA Sahatsa dantza taldea**
Azkoitiko eta Azpeitiko dantzari eta musikariz osatutako taldearen ikuskizuna. Mendez mende iraun duten euskal dantzen erakustaldia egingo du.
*Herriko Plazan, 20:00etan.*

**BERGARA Hutsun eta Jel Trio taldeak**
Kontrabaxu, bateria eta akordeoiarekin eta txalapartak lagun eginda jazz doinuak eta bestelakoak eskainiko dituzte. Debalde.
*Usondo parkean, 22:00etan.*

## EGUBAKOITZA 7

**OÑATI Odol-ateratzea**
Udako oporren aurreko azkena egingo dute. Aurrez hartu beharko da ordua: 943-00 78 84.
*Enpresagintzan, 16:30ean.*

**ARETXABALETA UDAren ohiko eta ezohiko batzar orokorrak**
Besteak beste, 2023-2024ko denboraldiaren aurkezpena eta zuzendaritza-batzordeak hautatzeko bozketa egingo dituzte.
*Arkupen, 18:30ean.*

**OÑATI Trianako jaiak**
19:00etan, Astrotrastoren jaitsiera; ostean, txorimaloak eta erraldoiak eta Bolibiako pintxoak; 19:30ean, presoen aldeko elkarretaratzea; eta 22:00etan, Malko, Etxepe eta Azid taldeak.
*Trianan.*

**ARRASATE Mondra & Roll jaialdia**
Perkele, Sick Of It All, Bad Manners, UK Subs, Rotten XIII, Special Crew eta Agur taldeak.
*Monterronen, 19:00etan.*

**BERGARA Kamikaze Helmets taldea**
Rock, blues eta funk doinuetan eskarmentu handiko musikari bik osatzen dute Madrilgo taldea. Berumuga zikloaren baitan.
*Espoloian, 22:00etan.*

## ZAPATUA 8

**ARRASATE 'Arrasateko industria ondarea' bisita gidatua**
Industrializazioak hirigintza iraultza berria eragin zuen XX. mendean, eta horren adibide dira ibilbide horretan ezagutuko diren hainbat eraikin eta istorio. Izena emateko: 943-25 00 00 edo *Arrasate.eus* ataria.
*Biteri plazan, 11:00etan.*

**OÑATI Trianako jaiak**
12:00etan, umeendako marrazki saioa; 13:00etan, Euskal Herriko Akordeoi Elkartearen kontzertua; 15:00etan, Ilinti kafea; 16:00etan, mus txapelketa; 17:00etan, ur-pistola gerra; 18:00etan, txorimaloak eta erraldoiak; 19:00etan, Bolibiako pintxoak; 20:30ean, Sukena taldea; eta, 23:00etan, Muxutruk taldea eta DJ Edozer.
*Triana auzoan.*

**LEINTZ GATZAGA Eugenio Otsoa bola-txapelketa**
Alkate ohi zenaren omenezko txapelketa.
*Bolatokian, 18:00etan.*

**ARRASATE Mondra & Roll jaialdia**
The Interrupters, Buzzcocks, Arkada Social, Subterranean Kids, Svetlanas, Hell Beer Boys eta Main Of Ace.
*Monterronen, 19:00etan.*

## DOMEKA 9

**ARRASATE Udalatxera igoera Kanpanzartik**
Kanpanzarko harrobitik gora doan antzinako mando-bidetik egingo dute: 7,5 kilometroko ibilaldia, 3-4 orduan egiteko. Izena emateko: 943-25 00 00 edo *Arrasate.eus* ataria.
*Udala auzoko goiko aparkalekuan, 09:00etan.*

**BERGARA 'Iragana ilustratzen: Mauricio Anton eta Paleortea' erakusketa**
Abuztuaren 2ra arte ikusgai, Laboratoriumek duen ordutegian.
*Laboratoriumen, 10:00etan.*

**OÑATI Trianako jaiak**
10:00etan, goiz ereserkia; 13:00etan, Oñatz dantza taldeko gaztetxoen dantza emanaldia; 15:00etan, auzo-bazkaria; 18:00etan, Potx eta Lotx pailazoak; eta, 21:00etan, Xolonporen omenezko traka.
*Triana auzoan.*

**ARRASATE Manu Chao (sarrerak agortuta)**
Musikari paristarrak kontzertu akustikoa egingo du. Burutik eta Eire taldeak ere izango dira oholtzan.
*Monterron parkean,18:00etan.*

## ZINEMA

**GASTEIZ**

FLORIDA

**Aguila y jaguar**
Zapatua eta domeka: 11:45.

**Aisha**
Egubakoitzetik domekara: 20:00, 22:00. Astelehenetik eguenera: 20:00.

**Reservoir dogs**
Martitzena: 19:30.

**Flash**
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 17:00. Zapatua eta domeka: 11:30, 17:00.

**Houria**
Egubakoitzetik domekara: 17:15, 21:45. Astelehenetik eguenera: 17:15.

**Indiana Jones y el dial del destino**
Egubakoitza: 16:45, 19:40, 22:30. Zapatua eta domeka: 11:30, 16:45, 19:40 22:30. Astelehenetik eguenera: 17:00, 20:00.

**La maison**
Egubakoitzetik domekara: 22:00. Astelehenetik eguenera: 20:00.

**La puerta magica**
Egubakoitza eta astelehenetik eguenera: 17:30. Zapatua eta domeka: 11:45, 17:30.

**La sirenita**
Egubakoitza: 17:15. Zapatua eta domeka: 11:30, 17:15. Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Repostero y chef**
Egubakoitzetik domekara: 17:00, 22:00. Astelehenetik eguenera: 17:00.

**Ruby: aventuras de un kraken adolescente**
Egubakoitza: 17:00, 19:00, 20:00. Zapatua eta domeka: 12:00, 17:00, 19:00, 20:00. Astelehena, eguaztema eta eguena: 16:45, 18:45. Martitzena: 17:15.

**Sin malos rollos**
Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 19:30.

**Zapatua eta domeka: 11:30, 19:30.**

**Spiderman, cruzango el multiverso**
Egubakoitza, eta astelehenetik eguenera: 19:15. Zapatua eta domeka: 11:30, 19:15.

**Asteroid City**
Egubakoitzetik domekara: 21:45.

**Traicion**
Egubakoitzetik eguenera: 17:30.

**Una vida no tan simple**
Egubakoitzetik domekara: 20:00, 22:15. Astelehenetik eguenera: 19:45.

## KRITIKA

**Asteroid city** ★★★☆☆
**Zuz.:** Wes Anderson. **Herr.:** AEB (2023). **Aktoreak:** lJason Schwartzaman, Scarlet Johansson. **Iraupena:** 114 minutu.

### Garai nahasia

**ANTONIO ZABALA**

*Asteroid City* filma narratzaile batek batzen dituen bi zatitan banatuta dago. Zuri-beltzeko irudiek joan den mendeko 50eko hamarkadako antzerki obra baten prestaketa erakusten digute. Eta koloretan antzerki obra ikusi dezakegu, baina ez antzerki formatuan, baizik eta marrazki bizidunen antza duen dekoratu baten aurrean. Istorioa Ameriketako Estatu Batuetako basamortu baten kokatzen da, Asteroid City izeneko herri batean. Han, urte batzuk atzerago, asteroide bat erori zen, eta orain, astronomo gazteentzat topaketa bat egingo dute. Han militarrak, astronomo gaztetxoak eta haien familiak biltzen dira, gaztetxoen artean nork duen proiektu onena erabakitzeko. Haiekin batera estralurtarren agerpena izango da. Garai nahasia 50eko hamarkada.

Andersonen filmak komikien eta marrazki bizidunekin zerikusi handia du. Hezur-haragizko pertsonak marrazki bizidunetako munduan sartuta daude. Pelikulako egoerak burugabeak dira eta agertzen diren pertsonaia gehienak munduan nahiko galduta daudela dirudi. Wes Andersonen filmak burutazioz beterik daude, irudi formatu aldaketekin, zuri-beltzarekin eta koloreekin jokatuta. Eta hor barruan danetik egoten da. Oso momentu distiratsuekin batera horrenbesteko graziarik ez duten eszenak tartekatzen dira. Kolorez filmatutako istorioa zuri-beltzekoa baino askoz hobea da.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

Zu hemen zaude.
goiena



AZKEN BERBA

MIKEL ARREGI

## Prigozhin eta jusapolak

Indarkeriaren monopolioa edozein estaturen ardatza da, nahiz eta azken aste honetan zalantzak piztu diren. Garai zailak dira agintarientzako. Asteburuan, Yevgeny Prigozhin buru duen Wagner taldeak kolpe saiakera eman zuen errusiar armadako buruzagien kontra. Tankeak hartuta, milaka mertzenariok Rostovetik Moskurako bidea hartu zuten, errusiar aire armadaren bonbek eta Lukaxenko bielorrusiar presidentearen bitartekaritzak kolpea eten zuten arte. Errusia aldean mertzenarioak asaldatuta dabiltzan honetan, gurean titular hau irakur zitekeen aste hasieran: *Bi mila ertzainek lehendakaritzako bidea egin dute lan eskaeren alde*. Wagner-eko mutilek bezala, gure poliziek ere agintariengana jo dute zuzenean, lan baldintzekin nazkatuta daudela adieraztera.

Jusapol polizia-sindikatuaren bidetik, *Ertzainas en Lucha* deritzon mugimenduari kirats erreakzionarioa dario. Indar *asindikala* direla diote, baina bada *asindikal* edo *apolitiko* baino adiera kontserbadoreagorik? Badirudi, ertzainen greba mehatxua gaindituta, Tourra normaltasunez irtengo dela bihar Bilbotik. Jaurlaritzak, baina, adi jarraitu beharko du. Gaitza Ertzaintzaren erroetaraino sartuta dago eta aferak luze joko du, dudarik ez izan.

BUKATZEKO

# Aliena izan nahi duen pertsona eta Arrasate

Maiatzean, Jordi Wild-en 'The Wild Project' egitasmoaren baitan, 'The Black Alien'-i egindako elkarrizketaren grabaketan izan ziren Alberto Narro –Ziorla Kenpoko kidea– eta haren anaia. "Esperientzia interesgarri eta berria" izan da hura ezagutzea

**Miren Arana Pagaldai** ARRASATE

Anthony Loffredo, edo *The Black Alien* izenez ezagunagoa, bere aspektu fisikoagatik famatu egin den 33 urteko frantsesa da; izen artistikoak dioen bezala, estralurtar baten itxura hartzea da haren nahia, eta hori gauzatzeko proiektu bat jarri du martxan: *The Black Alien Project*. Gizatasuna galtzeko aurrera eramaten ari den prozesuan, zenbait operazio kirurgiko egin ditu, eta, oraingoz, buruan duenaren %46 baino ez du bete: aurpegi beltza –begiak barne–, mihia erdibitu eta berdez margotu, sudurreko zati kartilaginosoa kendu eta belarriak moztu, eta esku bakoitzeko bi atzamar kendu ditu, baina aldaketa gehiago ditu aurreikusita.



Alberto Narro eta *The Black Alien* –Ziorla Kenpo taldeko kamisetarekin–. A.N.

### 'The Wild Project'

Maiatzean, Loffredo Jordi Wild-en podcast programan izan zen, beste bi arrasatearrekin batera: Alberto Narrorekin eta anaiarekin batera. Narro Ziorla Kenpo taldeko kidea da, eta anaia *The Black Alien*-en gerentea. Madrilen bizi da Narroren anaia, eta han ezagutu zuten elkar Anthony Loffredok eta biek; duela zortzi hilabete hasi ziren elkarlanean, gutxi gorabehera, baina kenpoko kideak ez zuen maiatzera arte ezagutu frantsesa.



Narro, Jordi Wild-ekin. ALBERTO NARRO



*The Black Alien* eta Wild. ALBERTO NARRO

Jordi Wild mundu mailan oso famatua den *youtuber*-a da, eta, egun, lanean ari da Youtube plataforman bertan, *The Wild Project* izeneko podcasten egitasmoan. "Noizbehinka ikusi dut podcasta, eta zenbaitetan esana zeukan Wild-ek *The Black Alien* ezagutu nahi zuela, eta anaiari esan nion", azaldu du Narrok. Hala, maiatzeko asteburu batean Manresara abiatu ziren, programarako elkarrizketa bat grabatzera: "Ni Arrasatetik eta anaia eta Anthony Madrildik joan ziren; baina asteburua hirurok batera pasa genuen".

"Bikain" joan zen elkarrizketa, Narroren hitzetan; aurreiritziez sakon aritu ziren, eta baita *The Alien Black*-ek buruan duen ideia artistikoen inguruan ere; elkarrizketan dioenez, 26 urterekin hasi zen aldaketarekin, eta dituen ideia artistikoak haren gorputzean erakustea zen nahia; harentzat eboluzioa da egiten ari dena, eta horrela adierazi nahi du.

### Esperientzia berria

Ziorla Kenpo taldeak ere bereganatu zuen saioan protagonismo txiki bat; izan ere, elkarrizketatuak taldeko kamiseta jantzita izan zuen elkarrizketa osoan zehar. Narrok protagonista ezagutzea esperientzia "berria eta interesgarria" izan dela aitortu du, eta oso eskertuta agertu da elkarrizketan Ziorla Kenpo taldeko kamiseta jarri zuelako: "Gure taldea ikusaraztea garrantzitsua da, eta momentu aparta zen hori egiteko".

'HEMEN DEBAGOIENA', UDA GIROAN
GOIENA TELEBISTAN
UZTAILAREN 6TIK AURRERA, 18:00/20:00 ETA 22:00
SASOIAREKIN BAT, ITXURA ETA EDUKI FRESKOAK
DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!
goiena
Zu hemen zaude.
